

*Herzbidetza
astialdian*



EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde Autonomiaduna

Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

*Herzki detza
astialdian*

EMAKUNDE/
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA

Vitoria-Gasteiz 1997

IZENBURUA:

EGILEA:

"Hezkidetza astialdian"

Emakunde/Emakumearen Euskal Erakundea. Manuel Iradier, 36.
01005 Vitoria-Gasteiz

MAKETATZAILEA ETA

KOORDINATZAILEA:

DATA:

ALE ZENBAKIA:

DESKRIPTOREAK:

IRUDI DISEINUA:

ILUSTRATZAILEA:

FOTOMEKANIKA:

INPRIMAKETA:

ISBN:

LEGE GORDAILUA:

Ana Rincón

Abendua, 1997

1.000

Hezkidetza, astialdia, sozializazioa, simposioak

Ana Badiola eta Isabel Madinabeitia

M^o José Gamboa

Rali, S.A. Particular de Costa, 8-10 . Bilbao

Gráficas Santamaría. Bekolarra, 4. Vitoria-Gasteiz.

84-87595-68-5

VI- 581/97

“HEZKIDETZA ASTIALDIAN” JARDUNALDIEN EGITARUA

Vitoria-Gasteiz, 1996ko maiatzaren 16-17

1. eguna

9:30etan Dokumentazioa ematea

9:45etan HASIERA

José Luis Madrazo Juanes jaun txit prestua

Gazteria eta Gizarte Ekintzarako zuzendaria. Kultura Saila.

Koordinatzailea: Agustina Hormías Godoy andrea

Gazteriaren teknikaria. Gazteriaren Arabako Foru Erakundea.

10:00etan GENEROAREN ERAGINA NORBERAREN NORTASUNA ERAIKITZERAKOAN

Txostengilea: María Jayme Zaro andrea

Hezkuntza Zientzien eta Filosofiako Fakultateko Psikologi Saileko irakaslea. Bartzelonako Unibertsitatea.

11:00etan ATSEDENALDIA

11:30etan HEZKUNTZA EZ-FORMALA BALORE, JARRERA ETA PORTAEREN ERATZAILE

Txostengilea: M^{re} José Urruzola Zabalza andrea

Hezkidetza aholkularia Bizkaiko PATetan.

12:30etan EZTABAIDA

13:30etan BAZKARIA

Koordinatzailea: Edorta Bergua Giménez jauna

Gazteriaren teknikaria. Gipuzkoako Foru Aldundia.

14:30etan HEZKIDETZAKO ESPERIENTZIAK EUSKADIKO AUTONOMI ELKARTEAN

Txostengilea:

URTXINTXA Astialdiko Eskola

Txostengilea: Maixabel Agirre Ruiz andrea

Psikopedagogi taldeko partaidea, HEZKIDE ESKOLA. Donostia.

Txostengilea: Mikel Madina Ugartemendia

EUSKAL-ESKAUT-GIA ELKARTEKO koordinatzailea.

16:00etan ELKARRIZKETA

16:30etan HEZKIDETZAKO ESPERIENTZIAK EUSKADIKO AUTONOMI ELKARTETIK KAN-
PO

Mercedes Arquero Martín andrea, LA KALLE Kultur Elkartea.

Conchi Jaramillo Guijarro andrea, P'ELLAS Kolektiboa.

17:30etan ELKARRIZKETA

18:00etan SAIOAREN AMAIERA

2. eguna

Koordinatzailea: Mikel Etxebarria Etxeita jauna

Kultura Ekintza zerbitzuburua. Bizkaiko Foru Aldundia.

9:30etan EZKUTUKO CURRICULUMAREN ANALISIA ASTIALDIKO EGITARAUETAN

Txostengilea: Luz Martínez Ten andrea

Hezkidetzaren Programaren arduraduna, Madrilgo Autonomi Elkarteko Gazteriako
Zuzendaritza Orokorrari atxekiturik dagoen Gazteak Sustatu eta Hezitzeko Eskolan.

10:30etan HEZKUNTZA EZ-SEXISTA HEZKUNTZA EZ-FORMALEAN ETA ASTIALDIAN

Txostengilea: Menchu Ajamil García andrea

Nazioarteko aholkularia generoari eta garapenari buruzko gaietan, eta "Taller de
Educación no sexista" eskuliburuaren egilea, Gurutze Gorriko Gazteriaren alorrarentzat.

11:30etan ATSEDENALDIA

12:00etan TALDE-LANA

13:30etan LANAK BATERATZEA

14:00etan AMAIERA

Itziar Fernandez Mendizabal andre txit prestua

EMAKUNDE / Emakumearen Euskal Erakundeko idazkari nagusia.

AURKIBIDEA

AURKEZPENA	9
-------------------------	---

HASIERA	11
----------------------	----

José Luis Madrazo Juanes

GENEROAREN ERAGINA NORBERAREN NORTASUNA

ERAIKITZERAKOAN	17
------------------------------	----

María Jayme Zaro

HEZKUNTZA EZ-FORMALA BALORE, JARRERA ETA

PORTAEREN ERATZAILE	33
----------------------------------	----

M^a José Urruzola Zabalza

HEZKIDETZAKO ESPERIENTZIAK EUSKADIKO AUTONOMI

ELKARTEAN	45
------------------------	----

HEZKIDETZA ASTIALDIAN	47
-----------------------------	----

Urtxintxa Astialdiko Eskola

HEZKIDETZA HEZKIDE ESKOLAN	57
----------------------------------	----

Maixabel Agirre Ruiz

HEZKIDETZA GIPUZKOAKO ESKAUT-GIA MUGIMENDUAN	63
--	----

Mikel Madina Ugartemendia

HEZKIDETZAKO ESPERIENTZIA EUSKADIKO AUTONOMI ELKARTETIK

KANPO	71
--------------------	----

HEZKIDETZA ESPAZIO IREKIAN	73
----------------------------------	----

Mercedes Arquero Martín

EZKUTUKO CURRICULUMAREN ANALISIA ASTIALDIKO

EGITARAUETAN	85
---------------------------	----

Luz Marfínez Ten

HEZKUNTZA EZ-SEXISTA HEZKUNTZA EZ-FORMALEAN ETA

ASTIALDIAN	103
-------------------------	-----

Menchu Ajamil García

Aurkezpena

Hezkuntzaren barruan, eskola eta familiarekin batera astialdia gune garrantzitsua da, eta denek sozializazio prozesuaren esparrua osatzen dute.

Astialdiko hezkidetzaren helburua da laguntza eskaintzea rolak, baloreak, jarrerak eta gaitasunak esleitzeko modu tradizionala, sexuaren araberakoa, nolaerebait gainditzeko. Horren ordez beste eredu bat bultzatu nahi da, pertsonaren osotasunezko garapena, aniztasuna eta bakoitzaren nortasuna errespetatzen dituen.


Horretarako neskei eta mutilei era beretsuan animatu behar zaie modu askotako jardueretan ari daitezen, bai eremu publikokoak eta baita pribatukoak ere, eginbeharrak eta erantzukizunak elkarrekin banatuz eta balore guztiak positibo gisa indartuz genero estereotipoetan erori gabe.

Lan eskerga honen barrenean funtsezkoa da Sustapen Soziokulturaleko eta Astialdiko Eskoletako monitoreen eginkizuna. Horretan inportantzia handikoa da pertsona horiek ohar daitezen beren jokabidean eragina izan dezaketen baloreen eta jarreraren sistema kritikoki berraztertzearen beharraz eta beren ikasleei buruz dituzten itzaropideez. Konturatu behar dira, halaber, etengabeko heziketak duen garrantziaz, hezkidetzaren ikuspegitik eredu egokietara iritsi nahi baldin bada.

Neska-mutilengan imaginazioa pizteko eta inoiz aritu gabeko arloetan trebatzeko ahaleginak egin behar dira, taldeko jokoak elkarrekin egin ditzaten eta liderraren papera txandaka beregana dezaten, bai nezek eta bai mutilek. Era berean, espazioaren banaketa eta materialen erabilera berdintasunez egin behar da eta, sozializazio elementu garrantzitsua delako, hezkuntzaren erabilpen ez-sexista lehenetsiko da astialdiko zentroan egiten diren jarduera guztietan, hala nola elkarrizketak, irakurketak, e.a.

Euskadiko Autonomi Elkarteko Emakumeentzako Ekintza Positiboan II. Planean proposatzen denari jarraikiz, Emakundetik hezkidetzara bultzatu nahi da, hezkuntza sistemaren esparru guztietan, dela hezkuntza formalean, dela ez-formalean, sexuan oinarritutako diskriminazioa errotik erazteko eta, diferentzia kontuan hartuz eta laguntza emanez, bakoitzaren nortasuna garatzeko.

Beraz, behar-beharrezkoa da aurrera egitea estrategia metodologikoetan eta eskuhartze ereduetan, bai irakasleei eta baita hezkuntza agente desberdinei dagokienez ere. Horrekin bilatu nahi da Euskadiko Autonomi Elkarteko eskoletan —hezkuntza arautuan eta astialdie-takoetan— izan dezatela benetako hezkidetzara sistema bat, neskak eta mutilak egokiro prestatzeko gai izango dena, etorkizunean izango dituzten erronkei aurre egin diezaien erantzukizun osoz eta aukera berdintasuna gordez. Horixe izan zen gure jardunaldi honen helburua eta interesgarria zela ikusirik, oraingo honetan argitaratzea erabaki dugu.



Txaro Arteaga Ansa
EMAKUNDE/Emakumearen
Euskal Erakundeko zuzendaria

JOSÉ LUIS MADRAZO JUANES

**Gazteria eta Gizarte
Ekintzarako zuzendaria. Eusko
Jaurlaritzako Kultura Saila**

Hasierra

Egunon guztioi:

Lehenik eta behin, nire eskerrik beroenak gizarte honetan elkartasun eta tolerantzia handiagoa lortzeko eta gaur egun jasaten ditugun berdintasun ezak desagertarazteko nahaiaren ondorio diren jardunaldi hauetan parte hartzen duzenoi.

Jardunaldi hauek Emakunde Erakundearen ekimenez sortu dira, haur eta gazteen Astialdiko Eskolak eta Sustapen Soziokulturaleko Eskolak hezkidetzaren ikuspegitik bultzatzeko asmoz sortu ere.

Hasiera-hasieratik, Gazteria eta Gizarte Ekintzarako Zuzendaritzatik ekimen honen alde jarri gara eta gure laguntza eskaini diogu jardunaldien prestaketan, bitartekari izanik Eskolen artean. Eskoletatik egin dituzuen proposamenak eta iradokizunak baliagarri izan dira jardunaldien behin betiko egitaraua taxutzeko, bi egun hauetan egingo dituzuen aportazioen aurrerapen gisa, eta dudarik gabe aberasgarri izango zaizkigu ez bakarrik hemen izango garenontzat, baita hezkuntza ez-formala bultzatzeko konpromisoa hartu duten pertsona guzientzat ere.

Zuek denok ezagutzen duzue inork baino hobeto hezkuntza ez-formalak zer garrantzia duen. Familiarekin eta eskolarekin batera, astialdiko hezkuntza arlorik inportanteenetarikoa da pertsonen garapenean, beren sozializazio prozesuaren barruan.

Astialdiko hezkuntzak dituen ezaugarriengatik, ondo gogoan hartzeko aukerak ematen ditu.

Alde batetik, taldeen funtzionamenduak berak, kanpoko antolakuntza beharrekin loturarik gabe, partaideen arteko berdintasunezko harremanak izateko bidea irekitzen du.

Bestalde, talde bakoitzak bere hezkuntza-proiektua finkatzen du, destinatzaile konkretu bartzuen interesei eta beharrei egokitua eta aukera ematen duena hezkuntza integral batetik balore, jarrera eta portaera ez diskriminatzaileak bizi ahal izateko.

Hirugarrenik, hezkuntza-baliabide eta material aproposenak hautatu eta prestatzeko, hezkuntza barne dela, ematen duen aukera horri esker hezkuntza ez-diskriminatzailea segurtzen da.

Gaur aukera ederra izango dugu alderdi hauek guztiak jorratzeko.

Dena den, aipatutako aukera horiek errealitate bihurtzeko, nahitaezkoa dugu gaitasunaren eta jarreraren aldetik hezitzaile egokienak izatea. Horregatik, azpimarratu nahi dut zer garrantzia duten astialdiko monitoreek eta sustatzaile soziokulturek hezkuntza zereginetan.

Astiaaldiko hezkuntzan zeresan handia du monitoreek beren bizi izandako balore eta portaeren transmisioak, bai gaztetxoekin dituzten harremanetan eta baita monitoreek beren artean dituztenetan ere. Beraz, oso gogoan izan behar da ea bat datozen transmititu nahi diren balore, jarrera eta portaerak eta egunerokotasunean, jakinean edo ezjakinean, bizitzen direnak.

Biharko jardunaldian aukera izango dugu hori guztia arretaz aztertzeko.

Azkenik, azpimarratu behar dela iruditzen zait hezitzaile horiek ongi prestatu behar direla, hala teoriaren nola praktikaren aldetik. Arlo horretan azpimarratu behar da hezitzaileak prestatzeko eskolek orain arte egin duten lana.

Gaur arratsaldean, horietako batzuk beren esperientziez mintzatuko zaizkigu. Baina ez nuke ahaztu nahi monitoreen prestakuntzarako gutxieneko programak elaboratzeari buruz Euskadiko Autonomi Elkartean ofizialki onartuak dauden haur eta gazteen astiaaldiko hezitzaileak prestatzeko eskola guztiek egindako lana. 1995-1996ko ikasturte honetan zehar arautegi berria aplikatzen hasiak dira, zeinek segurtatzen baitu monitoreek hezitzaileen eginkizunak beregana ditzaketela, ikaslearen eta gizartearen garapena helburutzat hartuz eta monitore mota bat sortuz, hezitzen denarekin bat datorrena. Horrela, zerbitzurako jarrera, borondatea, ingurunearen ezagutza eta harekiko konpromisoa, tolerantzia eta talde lanean aritzeko gaitasuna erakusten dituen monitore mota bat prestatu nahi da, hezkuntza, metodologia eta pedagogia kontuan hartzen dituen, astiaaldiko hezkuntzaren planteamendutik abiatuta.

Amankomuneko materietan sartzen da "berdintasunerako hezkuntza: hezkidetzatza eta sexualitatea" izeneko modulua, astiaaldiko hezkuntza-ekintzaren eta eskuhartzearen barruan.

Horrekin hezkuntza arloko behar bati erantzun nahi izan zaio, hain zuzen ere, aitortutako eskolek ezezik Eusko Jaurlaritzaren Gazteria eta Gizarte Ekintzarako Zuzendaritzak berak ere lehentasunezko zat hartu duena, gero eta gizarte solidarioagoa lortu eta oraindik gure artean dauden diskriminazioak desagertarazteko.

Era honetako heziketak bere emaitzak emango ditu astiaaldiko talde bakoitzeko monitoreen eguneroko lanean. Salbuespen gutxi batzuk izan ezik, talde gehienek beren sortzetik bereetik izan dute hezkuntza planteamendu nabaria, are zaharrenek, jada 20. eta 25. urteurrena ospatu dutenek ere. Azpimarratu behar da horiek jaio ziren garaian guraso askok ez zutela ongi ikusten ezta hezkuntza mistoa bera ere.

Beraz, ez gara hutsetik abiatu. Hezkuntza esperientzia luzea eta interesgarria da astialdiko taldeetan eta hori aitortu egin behar da bere neurrian.

Era berean, aitortu behar da eginahalak areagotu behar direla kasu batzuetan edo planteamendua bultzatu behar dela beste batzuetan.

Edonola ere, hasieran esan dudan bezala, astialdiko hezkuntza eremu bat bailitzan hartu behar dugu, zeinetatik ikasle bakoitzaren nortasuna bultzatu baitaiteke bere bizitza pertsonal eta sozialaren gainontzeko eremuen barnean.

Hauexek dira jardunaldi hauen oinarritzko gakoak.

Eskola batzuetako ordezkariak adierazi diguzue planteamendu integralago bat egitearen komenentzia. Jardunaldi hauek balizko prozesu baten hasiera bailiran hartu behar ditugu. Horren egituraketan zerikusi handia izango dute sakontzen segitzeko interesaturik dauden pertsona eta erakunde bakoitzaren lan erritmoak, sentsibilizazio mailak eta gogoeta egiteko ahalmenak.

Jardunaldi hauek, berez, Astialdiko eta Sustapen Soziokulturaleko Eskoletako irakasleei zuzentzen zaizkie, batik bat, baina irekirik daude sentsibilizatuta dauden monitore eta beste-lako eskuhartze esparruetako hezitzaileentzat ere.

Jardunaldien metodologiak bide ematen du parte har dezazuen elkarrizketetan eta, bereziki, hemen zaudeteneko batzuek proposatutako talde-lanetan.

Jardunaldiak amaitzean iritziak bateratzearekin aukera izango da analisi, azalpen, ikuspegi eta esperientziekin sintesi bat egiteko ezezik baita egoki iruditzen zaizkizuen proposamenak biltzeko ere, horiek markatuko dituztelako ekintzarako jarraibideak, lehen aipatu prozesu horretan.

Berrito nire esker ona agertzen dizuet hemen parte hartzeagatik, eta Emakunde Erakundeari jardunaldi hauek antolatzeagatik, eta besterik ez zait gelditzen bi egun hauek ahalik eta emankorrena izatea opatzea baizik, gizarte gero eta zuzenago eta solidario bat eraikitzearen mesedetan, xede horretan ari baikara guztiok buru-belarri.

MARÍA JAYME ZARO

**Hezkuntza Zientzien eta
Filosofiako Fakultateko
Psikologi Saileko irakaslea.
Bartzelonako Unibertsitatea**

Generoaren

eragina

norberaren

nortasuna

erakitzera

1.

Norberaren nortasuna pertsona ororen ardatz zentrala da, eta hortik abiatuta nor bere bizimodua bideratzen du. Gizaki garen aldetik, gu guztiok identifikatu izan gara pertsona eredugarri batekin, hau da, gure egin ditugu hainbat ezaugarri, balore, e.a., gure gidari bilakatzen direnak, eta horri esker kanpoko munduarekin erlazionatu ahal izaten gara, bai eta geure artean ere. Bata bestearengandik desberdin izatea norberaren indibidualtasuna segurtatzeko modu bat besterik ez da.

Nortasun hori, gehienetan ez da pentsamentu kontzientea izaten, esan nahi baita, nor bere nortasuna izanda ere, horrek ez du gure pentsamendua menderatzen, aitzitik, erdi ezkutuko bigarren planoan gelditzen da, nahiz eta bere indar determinatzailea galtzen ez duen. Ariketa erraz baten bidez —ia joko bat— argiago adieraz dezakegu. Paper orri batean galdera hau idatz dezakegu: "Nor naiz ni?" eta ondoren "Ni naiz...". Hortik aurrera pertsona bakoitzak erantzun behar dio galdera horrek iradokitzen dion guztiari, baina bat-batean, ia pentsatu ere gabe, horrela segurtatzen delako erantzunak egiazkoak izango direla. Erantzun horietan aurkituko dugu bakoitzaren nortasunean zer den garrantzitsua, eta bertan isladatuko da gizartearen eta kulturaren eragina, ondoren ikusiko dugun bezala. Nortasun pertsonala ez da inola ere mundura ekartzen dugun ekipamendu biologikoaren osagarri hutsa, denboran zehar eraiki behar den zerbait baizik. Esperientziez eta ikasketen poderioz osatu beharko da, inguratzen gaituenarekin gure harremana sakonduz doan neurrian. Baina ingurune hori ez da besterik gure errealitatearen gainean gizarteak eta kulturak eraiki duten azken produktua baino. Beraz, nortasun pertsonala ez dago eragin soziokulturaletik aske, eta horregatik nortasunaren alderdi bat rol sozialek zehazten dute; beste era batera esateko, eginkizun batzuk geureganatuz gizartearen bizitzara egokitzen garen bezala eta bertan parte hartzen dugun moduaren arabera. Goian aipatzen nuen ariketa egin duten pertsonak ohartuko dira beren burua honela definitzen dutela: "maistra", "abokatu", "ama", "semea"... hau da, gizartean betetzen duten lekuari dagozkion alderdien bitartez. Aipatuko dute, halaber, norberaren izakera, nortasun edo balore etikoekin zerikusia duten alderdiak: "adimentsua", "beldurtia", "atsegina", "ulerkorra", "erlijiosoa"... Beste batzuentzat, ordea, alderdi fisikoak izango dira, hala nola "polita", "erakargarria", "txikia", "sudur handia"... bigarren mailakoak diruditen arren pertsonaren barneko mundua gobernatzen duten aldagaiak direnak.

Eta azkenik, generoari dagozkion alderdiak aurkituko ditugu: "gizona" eta "emakumea" ardatz nagusiak dira, "maskulinoa" edo "femeninoa" bezala. Zer esan nahi du azken honek?

Sexua, sortzetik beretik dakargun material biologikoa eta gure ugaltze ahalmena arautzen duena, balore propioa izatera iritsi dela, eta horrekin identifikatzen gara eta gure indibidualtasuna eratzen dugu. Ekidin ezina da; jaio aurretik hasten den prozesu batean zehar, gu guztiok nortasun ia independente bat erdietsiko dugu, adituek sexu identitatea izendatu dutena, edo azken urte hauetan generoaren identitatea, eta hitz hau aipatuko dut pertsona bakoitzak gizon nahiz emakume izateagatik soilik dituen ideia eta sentimenduak izendatzeko.

2.

Generoa: tresna sozial bat

Errealitate biologikotik abiatuta, sexutik, alegia genero hitza proposatu da mendebaldeko gure kulturari —baina baita beste kultura batzuetan ere— biologiaren arlokoa den horri eduki psikologikoa eta, bereziki, eduki soziala eman zaiola azpimarratzeko. Horrela, generoa edukiontzia bikaina da, sineskerak, rolak eta, oro har, sexua dela eta gizakien gainean asmatu diren estereotipoak biltzen dituena. Antzina-antzinatik gizarte guztiak generoaz baliatu izan dira bi multzo edo kategoriatan bereizteko: maskulinoa vs. femeninoa.

Victoria Sau-k adierazten duen bezala (1993), generoak bi alde ditu: bata, kolektiboa, eta horrek esan nahi du pertsona bakoitza zein kulturatan jaio den, harexek itzaropideetara makurtuko dela; bestea, indibiduala, hots, pertsona bakoitzak bere generoa nola bizi duen adierazten duena. Azken hau generoaren identitatea da, arestian esan dugunez, identitate indibidualaren funtsezko osagaia, halako moldean, ezen gure jardun osoa gidatuko baitu, kognitiboa ezezik baita emozionala, afektiboa edo motibazionala ere.

Hala ere, gizarteek, boterearen inguruan eratu baitira, generoen hierarki erlazio bat finkatu dute, batzuek (goikoak) beste batzuen (behekoak) gainetik jartzen dituenak. Azken batean, edozein giza jarduerak hierarkia sozial horretan parte hartzen du, berezitasun batekin, hau da, maskulinitasunaren generoa gizartearen arau bihurtu dela, eta arau horretara egokitu beharrean (haren menpean jarri beharrean) aurkitu dela femeninitasunaren generoa. Egoera horretan hiru ondorio nabarmentzen dira: 1) gizonen eta emakumeen berezko diferentziak handitu egin dira esplizituki generoaren bitartez eta 2) genero horri esker sexu rolak eratu dira, hau da, gizonen eta emakumeen jokabide egokiak eta ezaugarriak talde bereizietan; 3) generoa, botere tresna gisa, genero estereotipoen oinarria izan da, zeinen bidez ulertzen baitugu maskulinitasuna (gizona) dela aktiboa, instrumentala, historiaren eragilea, eta femeninitasuna (emakumea) berriz, pasiboa, adierazkorra, historiaren subjektu jasalea.

Laburbilduz, generoaren identitateak, identitate pertsonalaren alderdi berezi horrek, ezinbestez (eta ezkutuan) jatorri soziala du, bere kronifikazioari laguntzen diona, horrek harrokeriazko botere agerpenarekin duen zerikusiarekin.

Generoa eta hezkuntza: etorkizuneko helduen sozializazioa

Mundura jaiotzen den izaki berria ez dator huts-hutsik: sexu bat emana du jada (emate hori umontzian gertatzen da). Une horretatik beretik izaki hori, in utero edo jaioberria, hasten da tratu desberdina jasotzen, zein sexutakoa den, halakoa. Dagoeneko murgildua dago tes-tuinguru sozial batean, zeinek behartzen baitu, haurtzaroan barrena, genero identitate mota bat eraikitzea, eta hori gabe identitate pertsonal propioa ezin lor dezake ez gizarte-an integratu ezta modu normalean beste gizakiekin harremanak izan ere. Generoak trasmittitzen dizkio baloreak, portaerak, hunkipenak eta pentsamentuak, batzuk egokiak eta besteak ez.

Adituek bat datoz esatean genero identitatea haurrak 6 urte inguru dituenean sendotzen dela eta gero ez dagoela aldatzerik. Neska-mutikoak, aro horretan, guztiz malguak dira, edozein motatako eraginari irekiak. Aita-amek duten genero jokabidea izango da jarraituko duen lehen eredia, sozializazioaren bide latz horretan; familiak, gizarteko talde txiki-na den aldetik, komunikabide mota guztiek: TBak, ipuiek, haurrentzako liburuek, filmeek, e.a.ek, adiskideek eta bereziki eskolak, behar den informazioa ematen dute haurtzaroan ikas dadin gizarteak zer espero duen gizabanako berrien aldetik eta nor bere generoaren arabera, zein den bakoitzak bete behar duen eginkizuna mundu honetan. Orduan ikasten dugu zein jokabide ditugun egokiak eta zein debekatzen zaizkigun —zigorra ere ekartzen ahal digutenak—: neskatiko batek ez du autoekin jolastu behar, hori mutikoen jolasa da eta, era berean mutiko batek ez du beste beste baten ilea orrazten ibili behar, hori neskatilen jolasa da eta ez da itxurazkoa mutiko bat hortan aritzea. Aipatu behar da generoan oinarritutako sozializazio prozesu horrek eragina duela ez bakarrik ikasketen hezkuntzan, eskola-ko eduki eta jarrerren ikasketan alegia, baita jarduera soziokultural ludikoenen bitartez ere, hots, jolasen, astialdiaren banaketan eta beste hurrekiko harremanen bitartez.

Eskolako esparrutik eta astialditik aldi berean ekinez, hezkuntza orokorra eman dakieke haurtzaroan eta nerabezaroan, horrekin gizadiak, maila horietan bederen, bere gizabanakoak aldeztetik goi/behe mailakoen artean gehiagotan ez ditzan sailka. Gizabanako femeninoek gogozko duten edozein giza jardueratan aritzeko eskubide osoa dute; era berean, gizabanako maskulinoek aukera izan behar dute beren konplexutasun osoan agertze-ko, horrek dakarren feminotasuna barne dela, bada, ez dugu ahaztu behar gizonezkoak behartuak daudela beren nortasunaren hainbat alderdi, sozialki maskulinitasunarekin kontrajarrira daudenak, gogor erreprimizera.

4.

Masculinoa/Femeninoa: herkidetzan kontuan hartu beharreko gai batzuk

Hurtzarroan eta nerabezaroan gertatzen den sozializazio prozesu guztien barnean mezu aski sinplea dago, ondoren laburtuko duguna: gizona da inportantea (gizon izatea harrotzeko eta prestigioa izateko arrazoia da eta askatasun pertsonala ematen du), emakumeak ez du baliorik (haren izaera gizonezkoaren itzal gisa hartzen ez badugu behintzat, Simone de Beauvoir-ek bere "Le deuxième sexe" liburuan iradoki zuen bezala). Mezu horrek, azken finean, etorkizuneko helduaren nortasuna eta bizimodua baldintzatzen, taxutzen eta itxuratzen du: ez dezagun ahaztu hurtzaroa dela generoaren ideologiarekin ongarrizten den hazia.

Ondorioz, maskulinitasunari hainbat balore ematen zaizkio femininitasuna baztertuz; hau da, gizonezkoengan ezaugarri positibotzat jotzen dira, hain zuzen ere, emakumeak, emakumea delako, ez dituen kualitateak. Ildo horretatik, gizonak bere buruaz konfiantza du, independentea da, dominatzailea, aktiboa, lehiakorra... emakumea, aldiz, segurtasunik gabekoa, menpekkoa, otzana, pasiboa, solidarioa... Beraz, gizona oso-osoan kanpora begira dago, esparru publikora: esplorazioa, abentura, kirola, zientzia; emakumea, ordea, barnera murgilduta, esparru pribatura (Poal, 1993): familiaren bizitza, etxea, besteak zaintzera. Ezaugarri hauek, horren esanahi guztiarekin, gizon eta emakume askoren identitateen gune bihurtuko dira, halako moldez non portaera guztiak, ezjakinean izanda ere, haietara egokituko baitira.

Guztiok dakigunez, hurtzarroan eta nerabezaroan zehar nortasuna garatuz joaten da, beraz, ez da zaila imaginatzea generoa sobera erabiliz, are astialdietako ekintzetan ere, etorkizuneko gizon edo emakume helduek ezaugarri estereotipatuak izango dituztela, horien bizitzak mugatuko dituztenak. Emakumearen kasuan (neskatila, nerabea edo, azkenik, emakume heldua) nabarmendu daitezke une oro erabili beharkeko liratekeen ezaugarri batzuk, sozializazioak sartu duen nolabaiteko gorpil zorotik ateratzen laguntzeko. Hainbat autorek ongi eztabaidatutako alderdi batzuk aipatuko ditugu:

A) Esan dugunari jarraituz, estereotipo maskulinoak, jada hurtzarotik hasita, gizona arrakastatsu, independente eta dominatzaile izatera bultzatzen du. Kanpoko mundua menderatzen duela erakutsi nahi dio, bere ekintzen jabe dela. Bitartean, neskatikoak alderantzizkoa

ikasten du, batik bat, kanpoko mundu hori ez duela menderatzen, mundu hori mutikoei dagokiela, eta berari, berriz, barnekoa, afektiboa, pasiboa. Hau guzti hau batzuek eta besteek izaten dituzten jokoetan nabaritzen da eta espazioaren erabilpenean (patioan, eskolan, baita etxean ere), zeina beti mutikoek kontrolatzen baitute. Etorkizuneko helduek agudo ikasten dute zein den dominatzailea eta zein dominatua.

B) Bestalde neskatilek eta mutikoek beren arrakastak eta porrotak arrazoi diferenteei egozten ere ikasten dute. Horri esaten zaio egozpen soziala, eta ondorio nabariak izan ohi ditu helduen jardunean. Edozein jardueratan arrakasta izanez gero, mutikoak barneko faktoreei egozten die, norberaren ahalmen eta eginahalari, alegia; ondoko esamoldeak maiz entzuten dira mutikoaren ahoan: "oso ona naiz matematikan, asko estudiatu dut, benetan bikaina naiz..." Neskatilek, aldiz, arrakasta kanpoko faktoreen ondoriotzat hartzen du, suertea, irakasleen bihotz ona, edo gurasoena, lagunena... kasualitatea ere hobesten dute norberaren balioaren gainetik: "suerte handia izan dut azterketa honetan, irakasleak begi onez ikusten nau, txurro bat izan da nik ondo egitea..." hagitx zaila da beren arrakasta adimeanean edo trebezian oinarritzen duten neskatikoak aurkitzea (egon badaude, noski, baina ez kolektibo femeninoa bere horretan hartuta). Indibiduen arteko diferentziek oroitarazten digute, edozein modutan ere, generalizazioak ez direla gehiegi erabili behar, baina, zernahi gisaz, aldaketak izateko esperantzari lehio bat irekitzen diote.

Hariari jarraikiz, porrota aztertzen badugu, egozpenak alderantzizkoak dira. Mutikoak azterketa gainditzen ez badu edo monopoly jokoan galtzen badu, berarentzat injustizia bat izango da seguraski. Beraz, arrazoiak, argi eta garbi, kanpoan kokatzen dira, politikokoak dira edo sozialak. Neskatilek, ordea, barnean aurkituko dituzten arrazoiak: oraingo honetan bai dela norberaren gaitasunaren edo trebetasunaren kontua emaitzaren arrazoiak. Demagun neska-mutil talde bat kartetan ari dela; mutiko batek partida galtzen badu seguruezt honelako zerbait esango du: "hau suerte kaskarra!, karta txar havekin ez dago ezer egiterik!", baina, neska baldin bada, esango du: "kartetan ere ez dakit!, oso moldakaitza naiz honelako gauzekin, jokoetarako ez dut balio...". Diferentzia hauek praktikan zer ondorio dituzte? Neskatilek, behin eta berriro huts egin ondoren, ikasiko du aldatzea ezinezkoa dela; jarrera ezkorra hartzen du egindako hutsegiteetatik ikasteko, alferrikakoa deritzolako eginahal guztiari. Orduan, iraganean izandako porrotak (batzuetan batekin aski izaten da) oroitarazten dizkieten arlo horiek neskarentzat interes osoa galtzen dute, haiengana lehia eta parte hartzeko gogoia joan egiten zaizkio eta, hortaz, izan zitezakeen aukerak, lanbidean eta gizartearen, murriztuz joango dira.

C) Aurrean azaldutakoarekin oso loturik dago neskatilak ez direla, nonbait, eroso sentitzen lehiaketetan, batik bat, mutikoen kontra aritu beharrean aurkitzen badira. Arrakasta izateko gizonezkoek duten joera ezagunak, eta haiei leporatzen zaien agresibitateak (sexuarekin lotzen denak), badute ikustekorik fenomeno honekin. Autore batzuen iritziz horren arrazoia motibazioan dauden diferentzietan datza, zeinak haurtzaroan sortu baitziren; hain justu ere, lorpenaren motibazioaz ari dira. Pertsona batzuek arrakasta lortzeko motibazio bizia garatu dute, eta beste batzuek, berriz, badirudi itzuri egiten diotela. Gizonezkoek motibazio hori dute, emakumeek ez dutena, eta horregatik heldutasunera iristean emakumeak konformatu egiten dira erantzukizun eta prestigio urriko eta soldata txikiagoko postuekin. Ikusten dugu ideia hau bat datorrela maskulinitasun eta feminitasunaren eredu tradizionalekin: emakumearentzat kontua da besteen oniritzia lortzea, ez gizartearen errekonozimendua.

D) Beste esplikazio bat ere proposatu da, arrakasta izateari beldurra izenarekin ezagutzen dena (Horner, 1969), feminitasunaren ohiko ideiarekin eta arrakasta sozialaren arteko gatazka sortarazten duen zentzuan. Arrakasta erdiesteko lehiatu egin behar da, eta hori ez zaio gustatzen emakumeari, batez ere hainbat egoeratan agresibitatea eskatzen duelako eta, jakina, emakumearengan sozialki gaizki ikusia dago. Gainera beste gizonekin lehiatu behar duenez, segurtasun eza sortzen zaio. Ondorioa: arrakasta ez da feminitasuna. Datu hauetaz gogoeta egiten badugu ikusiko dugu bide horretatik gure neskatikoak eta nerabeak baztertu egiten ditugula prestigioko arloetatik, zientzietatik eta ikerketatik, eta bere bizitzan nahi dutena egitetik. Emakumearen jokatze eremua murrizten ari gara sexuen arteko hierarkiari eutsi nahian.

E) Azpimarratu behar da zenbait eremutan, hain zuzen ere lehiakortasuna eskatzen dutenetan, adibidez joko sinple batean eta, batez ere, tartean beste mutiko batzuk baldin badaude, nesken autoestimua maila apalagokoa dela. Beraz, hitzen bidezko laguntzaren behar handiagoa dute mutilek baino, bereziki maskulinitzat jotzen diren jardueretan saiatzen direnean (emakumezkoen jardueratzat jotzen direnetan, feminitasuna baliogutxitua dagoenez, arrakastak ez du garrantzi gehiegirik). Eta hortxe egin behar dira ahalegin handienak, kontua ez da motibatzea bakarrik, bidegabeko murriztapen sozialak, bizitza egoera gutxi batzuetara murrizteko gai direnak, desagertaraztea baizik.

F) Azkenik, aipa daiteke nerabezaroa aro franko zaila dela identitate pertsonalaren behin betiko garapenean, hain zuzen ere generoaren eraginagatik. Afektibotasunaren arloan garrantzi handieneko une bat da, zeinetan bikotearen harremanak helburu bihurtzen hasten

baitira eta lagunek ere garrantzi handia izaten baitute: orduan gertatzen denarekin zerikusi handia izango du etorkizuneko gizon edo emakume helduak.

Neska nerabea, gaur egun bere esparrua eskatzen hasia dena, mezu bikoitz baten aurrean aurkitzen da, eta hortik aurrera orientatuko du bere bizitza heldutasunean. Haurtzarotik hasi da rol femeninoari egokitzen, baina ulertu du rol hori ez dagoela behar adina baloratua. Horrek zer esan nahi du?, femeninoetasun tradizionala onartzen badu bigarren mailakoa izatea onartzen duela, arbuiatzen badu mutilekin arrakastarik ez izatera eramango duela: kontraesan bat dago generoaren eta asumitutako baloreen artean. Eta une horretan horixe da gauzarik garrantzitsuenetakoa garapen sozioafektiborako. Baina egoera mingarriagoa da orain arte bere denbora gogor estudiatzen eman duen neska adimentsu batenzat: nota onak ateratzen dituen neska ez bide da oso femeninoa, batez ere ikuspegi maskulinoetik begiratuta. Mutila minduta sentitzen da adimenez bera baino maila hobea erakusten duen neskaren aurrean. Minduta, bere prepotentzia zapuztuta gelditu delako: generoen isilpeko itunean ezjakintasuna emakumezkoen ezaugarri bat baita. Horrela, nerabe asko sozialki marginatuak izateko arriskuan daude beren balioa onartzen badute eta hasitako karrera aurrera eramaten badute.

Zein da hezitzaileen egitekoa eskolan nahiz astialdietan?

- Ahaleginak egitea ohiko generoaren estereotipoak betirako ez dezaten iraun, jakinean izanik zein diren estereotipo horiek, bai eta horiek izateko laguntza ematen duten nortasunaren aldagaiak zein diren ere. Neskatilari eta mutikoei, bi sexuetako nerabeei, animatu behar zaie era guztietako jardueretan aritzera eta ikasi behar dute ezein jokabide sozial ez dela, berez, ez maskulinoa ez femeninoa.
- Garrantzi berezia eman behar zaie jokoei, horien bitartez ikasten direlako helduen rolak. Ideia nagusia da neska-mutilak bultzatzea denak ari daitezen era berdinean jarduera ezberdinetan, ekintza, abentura, aurkipena eta zientziazatik hasi eta etxearen zainketari dagokiona arte. Jostailuen erabilpenari dagokionez, horietako bat bera ere ez dadila kutsu sexistarekin nahasi eta, batez ere, irudimena sustatzen eta halako trebetasun kognitiboak lantzen dituzten jostailuak aukeratzearen aldeko apustua egitea. Esate baterako, ikerketa zientifikoek erakusten digute emakumeak gizonak baino moldakaitza goak direla trebezia espaziala eskatzen duten lanak egiteko. Hori jakinik, eta gogoan izanda alde aurreko praktika eta estimulazioak beharrezkoak direla honelako abildadeak eta antzekoak garatzeko, jarduera hori inplikatzeko jostailuak eta jokoak suspertu behar dira eta bertan parte har dezatela bai neskek eta bai mutilek ere: eraikun-

tza jokoak, adibidez; edo ordenagailuen jokoak, bi edo hiru dimentsioko kuboak ager-
tzen dituztenak, e.a.

- Taldeko jokoetan, saiatu behar da mistoak izan daitezen beti. Autore batzuentzat (Buss eta Plomin, 1979), mutikoak lehiatzeko bizitza eta arrakasta izateko prestatzen dira era horretako jokoan bidez. Neskek eremu horretan falta den elkartasun eta lankidetzaren ikus-pegia eman dezakete, bai eta arrakasta nahiz porrota jasaten erakutsi ere, okerreko ait-zakiarik bilatzeke.
- Taldeetan gertatzen den arazo bat lidergoa izaten da. Gizonak joera du aginte jarrerak bereganatzeko eta, makurragoa dena, emakumeen jarrera, oro har, jarrera hori onar-tzea izan ohi da. Edonola ere, gidari baten beharra duen jostetazko jardueraren bat an-tolatzen denean, aukera eman behar da eginkizun hori neska batek bere gain har de-zan eta gainerakoek onartzen ikas dezaten. Konpromisozko soluzio bat izan daiteke agintea txandakatzea, denek izan dezaten agintera iristeko eta egoera hori baloratzeko aukera.
- Batez ere, ez da utzi behar neskek ikusle soil bihur daitezen, mutilak egoeraren elemen-tu aktibo diren bitartean, pasibotasun-aktibotasun erlazio sexistak hori betirakotu nahi ez badugu behintzat. Edozein dela ere jarduera, denek parte hartu behar dute. Haurrei nahiz nerabeei atsegina zaien jarduera bat antzerkia izan ohi da: aterabide egokia da paper maskulinoak eta femeninoak bateratu eta egoera berriak bizi ahal izateko.
- Kanpoan egiten diren jardueretan kontuan izan behar da espazioa nola erabiltzen eta banatzen den. Frogatua dago mutilek joera dutela erdi gunea beren menpean hartzeko eta neskek, berriz, inguruan sakabanatzeko; dagoeneko, agertzen ari dira bizitzaren aurreko jarrera jakin batzuk: gizonezkoen protagonismoa emakumezkoen pasibotasu-naren eta bigarren mailan gelditzeko joeraren aurrean.
- Eginbeharrak eta erantzukizunak elkarrekin banatzea. Txango egitera badoaz, garbiket-a eta janari kontuak bi sexuetakoen artean egin behar dituzte, eginbeharreko jardue-
retako batzuk bileran. Era berean, indar fisikoa eskatzen duen zerbait egin behar dene-an, ez dadila mutilen eginbeharra bakarrik izan: neskek ere ikasi behar dute zamak hartzen, gizonezkoak baino gutxiago direla sentitu gabe. Izan ere, etxeko lanek gizon askok uste baino indar gehiago eskatzen dute, beraz, planteatzen dena da maskulino-tasun kutsu horri amaiera ematea.
- Egin diren ikerketek adierazi nahi digute irakasleek garrantzi handiagoa ematen dietela mutilei neskei baino. Hortaz, kasu gehiago egiten diete, haien izena maizago aipatzen

dute, eredutzat jartzen dituzte eta haien partehartzea bultzatzen dute, eta horren ondorioa da mutilek neskek baino konfiantza handiagoa dutela beren buruaz. Beraz, taldeka eztabaidatzen denean zerbait, aukera eman behar zaie neskei, gutxiengoa nahiz gehiengoa izan. Ideiak proposa ditzatela edo egin beharreko jarduerak eta beti eztabaida daitezela. Arlo honetan diskriminaziorik badago etorkizuneko sozializazioan eta portaeran eragina izango du, eta helburua da autoestimua bultzatzea.

- Kasu egin erabiltzen den mintzamoldeari. Gehienetan neskeei zuzendutako esaldietan adjetibo eta txikigarri gehiago sartzen dira, bai eta pertsonen arteko ekintzei buruzko aditzak ere, eta mutilei zuzendutako esaldietan ekintza eta mugimendua maizago aipatzen dira. Neskei buruan sartzen diete inportanteena dela besteek miresteko gorputz ederra izatea; adibidez, esplais monitore askok ezin dute beren neskatikoen edertasuna eta beren mutikoen adimena isilean utzi. Mezu hori erraz ulertzen da edozein adinetan.
- Eta batez ere, aravari jarraitzeko aitzakian, hizkuntzaren arloan emakumea ez utzi aipatzeke. Talde misto bat badugu aurrean, ahal delarik bi sexukoak aipatuko ditugu, a.b.: "tira gazteak, filme bat ikusi behar dugu..." esaldiaren ordez beste hau izan daiteke: "tira neska-mutilak..." Neskek horrelakoetan ez dute zertan gelditu edo pasiboki onartu behar beren itzalpeko papera. Emakumeak ez dira bestelako hori, maskulino ez dena, beraz hizketan ere isladatu behar dira gure diskurtsoan sartzen baditugu.
- Azkenik, astialdietan egin beharreko jardueren artean irakurtzea funtsezkoena da. Hezkidetzaren ikuspegitik ahalegindu behar dugu irakurketak ahal den neurrian ez daitezela sexistak izan, alegia, ez ditzatela ahalmen femeninoa hainbeste mugatzen duten generoen rol tradizionalak berriro sortu. Gauza bera esan daiteke zineaz eta telebistaz. Baina irakurketa edo ikuskizun sexistak izatez gero, neska-mutilekin obra horien edukia eztabaidatzea aberasgarri izango litzateke oso, eta orobat eguneroko bizitzan saihestu beharreko alderdiak zein diren adieraztea. Ustez eta maltzurkeriarik gabekoak diren produkzioak ere eduki inperialistaz eta sexistaz beterik egon daitezke; esate baterako, zenbait adituren iritzi "Lehoi Erregea" matxismoaren eredu bat da, milaka neska-mutiko eta adineko pertsona liluratu baditu ere. Filme horren gaineko eztabaida bat rol-playing anti-sexista bat baino onuragarriagoa izan daiteke.

Hautzaroan jolasa izaten da astialdietako jarduerarik gogozkoena, bai eta kanpoan egiten direnak ere; nerabezaroan dagoen gaitasun kognitiboa aprobeitatu daiteke intelektualki pizgarri izan daitezkeen jarduerak burutzeko. Bide bakarra da, une oro, neskek eta mutilek maila berdineko partaidetza izatearen alde egitea, esleitu zaien generoaz ahaztu eta jar-

dueretan murgilduz esperientzia hartuaraztea, elkarren arteko kontrajarpenak ebitatzea (batzuek besteak mendera ez ditzaten), motibatzea, konfiantza ematea, sormena eta ahalmen kognitiboak suspertzea; hitz batean esateko, bihar generoen hierarkiaren arazoei aurre egin beharko dieten pertsona helduak izango diren izaki horiek integratzea.

Bibliografía

- BORCELLE, G.: *La igualdad de oportunidades para las jóvenes y las mujeres en la enseñanza técnica, la formación profesional y el empleo*. Bartzelona: Serbal/Unesco, 1984 (jatorrizkoa frantsesez, 1983).
- BEAUVOIR, S. de: *Le deuxième sexe*. Paris: Gallimard, 1949 (Gaztelera-itzulpena, *El segundo sexo*. Buenos Aires: Siglo Veinte Arg., 1970).
- BUSS; PLOMIN: "Diferencias entre los sexos". In Buss eta Plomin, *El desarrollo de la Personalidad*. Madril: Marova, 1980 (jatorrizkoa ingelesez, 1975).
- DECROUX-MASSON, A.: *Papa lit. maman coud*. Paris: Denoël/Gonthier, 1979.
- DELAMONT, S.: *Sex roles and the school*. London: Routledge, 1990.
- DI NICOLA, G.P.: *Reciprocidad hombre-mujer: igualdad y diferencia*. Madril: Narcea, 1991.
- EAGLEY, A.H.: *Sex differences in Social Behavior: a Social-Role Interpretation*. Hillsdale, NJ: Lawrence Erlbaum Associates, 1987.
- EVANS, M.: *The Women Question*. (2. arg.). London: Sage, 1994.
- FEMINARIO DE ALICANTE: *Elementos para una educación no sexista*. (Guía didáctica de la Coeducación). Valentzia: V. Orensa Editores, 1987.
- FERNÁNDEZ, J.: "Nuevas perspectivas en el desarrollo de la tipificación sexual y de género". *Estudios de Psicología*, 32, 1987, 47-70 orr.
- GIANINI, E.: *A favor de las niñas*. Caracas: Monte Avila, 1978 (jatorrizkoa italieraz, 1973).
- GÓMEZ-FERRER, G.: *Las relaciones de género*. Madril: Marcial Pons, 1995.
- HARE-MUSTIN, R.; MARECEK, J.: *Marcar la diferencia*. Bartzelona: Herder, 1994.
- HYDE, J.S.: *Psicología de la mujer. La otra mitad de la experiencia*. Bartzelona: Morata, 1995 (jatorrizkoa ingelesez, 1991).
- JAYME, M.; SAU, V.: *Psicología diferencial del sexo y el género*. Bartzelona: Icaria, 1996.
- LEE, P.C.: "Psychologie et différences entre les sexes". In Hurtig eta Pichevin (Arg.), *La différence des sexes* (63-75 orr.). Paris: Tierce, 1986 (jatorrizkoa ingelesez, 1976).
- MACCOBY, E.E. (Arg.): *Desarrollo de las diferencias sexuales*. Madril: Marova, 1972 (jatorrizkoa ingelesez, 1966).
- MARÍN, G.: "Atribuciones sobre el éxito y el fracaso: efectos del sexo y la cultura". *Revista de Psicología Social*, 1, 1989, 7-12 orr.
- MICHEL, A.: *Fuera moldes*. Bartzelona: LaSal/Unesco, 1987.

-
- MISCHEL, W.: "Las diferencias sexuales en la conducta desde el punto de vista del aprendizaje social". In Maccoby, E.E. (Arg.), *Desarrollo de las diferencias sexuales*. Madrid: Marova, 1972 (37-60 orr.).
- MORENO, M.: *Cómo se enseña a ser niña: el sexismo en la escuela*. Bartzelona: Icaria, 1986.
- MORENO, M.: *Del silencio a la palabra*. Madrid: Emakumearen Institutua/Gizarte Gaietarako Ministerioa, 1992.
- OAKLEY, A.: *La mujer discriminada: biología y sociedad*. Madrid: Debate, 1977 (jatorrizkoa ingelesez, 1972).
- POAL, G.: *Entrar, quedarse, avanzar*. Madrid: Siglo XXI, 1993.
- SAU, V.: *Ser mujer: el fin de una imagen tradicional* (2. arg.). Bartzelona: Icaria, 1993.
- SELIGMAN, M.P.: *Indefensión* (3. arg.). Madrid: Debate, 1989 (jatorrizkoa ingelesez, 1975).
- SIGUÁN, M. "Palomas para la ceguera". *Anuario de Psicología*, 35, 1987, 53-60 orr. (Miguel Siguán irakaslearen omenezko ale monografikoa).
- SHERMAN, J.A.: *Psicología de la mujer*. Madrid: Marova, 1978.
- SUBIRATS, M.; BRULLET, C.: *Rosa y Azul*. Madrid: Emakumearen Institutua/Kultura Ministerioa, 1988.
- URRUZOLA, M.J.: *¿Es posible coeducar en la actual escuela mixta?* Bilbo: M. Canal Arg., 1991.
- ZAZZO, B.: *Féminin-Masculin à l'école et ailleurs*. Paris: Presses Universitaires de France, 1993.

**MARÍA JOSÉ URRUZOLA
ZABALZA**

**Hezkidetza aholkularia
Bizkaiko PATetan**

Herzkuntza

erz-formala

balore, jarrera

eta portaeren

eratzailerak

1.

Sozializazio prozesu ezberdinak, sexuaren arabera

Gizarte honetan, pertsonen bizitzaren esperientzia, garapen pertsonala eta hezkuntza ez da neutroa izaten. Sexu batekoa edo bestekoa izateagatik, sozializazio bidean bi kategoria hauen poderioz bereiziko dituzte: "genero maskulinoa" alde batetik eta "genero femeninoa" bestetik, eta haien heziketa ez da osoa izango, prozesu honetan sortutako balore sistemari jarraituz.

1.1

KULTURA FEMENINOA ETA MASKULINOA

Emakumeok eta gizonezkook sozializazio prozesu arrunt desberdina bizi izan dugu. Bertan, pentsatzeko, harremanak izateko, gauzak egiteko dibertitzeko, sentitzeko eta lan egiteko modu batzuk eskuratuz joan gara, hau da, munduan izateko, bizitzeko modu orokor batzuk, zeinak prozesu honen faktore batzuen eraginpean eraman gaituzten gaur egun emakumeen eta gizonen kolektiboek esperientzia historiko oso desberdina izatera.

"Kulturatzai" ulertuz herri baten, giza talde baten edo garai baten ezagupen multzoa, garapen maila, esperientzia kolektiboa, izateko modu orokorrak, baieztza dezakegu emakumeen eta gizonen kolektiboek bizi izandako esperientzia desberdin hori bi kultura izatera iritsi dela: femeninoa eta maskulinoa.

Jakin badakigu gizakiok, sexuari begiratuta, emakumezkoak eta gizonezkoak garela. Eta bizi izan dugun sozializazio prozesuaren arabera kultura femeninokoak ala maskulinokoak gara. Sexua naturala da, kultura eskuratzen dena.

Horrek argitzen du, ezen kontuan harturik pertsona ororen artean gertatzen diren diferentziak, oro har, mintzo gaitzezkeela "emakumeez" eta "gizonezkoek", bi kolektibo bailiran, bakoitza bere kultura desberdinarekin.

Egituraz sexista den gizarte honetan, emakumeei esleitu zaizkie halako rol, lan, funtzio, balore, e.a. batzuk, "genero femeninoa" definituko dutenak, eta gizonezkoek beste rol, lan, funtzio, balore, e.a. batzuk, "genero maskulinoa" definituko dutenak, nahiz eta beti ez den bat etortzen pertsona baten sexua genero batekoa edo bestekoa izatearekin.

1.2

KULTURA HORIETAKO BAKOITZEAN GARATUTAKO BALOREAK

Sozializazio prozesu desberdin honetan, bistan da emakumeek eta gizonek balore batzuk beste batzuk baino gehiago garatu dituztela.

EMAKUMEEK GEHIAGO GARATU DITUZTE:

Bizitza afektibitatearen aldetik hartzeko gaitasuna. Haurrekin eta bizi diren ingurunearekin duten loturagatik, eta egiten dituzten lanengatik, gehiago garatu dute maitasuna eman eta hartzeko gaitasuna, harremanetarako samurtasuna, ulermena eta beste pertsonenganako enpatia.

Esleitu zaien rola dela-eta, eremu pribatuko egunerokotasunean izaten diren gertakizunez arduratzeko gaitasuna garatu beharrean aurkitu dira, ezinbestekoa, bestalde, gizakiaren behar oinarritzkoenak betetzeko, eta ohitu egin dira soluzioak emateko erabakiak hartzera, bai eta, eremu horretan bere autoritatea erabiltzera, beti ere, beren mugetatik haruntzago joaten ez diren bitartean.

Mundu pribatuarekin ikustekoa duen ororekin jarduteko gaitasun edo dinamismo handia garatu dute.

Horren ondorioa izan da emakumeek gizonek baino gehiago garatu dutela eguneroko bizitzako gatazkak eta arazoak konpontzeko adimen globala eta autonomi maila dezentea hartan moldatzeko.

Kultura femeninoaren ezaugarritzat jotzen da aldakortasuna. Horren alderdi positiboa malgutasuna izango litzateke, errealitatearen aldaketen aurrean, eta alderdi negatiboa, aldiz, ez-egonkortasun emozionala.

Baina, topikoak gora-behera, konturatu gara ohartzeko ahalmena eta intuizioa errealitatea ezagutzeko metodo egokiak izan direla emakumeentzat, baliagarri izan zaizkien eremu pribatuan erabiltzerakoan ezezik baita eremu sozialean, hots, zientzian, politikagintzan edo arte sorkuntzan aritu direnean ere.

Sozializazio prozesuak berak ere azaltzen digu beste balore batzuk ere praktikatu dituztela, giza garapenarentzat kaltegarriak direnak, hala nola:

- Balore batzuk, berez positiboak izanik ere, esleitu zaion estereotipo sexistaren arabera orientatzea, horrela kaltegarri bihurtuz, esate baterako: ulertzea eta praktikatzea:
 - sentsibilitatea milikeria bailitzan;
 - lagun hurkoaren ongizatean pentsatzeko ahalmena, norberaren interesak sistematikoki ahaztea balitz bezala;

- afektibitatea eta samurtasuna, alienazio gisa.
- Balore jakin batzuek erabiltzera mugatzea, estereotipo femeninoari hobeki egokitzen zaizkiola uste delako:
 - samurtasuna, sentiberatasuna eta agresitibaterik eza (beharrezko defentsa bezala ulertuta);
 - eremu publikoan erabakiak hartzeko gaitasunaren garapena ez baloratzea
- Eremu pribatuaren mugak onartzea, baloreen garapenaren esparru bakartzat hartuz.
- Mundu maskulinoarekiko menpekotasuna, bai ideologi mailan eta bai gorputza eta desioak gizonaren menpean utziz ere.
- Gestio publikoan erabakiak hartzeko ahalmena bertan behera utziz.

Balore hauek guztiak, positiboak nahiz negatiboak eta beste gainerakoak, "genero femeninoan" dira nagusi, eta kultura femeninoa moldatu dutenen artean elementu bat gehiago osatzen dute.

GIZONEK GEHIAGO GARATU DITUZTE:

Agresibitatea, zentzu positiboan ulertuta, nor bere burua eta bere interesak defenditzeko gaitasun gisa.

Publikotasunaren arloan zuzendari izateko esleitu zaien rola dela-eta, behartuak daude erabakiak arlo publikoan hartzeko gaitasuna garatzera, baita agintea izatera ere.

Beren jarduera edo dinamismoa arlo publikoan garatu dute.

Horiek horrela, adimena, sozialki bide intelektuala deritzana, emakumeek baino gehiago garatu dute eta errealitatearen ezagutzan eta garapen teknikoan aurrerapen konkretuak lortu dituzte.

Dedukzioa landu dute intuizioa baino gehiago, eta elukubrazioa obserbazioa baino gehiago, ezagupen metodo gisa.

Indar fisikoaren garapena, bere zentzu positiboan, kultura maskulinoaren esku egon da. Behar bada horregatik gizonezkoek emakumezkoek baino gehiago landu dute arrisku fisikoetan ibiltzeko gaitasuna.

Afektibotasun maila apalagoa izateak lagundu dio arlo publikoaren gestioan eraginkortasun handiagoa izateko.

Gizonezkoen sozializazio prozesuak berak argitzen du nola praktikatu dituzten giza garapenerako negatiboak diren beste balore batzuk, adibidez:

- Balore positibo batzuk, esleitu zaion estereotipo sexistaren arabera orientatzea, horrela negatibo bihurtuz, esate baterako: ulertzea eta praktikatzea:

-
- ekintza, aktibismo gisa;
 - arriskua, zuhurgabetasun gisa;
 - autonomia eta erabakitasuna, nagusigo tresna gisa;
 - agresibitatea indarkeria bihurtzea.
- Balore jakin batzuk erabiltzera mugatzea, estereotipo maskulinoarentzat egokiago jotzen direlako: agresibitatea, eremu publikoan erabakiak hartzea eta samurtasunik edo sentikortasunik eza...
 - Arlo publikoa baloreak garatzeko esparru bakartzat jotzea.
 - Gatazkak konpontzeko tresnatzat indarkeria erabiltzea. Indartsuenaren legea, abereen artean agintzen duena.
 - Indar fisikoa eta boterea neurri gabe erabiltzea.
 - Lehiakortasuna, ooren gainera.
 - Afektibotasunaren garapen murrizta.

Balore hauek eta beste batzuk, positiboak eta negatiboak, nagusitu dira "genero maskulinoaren" baitan, eta kultura maskulinoa eratuz joan dira.

2.

Pertsonak sozializatzeko modu honen ondorioak

2.1

PERTSONEN GARAPEN EZ-OSOIA

Sozializazio prozesu hauek, gizartearen egitura sexistatik hain zehatz markatuak, sortu dute pertsona mota bat osotasunezko garapenik gabekoa, eta zailtasunak dituen pertsona bezala heldutasunera iristeko, hain zuzen ere, hezkuntzaren helburua izan delako pertsona oro beste baten osagarri bihurtzea, "laranja erdia", beste erdia bilatzera behartzea, osotu gabe edo zapuzturik gelditu nahi ez badu. Eta besterik beharko litzateke, hots, osotasunez garatutako pertsonak, inoren beharrik gabe eta libreki erabakiko luketenak besteekin nola-ko harremanak izan. Hezkuntza mota honek ez die mesederik egin ez emakumeei ezta gizonei ere.

2.2

GIZA GAITASUNAK HIERARKIZATZEN DITUEN BALORE SISTEMA

Baloreen transmisio estereotipatuaren helburua da laguntza ematea emakumeek eta gizonek esleitu zaizkien rolak bete eta berriro sor ditzaten.

Bide horretatik genero "femeninoak" eta "maskulinoak" mugitzeke diraute, hierarkizatuta eta nor bere tokian.

Egungo gizarteak balore batzuei lehentasuna ematea erabaki du, hala nola, errendimendu ekonomikoa, arrakasta (botereaz eta diruz neurtzen dena), agresibitatea, lehiakortasuna, indibidualismoa, indartsuenaren legea, aktibismoa, berehalakoan eta sobera pentsatu gabe ematen den erantzuna, eta antzekoak. Aldi berean beste balore batzuk gutxietea erabaki du, eremu pribatuko jarduera, erantzukizuna eta autonomia, bizitzari eta gatazkei afektibitatearen bidetik erantzuna emateko gaitasuna...

Baina, pertsonaren eredu berri baten hezkuntzan inplikatzeko hartu dugun erabakiak, etika berri batekin, eskatzen digu egungo gizartean sortutako balore sistema berraztertzea eta balore horiek birdefinitzea, pertsonen garapen etikoari lagunduko dioten abiapuntuetatik.

“Balore” hitzari ematen dizkioten adierak hain dira ugari, ezen nahitaezkoa baita ponentzia honetan zein zentzutan erabiliko dudan zehaztea.

Guretzat gaitasunak dira: giza ahalmenak, giza hazkuntzaren (kasu honetan hazkuntza etikoaren) alderdi zehatz bat garatzeko dugun boterearen adierazleak diren aldetik. Hau da, giza garapenerako berezko ahalmenak dira.

Guretzat baloreak izango dira gizarte batean edo kolektibo, talde, e.a. batean sortzen diren eraikin kulturalak, gizarte horrek giza gaitasunei ematen dien errekonozimendu mailaren adierazle gisa.

Horren arabera, baloreak dira gizarteak edo norberak ezarritako jokabidearen erakusleak, Gizakiaren berezko gaitasunak positiboki zein negatiboki neurtzen dituzten tresnak dira.

Beste modu batera esateko, balorea da gizarteak gaitasun bakoitzari jartzen dion prezioa.

Baloreek gaitasunen garapena baldintzatzen dute eta jarrera desberdinen bultzatzaile dira.

Baloreek baldintzatzen dute, adibidez, gaitasun batzuk garatzea eta ez besteak eta jarrera batzuk hartzea eta ez besteak. Alde horretatik, sekulako eragina dute pertsonen garapen osoan.

Baloreetatik abiatuz gaitasunak hierarkizatu dira. Esate baterako, ez zaie balio bera ematen ekonomikoki errentagarri izateko gaitasuna garatzeari, eraginkor izateko gaitasunari, lehiakortasunari, agresibitatez ekiteari... eta gaitasun afektiboari, sormenari, komunikatzeko, obserbatzeko gaitasunari eta sentiberatasunari.

3.

Testuinguru sozial honetan sortutako balore sistemaren eragina astialdiko zentroetako jardueran

Baloreen hierarkizazio hau guztia astialdiko zentro baten jardueran isladatzen da eta handik abiatuta hezitzen da, transmisio mekanismo batzuek erabiliz, adibidez:

- Hezitzaileen jarrerak.
- Zentroan diseinatzeko den jarduera bakoitzean bultzatzen diren baloreak.
- Zentroko espazioaren erabilera eta banaketa nesken eta mutilen aldetik, jolasetan, kirolatan, jardueretan.
- Jokoak eta jostailuen erabilera.
- Ipuinetan eta gainerako irakurketetan agertzen diren estereotipoak.
- Hizkuntzaren erabilpen sexista, genero maskulinoa guztiahaldun bihurtzen eta nesken presentzia ezkututzen duena.
- Indarkeriazko eguneroko harremanak eta emakumeen gorputzari maiz egiten zaizkion erasoak.
- Kirolen antolakuntza eta horietan neskek eta mutilek duten partehartze eta balorazio desberdinak.
- Zentroan egiten diren jaialdiak eta horietan birsortzen diren estereotipoak.
- Giza baliabideen eta baliabide materialen banaketa.

4.

Herzkiidetzaren filosofiatik egiten den proposamena: pertsonek osotasunerako garapena

Adierazi dugu gizarte sexista batean emakumeek eta gizonak lortzen duten garapena ez dela osoa, eta horregatik nahitaezkoa da osotasun-ez hori gainditzea eta pertsonaren garapen integralerako eredu bat sortzea.

Emakumeen eta gizonen kulturak aportatzen duen alde positiboa aitortuz eta barnertutako alderdi negatiboen kritika eginez, pertsonaren eredu berri bat sortzeko irizpideak aurki daitezke, balore sistema berri batean oinarrituta.

Asmoa ez da "pertsonek" klitxe bat egitea eta eredu bakarra edukitzea. Aniztasuna aberasgarri izan daiteke eta.

Pertsona bakoitza bakuna da eta errepikaezina, ahalmen desberdinen jabe da eta hain da aberatsa alde horretatik, ezen erruz gaindituko lukeela pertsona baten garapen integrala zer den adierazteko eman nahi izango litzatekeen edozein definizio hertsia.

Gainera, "garapenaz" hitz egiten bada, ulertzen da egiteko bidean dagoen zerbait dela, behin ere bukatzen ez dena, pertsona baten hazkuntza aldakorra delako, hainbat aldagaien poderioz: adina, garaia, kultura ezberdinak, aukera pertsonalak, e.a.

Hala ere, bada zehaztu daitekeen irizpide multzo bat, garapen indibidual eta kolektiborako positiboa dena hautematen laguntza eman dezakeena. Hainbat baloreren berri eman daiteke, pertsonen garapenerako lagungarri direnak, haien eboluzioa bultzatzen dutenak eta norberaren zoriona eta gizartearena ahalbideratzen dutenak.

Pertsona bakoitzaren nortasun eta bereizitasunetik abiatuta ahaleginak egingo dira nor bere gaitasunak erabil ditzan, norberaren ezaugarriak kontuan hartuta: sexua, adina, bizitza eta askatasuna, eta generoaren estereotipoak alde batera utzita, horiek garapen pertsonalaren murrizgarriak direnez gero kaltegarriak baitira emakumeentzat eta gizonentzat.

5.

Ekintzabideak astialdiko zentroetan, hezkidetzaren ikuspegitik

Astialdiko zentroetan lehenbiziko ekintzabidea da gogoeta prozesu bati hasiera ematea hezitzaileen artean, jaso duten hezkuntza hain estereotipatuari buruz. Gogoeta horrek, gainera, haien jarrerak sortarazi eta portaerak zuzentzen dituen balore sistema berrikusteko aukera izan behar du, izan ere, haien eguneroko jarrerak berak dira heziketaren eragileak edo deuseztaileak.

Gogoeta prozesu hori monitoreen prestakuntza iraunkorraren hasiera izango da.

Astialdiko zentro batek bere funtzionamenduaren diseinu orokorra eta bertan egin beharreko jardueren plangintza bateratua egin behar duenean, arestian aipatu dudako transmisio mekanismoak berraztertzea beharko ditu, nesken eta mutilen garapen pertsonalari kalte egiten dioten estereotipo sexistak berriro ager ez daitezen.

Berrikuspen kritiko horretatik abiatuta soluzio konkretu batzuk bilatu beharko dira: joko alternatiboak, beste eratako pertsona eredu baten aldeko irakurketen iruzkinak, espazioa eta baliabide materialak berdintasunez banatu beharko dira, hezkuntzaren beste erabilpen bat bultzatuz, esaldien egituragatik, tonogatik, e.a. engatik beste moduko praktika bati bide emateko, ohitura errepikatuetan erori gabe, neskek beti aipatuz, pertsona guztien arteko elkartasuna, edozein motatako erasoak inola ere onartuko ez dituenak, indartuz...

Zentroaren eguneroko funtzionamenduaren arauak, egungo balore sistema gaindituko duen sistema berri eta kritiko baten ikuspuntutik diseinatuak, lagungarri izan daitezke, halaber, pertsona eredu berri bat sortzeko.

“Introducción a la filosofía coeducadora” (Hezkidetzako filosofiaren hastapenak) izeneko nire liburuan adierazi ditut egungo balore sistemaren transmisio mekanismoen aurrean atarabide konkretuak bilatzeko jarraipide batzuk.

Garrantzi handikoa da astialdiko zentroak ikastetxe eta Guraso Elkarteekin koordinatuta diseinatzea eta funtzionatzea.

Herzbidetzako

esperientziak

Euskadiko

Autonomi

Elkartean

URTXINTXA Astialdiko Eskola

Herbidetza
astialdian

1.

Aurkezpena

Urtxintxa Eskola 1.986an jaio zen, IPESen eskutik, beste esparru batzuetan bere hezkuntza garatzeko lekurik aurkitzen ez zuten taldeetako pertsoneri marku hori eskeintzeko. Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroan kokatzen gara.

Ordutik pertsona asko pasatu dira eskolatik; egiturak aldatu dira, ikastaro berriak sortu dira,...

Aldaketa hoiien artean, Hezkidetzaren taldearen sortzea dago. Lehenengo pausua 90/91 ikasturtean eman zen, Begirale Ikastaroaren programaren barruan "Sexualitatea" blokea sartu zenean, horren barruan hezkidetzaren aspektuak lantzen zirelarik.

Hezkidetzaren taldea bera 94/95 ikasturtean sortzen da, Hezkuntzaren Proiektua berregiteari ekin genionean lehentasun hori ikusi bait zen.

2.

Gai hau lantzearen zergaitia

2.1

KALEKO ERREALITATEA

Guk jaso dugunaren arabera, ez da ikusten gai hau premiazko bezala. Eritzi nagusia ezberdintasunak gaindituta daudenarena da. Errealitatean ematen diren egoera diskriminazioak izkutuki agertzen dira, eta ez dira/gara hoietaz ohartzen, beraz ez zaie garrantzirik ematen.

Honek, egoera ezberdinak, intuizioz lantzeraz eramatean du, momentuan, hausnarketarik gabe.

2.2

HEZIKETAREN ARDURA

Nahiko nabaria da Heziketa formalari dagokionean, baina ez hainbeste heziketa ez formalean.

Astaldian heziketaren helburutik abiatzen gara:

- Haurtzaro eta gaztedian egiten den iharduera da, jarrera kritikoa eta, pertsonak askeago biziko diren gizarte bidezko eta solidarioagoa lortzeari begira, giza-balore batzuk bultzatu nahi dituen iharduera.

Hemendik zera ateratzen dugu:

- Astaldian Heziketak bere erantzukizuna duela generoa dela eta ematen diren ezberdintasunen gainditzean.

Horretarako, funtsezkoa da errol eta estereotipo sexisten bideraketan duen erantzukizunaz hausnarketa bat egitea.

Astaldian ere gizarteko eskema asko errepikatzen dira. Arlo honetan ere, eredu batzuk daude (begiraleak, hezitzaile gisa aritzen direnak) eta jasotzaileak (umeak).

Beraz, ezberdintasun hauek gainditzeko lan egitea interesatzen zaigun aztertu behar dugu.

Ondorioz:

- Ekintza gehienetan ematen den sexismo izkutua argitara ateratzeko saiakera egin behar harko da; naturalizat dugunaren inguruko hausnarketa ahalbideak.

- Hau lortu ondoren, sexismo hori gainditzeko bideak bilatu beharko ditu, baita praktikan ipini ere.

2.3

URTIXINTXAREN HEZKUNTZ PROIEKTUA

Urtixinta Eskola 1.986an hasi zen lanean, eta denbora luzea pasatu da ordutik, gauzak aldatzen joan direlarik.

Lehenengo momentutan, borondatea zen nagusi. Baina gero, ahaleginak eta indarrak egituratuz joan ziren, gai berriak sartuz, beste batzuk sakonduz,... Azken pausua 94/95 ikasurtean eman zelarik, Hezkuntz Proiektua sakontzeari ekin genionean.

Lehenik, 1986an aipatzen zen heziketa mota aipatzen genuen, eta bere ezaugarriak zerrendatu besterik egiten ez ziren. Oraingoan, bai heziketa mota, zein izan behar dituen ezaugarriak definitu egiten ditugu.

Eta beste batzuen artean, Heziketa horrek izan behar duen ezaugarri bat, kohezitzailea izatearena da: Heziketa ez formalak ezberdintasunak gainditzea izan behar du helburutzat, generoa dela eta ematen diren estereotipoak desagertarazi daitezkeen, baita gizartearen aldaketa lortzeko lan eginez, balore berriak bultzatuz eta jarrera berriak bilatuz.

Hau izango litzateke, teori mailan, gure Hezkuntz Proiektuan jasotzen duguna. Baina ezin da horretan geratu. Teoria hori garatu egin behar dugu, lanerako bideak, modiak jarritz.

Beraz, metodologiari dagokionez, egin nahi duguna zehaztu genuen, maila bi ezberdinduz: organizatiboa eta hezitzailea. Bigarren honi dagokionez, argi ikusten dugu badaudela gai batzuk, bloke bezala landu behar direnak (ordu kopuru zehatza emanik bakoitzari).

Baina badaude beste gai batzuk tematika baten arloa gainditzeko dutenak, bizitzan ematen diren egoera ezberdinetan bait dute eragina. Horien artean hezkidetzarena kokatzen dugu. Honek, bloke zehatzaren beharra du, zenbait aspektu argitzeko asmoz. Baina, beste alde batetik, alor guztiei dagokie.

Eta, zergaitik heldu gara honetara? Eskolaren bilakaera berak eskatu digulako. Gauza bat da hasierako borondatea, baina gero hobetu egin behar da: arautu, sakondu,... Lehenago intuizioz egiten zena, egituratu, hain zuzen ere. Asti taldeetan borondatezko lana da nagusi, baina gero eta nabariagoa da formatzeko nahia, lan hori ahalik eta ondoen egiteko.

Gure helburua, begiraleak betetzen duen hezitzaile paperaz jabetzea da, eta, zentzu berean, transmiti ditzaken errol eta estereotipoetaz ohartzea ere, aldatzeari begira.

Bestalde, hasieran egin dugun inguruaren azterketak ere behar hau ikustera eraman gaitu, ez bait gaude konforme gizartean dagoen eritzi horrekin. Orduan, kaleratu egin behar dugu sexismo izkutu hori, gure alorrean kokatuz, batez ere, hau da, Astialdian.

3.

Hezkidetza gai bloke gisa

Ikastaroak egituratuz joan ziren neurrian, gai berriak sartu ziren. Hoiere artean "Sexualitatea". Honen aspektua garatzean, errol sexualak aztertzean, derrigorrezkoa zen hezkidetzarena sartzea. Honez gain, monografiko bezala ere sartu zen, ordu gehiago emanez aspektu ezberdinetan sakontzeko. Hau izan zen Eskolan emandako lehen pausua. Momentu honetan gaia, gehienbat, hizlarien esku geratzen zen, Eskola bezala ez zelarik ia ezer lantzen.

Baina, bai Eskolako partaide batzuen hausnarketagatik, zein ikasleen aportaziogatik, argi geratu zen hezkidetza ez dela mugatzen sexualitatearen arlora. Beraz, banatzea erabaki genuen.

Gaur egun, bloke berezi batetan lantzen dugu, 8 ordutan. Eta derrigorrezkoa da ikasle guztientzat.

Honez gain, barnean hedapen bat egon da. Orain gaia ez dago hizlarien esku soilik. Hezkidetza taldea sortu da, bloke tematikoa lantzeko, baita barne eta kanpora begira, gai honen garapena ahalbidetzeko. Eta gaia eztabaidatu egin da Eskolako egituretan.

3.1

GAI BLOKEA

Esan bezala 8 ordutan lantzen da.

HELBURUAK:

- Orokorra: Pertsonaren sexua dela eta, balore eta errol ezberdinak emanez, inkonzienteki bideratzen diren jarrera eta pentsamendu moldeak aztertzea.
- Espezifikoak: — aurreritzi sexisten barneraketa berrikustea, indibidualki;
— gizarte sistema Generoaren Teoriatik abiatuz aztertzea;
— azterketa hau heziketan aplikatzea;
— astialdi kohezitzaileko alternatibak proposatzea.

METODOLOGIA:

Talde lanean oinarrituko da, ikasleen partaidetza bultzatuz. Abiapuntua partaideen esperientzia izango da, azterketa eta hausnarketaren bidez ikasteko asmoz.

EDUKIAK: — kontzeptuen berrikusketa: gizona, emakumea, pertsona, astialdia, begiralea;

- gaitasun eta baloreen berrikusketa: sailka ditzakegu sexuaren arabera?;

- alor publikoa eta pribatua. Elkarerantzukizuna;
- astialdi kohezitzaileko alternatibak.

3.2

AURKITU DUGUNA

- Termino ezezaguna izan da gehienentzat, nahiz eta praktikaz hitz egitean zeozer jakin honetaz.
- Gehiengoak, gizonezkoaren errolera egokitzea bezala ulertzen dute, hau da, neskek mutilek egiten dutena egitea. Gizonezkoekin berdintzea.
- Harridura zenbait aspektuekin: irudi batek, iragarki batek,..., izkutuan duen mezuaren aurrean, adibidez.
- Taldeetan lantzen dena, intuitiboki egiten da.
- Hezkidetzaren feminismoaren inguruko eritzi negatiboarekin nahasten da. Hau da, feminismoa maskulinoa den guztiaren kontrako eraso bezala ikusten da. Eta hezkidetzaren parekatzen da.
- Heziketa formalaren arloan gehiago eginda zegoela uste genuen, eta horren ondorioak aurkituko genituela ikastaroetan parte hartzen duen jendearengan, baina ez da horrela izan. Beraz, gehiago egin behar dela uste dugu.

3.3

LORTU DUGUNA

- Hezkidetzaren terminoa ezagutzea.
- Egunero ematen diren egoeretan, egoera diskriminatzaileak, ezberdinatsunak ikusteko adi egotea. Esmatze bezala aipatuko genuke.
- Guzti honen inguruko hausnarketa: errealitateaz, baita guk egiten dugunaz ere.
- Aldaketa beharra ikustea.

4.

Aldi praktikoa

- Lehenik, ikastaroan lantzen dugun teoriaren gauzatze praktikoa. Hau da, Urtxintxa Eskolak eduki teoriko batzuk ematen ditu, baina garrantzitsuena gero taldeek beraien zereginean praktikan ipintzea da. Honen jarraipena egiteko, bide ezberdinak ikusten ditugu:
 - Eskolara datozen ikasle gehienak talderen batetan daude. Eskola bezala, talde hoiekin harremana izatea planteatzen dugu (ikastaroko koordinatzailearen bitartez): dinamika ezagutzeko, begiralea lanean ikusteko,..., eta, kasu konkretu honetan, eguneroko dinamikan hezkidetzeta nola lantzen duten ikusteko.
 - Ekintza edo plangintza zehatzak garatzeko, taldeei behar duten laguntza eta orientazioa eskeintzea.
- Barne mailan, bi alor daude:
 - Gaiak eta hizlariak: guztien arteko harremana ziurtatu, oreka bilatuz (gai batetan lantzen dena, besteak ezaba ez dezan). Material guztiaren berrikusketa.
 - Eskolako partaideen kontzientziazioa, pertsona sentsibilizatuen gauza soilik ez izateko.
- Kanpora begira ere emanak ditugu pausu batzuk. 1995eko azaroan "Emakumea eta astia" lhardunaldiak ospatu genituen. Ideia gai zehatz batetan sakontzeko marku bat eskeintzea izan da, ikastaroetatik kanpo, bai ikasleei, zein kaleko jendeari zuzenduta, aspektu ezberdinak landuz: hezkidetzeta, begirale emakumearen lana, emakumearen astia eta instituzioen lana. Honekin gure hausnarketa kaleratu nahi izan dugu, beste pertsona batzuenarekin bateratuz. Lhardunaldi hauek lehen pausu bat izan nahi dute, geroago jarraipena eman nahi zaielarik.

MAIXABEL AGIRRE RUIZ

**Hezkide Eskolako
Psikopedagogi taldeko
partaidea. Donostia**

Hezkidetza

Hezkide

Eskolan

1.

Hezkide Eskolaren idearioa

Hezkide eskolako idearioan kokatzen gara, gure heziketa idearioan azaltzen diren pertsona, gizarte eta heziketa ereduari oinarrituz.

Hiru elementu hauek ez dira isolaturik ematen, beraien artean oso harreman estua dute.

Orain hiru eredu hauek banaka aztertuko ditugu:

1.1

PERTSONAREN EREDUA

- Eduki baino gogo gehiago izatekoa duena.
Gure pertsona eredia bere izakeran sinisten duena eta duen gauzetan oinarritzen dena.
- Gogartsu, kritikoa eta historiaren egilea izango dena.
Pertsona hau ezin da pasiboa izan berak bere gizartean parte hartu behar du eta zenbait gauza modu kritikoz aztertu.
- Bere buruaren osaketan iraunkor diharduena.
Bere pertsonalitate eta izakeran garapena iraunkorra egiten duena, hau da, beti bere burua aztertzen eta ikasten ari dena.
- Solidarioa, bere herriarekin kronprometitua eta izadiarekin sakonki elkartua.
Bere ingurunea eta herria inporta zaionari; bata zaindu egiten du eta besteak hobeto egoteko lan egiten du.
- Askatasun eta kontzienteki ebangelioaren bidea aukeratu duena.

1.2

GIZARTE EREDUA

- Erakunde zuzen eta demogratikoak izango dituen, pertsonalki dagozkion eskubide eta baloreei leku eman eta sakondu ditzakeena, pertsona osatuaz eta erantzunkizunaren jabetza emanez.
Gizarte hau eta lehen komentatu dudana pertsona eredia osagarriak dira, alegia, pertsona solidarioa, kritikoa eta osatua gizartearen ereduaren sorreran eta antolaketan parte hartuko du.
- Aniztasun politikoari buruz eta pertsonari dagokion askatasuna eraberrituko duena.

Gizarte honek politika arloan dena onartu eta errespetatu egiten du eta pertsona den bezala onartzen du.

- Gizartearen justioa eta herri bizitzan parte hartzeko eskubidea bultzatuko duena.
Ezaugarri hau pertsonaren bigarren ezaugarriarekin bat dator, ze guk ezin dugu horrelako gizartea egin pertsona kritikoak eta aktiboak egiten ez baditugu. Azken finean gizartearen justioa pertsonen eskutan jartzen da.
- Bere hizkuntza eta herriaren nortasuna lantzen duena .

1.3

HEZIKETA EREDUA

- Osatua. Era guztietan osotasunean hazi behar duen pertsona.
Guk pertsonaren heziketa osotasunean pentsatzen dugu, beraz, lehen ikusitako ezaugarri guztiak batera lantzen ditugu, bakoitza modu finko batean baina guztiak beraien artean elkartuak eta batean eraginduz besteetan ere aldaketak somatzen dira lehen komentatu dugun osotasuneko ereduagatik.
- Askatzailea. Ez dugu heziketa menderatzaile edo egokitzailerik onartzen heziketa askatzailea baizik.
Pertsona bakoitza bere izakera, baldintza eta garapenarekin onartzen da.
- Eraginkorra. Taldea eta ikaslea ardatz dituen heziketa.
Bakoitzaren ikaste prozesuan hartzen dituen jarreraren jarraipena garrantzitsuena izanik.

2.

Metodologia

2.1

PARTIZIPAZIOA

Gure metodologia partehartzailea da, taldeko kide guztiak bere eginkizuna du eta bere garapen eta ezaugarrien arabera bere ardura izango da.

2.2

EGUNEROKOTASUNEAN

Gure pedagogia egunerokotasunean oinarritzen da; gure proiektuak talde, auzo, herriaren egoera konkretuan oinarritzen da eta eguneroko elementutan lan egiten da.

2.3

AKTIBOA

Gure metodologia aktiboa eta eraginkorra da, heziketa eredu bezala metodologian ere eraginkortasunari garrantzi handia ematen diogu. Guk gure metodologiarekin eta prozesuarekin gizartean aldaketak sortu nahi ditugu.

2.4

OSATUA

Era guztietan hazi behar duen osotasuna da guretzat pertsona. Heziketa osatuaren ezaugarriak:

- Pertsona osorik hartzen du, bere bizitza eta arloetan parte hartzen du. Bakarkako eta taldeko heldutasunaren bilakaeran besteen bizikide izateko behar diren jokabide eta baloreak lortzen laguntzen dio.
- Bizitza, pertsona, historiari buruzko galderei leku emango dio.

2.5

ASKATZAILEA

Pertsona eta gizartearen ikuspegi honek heziketa askatzaileratz darama. Puntu hauetan eraikitzen da:

- Hezitzaile eta hezituen arteko harremana lantzea. Hezitzailea hezigai da eta biok gizartea dela medio, azterketa eta ekintza aldatzailea bultzatzen dute.
- Pertsona bakoitzari lagundu egin behar dio heziketaren gakoak ezagutzen eta norberak askatasun bideak erabil ditzan.
- Pertsonak heziketaren bidez egoera gainditzea lortu behar du.

3. *Astialdiko taldeak - Saioak*

3.1

ASTIALDIKO TALDEEN PROZESUAREN GARAPENA

Astialdiko taldeetan ikasturteko proiektuak martxan jartzen dira, lehen komentatu dugun elementuak kontutan hartzen baitute. Talde bakoitzak bere idearioa du eta lehen ikusitako ereduetao puntuetan oinarritzen dira.

Prozesu hauek haurrak astialdiko taldean sartzen denetik bukaera arte prozesu bat gartzten du, eta talde horretan aurrera eraman duten prozesuaren zenbait elementu barnertuak izan dezake.

3.2

SAIOAK

SAIOAREN HELBURUAK:

- Konturaztea gure inguruneke hezkidetza edo koedukazio eza.
- Guk erabiltzen ditugun estereotipo sexistak ezagutu.
- Hezkidetza aurrean norberaren jarrerak aztertu.

**MIKEL MADINA
UGARTEMENDIA**
Euskal Eskaut-Gia
Elkarteko Koordinatzailea

Herzbidetza
Gipuzkoako
Eskaut-Gia
mugimenduan

1.

Hezkuntza proiektuak

1.1

LARRUNARRI ESKOLAKO HEZKUNTZA PROIEKTUA

“Hezkidetzaren onartzen dugu gure hezkuntza prozesurako esparru naturalena iruditzen zai-
gulako. Pertsonak onartzen ditugu pertsonak direlako, sexua dela-eta batak besteari eginki-
zun finkoak leporatu gabe.

Jardueretan eta erantzukizunetan berdintasun teorikoa eta praktikoa sustatuko dugu, gure
taldeetan oreka afektibo bat sortaraziz, zeina guztion onerako izango baita.”

1.2

EUSKAL ESKAUT-GIA ELKARTEAREN HEZKUNTZA PROIEKTUA

“EEGE astialdiko hezkuntzarako elkarte bat da, Scot-Guía metodoan oinarritzen dena.
Horren asmoa pertsona fisikoki eginak, autonomoak, sortzaileak eta gizartean egokituak
lortzea da, hezkidetzaren sistema laiko baten bitartez. Sistema hori konpromiso batean islada-
tuko diren borondatean eta progresuaren nozioan oinarritzen da.

Elkarte honentzat izadia da esparrurik egokiena eskautismo-gidismoak bilatzen dituen balo-
reak eskuratzeko, ikaslea delarik bere hezkuntzaren protagonista nagusia.

Elkartearen osatzen duten taldeek, bakoitzak bere aldetik funtzionatzen badu ere, hezkuntza-
helburu berberak dituzte.

Gure hezkuntza proiektuaren oinarriak dira:

1. HEZKUNTZA.
2. GIZARTEA.
3. EUSKAL HERRIA.
4. HEZKUNTZA METODOA.

(...) 1. HEZKUNTZA: (...)

1.6. Onartzen dugu, ezen gizonak eta emakumeak, denak, bizitzaren protagonistak baldin
badira, hezkuntzak ere denentzat izan behar duela, neskentzat eta mutilentzat. Horrek, ja-
kina, hezkidetzaren esan nahi du. Horren bitartez sustatuko dugu berdintasun teorikoa eta
praktikoa jardueretan eta erantzukizunetan, gaitasunen ezagupena eta balorazioa eta ha-

rremanen garapena, benetan eta era naturalean, taldean oreka afektiborako giroa sortuz guztien aberastasunerako.(...)”.

1.3

EUSKAL HERRIKO GIAK ERAKUNDEAREN HEZKUNTZA PROIEKTUA

(...) Emakumearen sustapena eta hezkidetzak: hastapenean emakumezkoen organizazioa izaki, EHG erakundeak presente egon nahi du emakumeek gizartean beren tokia lortzeko egiten ari diren ahalegin orotan.

Horretarako hezitzen ditugu batera mutikoak eta neskatilak, askatasun pertsonal eta kolektiboaren bizipen batean, emakumeak eta gizonak menpekotza guztietatik libre eta erantzukizunaren aldetik maila berean egongo diren gizarte bat lortzeko asmoarekin. (...)

(...) Emakumearen sustatzailea hezkidetzan: EHG gizartearen analisi batetik abiatzen da. Analisi horretan emakumea gizonaren azpitik agertzen da gizartean. Emakumea gizonaren azpitik baloratzen da.

Gainera, arketipo bat dago, emakumeak nolakoa izan behar duen adierazi nahi duen eredu — eta, horren ondoan gizonazkoak nolakoa izan behar duen ere bai—.

Hori dela-eta, emakumearenganako kezka horrekin, eta hezkidetzan sustraituta, sexuen arteko lankidetzak garatzeko aukera ematen du. Lankidetzak horren helburua gizon-emakumeen arteko harreman eredu berri bat izango litzateke, sexuen arteko berdintasunean oinarritua (ez inolako menpekotasunean) eta pertsonen arteko harremanetan, (ez aurpegi prefabrikatuak dituzten parrainen arteko harremanetan).

Hezkidetzak ez da, beraz, jarduerak berberak dituzten neska-mutileen heziketa, baizik eta sexu bakoitzak dituen dinamika eta berriazko beharrei soluzioa aurkitzen laguntzea, haien arteko konponbidea eta onarpena segurtatzeko. Gure iritziz hezkidetzak modu egokia da sexuen arteko bizikidetzaren ikasketa bultzatzeko, haien hazkuntzan laguntza emateko. Zein dira hezkidetzaren egitekorik behinenak?

- Aurkikuntza.
- Norberaren sexuaren onarpena eta bestearen ezagupen sakona.
- Sexuen arteko berdinkidetasuna lortzea.
- Neska-mutilei hautatzeko gaitasuna ematea, pertsonak bezala eta ez sexuaren arabera.

Hezkidetzak, gainera, gidismoaren barrenean, portaeraren jarrera batzuk bultzatzen ditu:

- Irekitasuna.
- Autonomia.
- Konpromisoa.

2.

Eskaut-Gia mugimendua

Helburua da pertsona osotu bat lortzea, Hezkideta Eskaut-Gia Mugimenduaren helburu orokorren alderdi bat da eta.

Eskautismoa 1997an sortu zen neska-mutilentzako. Gaur egungo eskautismoaren iritzi pertsona ez daiteke osotasunean garatu gizarte sexista batean.

2.1

PEDAGOGI METODOA

Eskaut-Giaren metodoa norberaren heziketa progresiboki aurrera eramateko sistema bat da:

- Promesa eta legea.
- Ekintzarako hezkuntza.
- Taldeko bizitza.
- Progresio aldakorreko programa.
- Jarduerak izadian.

2.2

HEZKIDETZA ESKAUTISMOAN: PERTSONA NAGUSIAK ERREFERENTZI PUNTU GISA

Eskaut-Gia metodoan pertsona nagusi baten laguntza funtsezkoa da eskaut proiektua martxan jartzeko.

Talde mistoak eratzen dira garatu nahi dugun proposamenarekin koherente izateko.

Hezkuntza eredua berdintasunean, osagarritasunean eta elkarren arteko onarpenean oinarritzen da.

Taldeburuek ezagutu behar dute bi sexuen problematika.

Burutzen egitura bi sexuek osatzen dute.

2.3

HEZKIDETZAREN XEDEAK ADARREZ ADAR EDO UNITATEZ UNITATE

2.3.1

KOXKORRAK, 8-12 URTEKOAK

- Haur bakoitzak, bere hazkuntzan onartzea bere sexuaren izaera eta lagun hurkoaren izakera eta prozesuaren arrazoiak, alde horiek argituz eta ulertuz joan dadin.
- Lanak eta erantzukizunak banatzea, ez sexuari begira bakoitzaren trebetasunaren arabera baizik.
- Elkarrekiko errespetoan, altruismoan, laguntzan, lankidetzan, irekitasunean oinarritutako jarreretan hezitzea.
- Jolasak eta zereginak batera antolatzea, ohiko rolak baztertuz.

2.3.2

OINARINAK, 12-14 URTEKOAK

- Neska-mutil bakoitza bere ahalmen fisikoak kontrolatzen saiatzea, errealitate berrira egokitzeke eta besteekiko diferentziak errespetatuz garapen eta sexuari dagokienean.
- Ikasketa teknikoak egitea, nor bere interes eta joerak gogoan hartuz, jaramonik egin gabe diskriminatzaileak diren arau sozialek egokitzen dituzten ala ez.
- Elkarrekiko errespetoa eta lagunenganako ulerpena garatzea, sexuarengatik arazorik izan gabe.
- Sexu gaiez lasai eta serio hitz egin ahal izatea, lagunaren intimitatea errespetatuz, hala alde fisikoan nola afektiboan.
- Neska-mutilak kontzientziatzea adin horretan taldeko teknika eta jarduera asko burutzen ikasi behar dutela, sexutan berezi gabe; era horretan aukera gehiago izango dute zer duten gustokoa eta zer ez jakiteko. Praktikan ikusiko dute, halaber, gauza horiek berdin egiten ahal dituztela neska izan nahiz mutila.
- Ahaleginak egitea gazteek beren lagunak balora ditzaten zein sexutakoa den kontuan hartu gabe, dituzten jokabide, gustu eta zaletasunengatik baizik.

2.3.3

AZKARRAK, 14-16 URTEKOAK

- Neska-mutil bakoitzak, hazkuntzaren prozesuan bere sexuaren izaera onartzea, lagun hurkoaren izakera eta prozesuaren arrazoiak eta moduak argituz eta ulertuz joan dadin.
- Nork bere nortasuna eratuz joatea, aurrera eginez maitasuna emateko eta hartzeko gai izatera iritsi daitezen.
- Sexualitatea bestea maitatzeko baliabide bezala ikustea eta bideratzea, eta ondorioz hezkuntza emakumearen eta gizonaren arteko proiektuan kokatzea.
- Hezitzea: hainbat balore kontuan hartuta: irekitasuna, autonomia, zerbitzua, konpromisoa...

2.3.4

TREBEAK, 16-18 URTEKOAK

- Laguntza eskaintzea beren burua gizon eta emakume bezala har ditzaten, beren gorputzarekin eta ahalmen psikologiko, afektibo, fisiko eta adimenezko guztiekin.
- Bizikidetasun eta ekintzarako talde misto bat eratzea, diferentziak gora-behera, laguna errespetatzeko gai izango dena, sexuan oinarritutako funtzionamendu estilo bat indarka ezarri gabe.
- Jardunbide aukera desberdinak aurkitzea (kooperatibismoa, gizartearentzako zerbitzuak...).
- Ez mugatzea idealetara ez eta ohituretara eta bizitzaren alderdi desberdinetan ikuspegi berriak bilatzea eta aurkitzea.

Herri-identitateko

esperientzia

Euskadiko

Autonomi

Elkartetiki

kanpo

MERCEDES ARQUERO MARTÍN

**La Kalle Kultur Elkarteko
hezkidetza lan taldea**

Hezkidetza

espazio

irekian

1.

Neskak eta mutilak espazio mistoan biltzeak ez du esan nahi "hezkidetzak" ematen denik. Hori ez da berez gertatzen eta horregatik ahalegin bat behar izaten du: erne egotea, gure aldetik, ekintza positibo bat gauzatzeko. Berdintasuna bultzatzea, diferentzia aitortu eta errespetatzea eta emakumeen eta gizonen arteko elkarbizitza sustatzea, estereotipoetan erori gabe, balore guztiak positibotzat jo eta goretsiz, batzuek besteen gaineratik jarri gabe. Gure ustez, horrek gizarte hobetoago bat eraikitzea eramango du. Balizko gizarte horretan, emakumeek eta gizonak hitz egin ahal izango dugu inolako gerruntzeren beharrik gabe, giza jardueretako alor guztietan barrena ibili ahal izango gara eta emakumeen eta gizonen esperientziak balio ahal izango du modu aberatsagoan garatzeko eta lankidetzak emankorrago bat ezartzeko, harreman gogaikarri eta zapaltzaileak alde batera utziz.

Hori dena lortzeko, iruditzen zaigu emakumeen aldeko ekintza positibo batetik abiatu behar dela, abiapuntu hori ez baitago orekatua, sexuen artean berdintasunik ez dagoenez. Kontuan izan behar da emakume gazteek marginaltasun bikoitza jasaten dutela, gazteak diren aldetik eta emakumeak diren aldetik, transmititzen eta ezartzen zaien rola markatzen dituelarik. Aldi berean uste dugu ekintza positibo horrek ez dakarkiola inolako kalterik beste alderdiari.

Sexuaren araberako rolen adjudikazioa sakon errotua dago kulturaren, hortaz, hezitzaileek —emakumezko nahiz gizonezko— ez gara arau horretatik libratzen eta naturalizat jotzen ditugu hainbat jokabide eta mintzamolde sexistak. Hori emakumeen eta gizonen arteko harremanetan nabari dugu eta ez da onuragarria ez sexu batekoentzat ez bestekoentzat. Balore femininotzat jotzen direnak baliogabetzen dira eta rol maskulinoa indartzen da, eta berarekin zapalkuntza, erasoak, emakumearenganako errespetu eta begirune eza, e.a.

2. *Nola sartu hezkidetzaren alderdi batzuk eguneroko bizitzan*

Proposamen honen asmoa da hezkidetzaren elementu batzuk, pertsonen arteko harremanetan izaera nabarmen sexista dituzten faktoreak edo agerkariak aldatzen lagun dezaketena, sartzan ahalegintzea, izan ere, hain daude barneratuak gizakien baitan, non gogoeta sakon bat edo/eta zalantzan jartze bat beharrezkoa baita aurrera egin nahi badugu.

Jorratuko ditugun eremu desberdinetan portaera-aldaketa batzuk planteatu daitezke ohiko rolen aldaketa ahalbidera dezaketen taldeko edo bakarkako jarreraren bitartez. Aldaketa horiek direla medio, neskatilek eta mutikoek, neskek eta mutilek, emakumeek eta gizonek elkarrekin hazi gitezke pertsonak bezala, nahi duguna hautatuz eta ez kultura, hezkuntza, ohi-turaren bidetik bortxaz ezarri zaiguna.

2.1

FAMILIA

Hezkuntzak, familiaren sistemaren barruan, rolak betirakotzeko joera du. Ekonomiaren krisialdiak areagotu egiten du egoera hori: emakumea kanpora ateratzen da lan egitera eta etxean hutsune bat uzten du, alabek betetzen dutena, lehen amak egiten zituen etxeko lanak beren gain hartzen dituztelarik. Horrek besteen aurrean baliotsu bihurtzen ditu baina ez beren buruen aurrean.

- Neskei esleitutako etxeko lana.
 - Etxeko lanen zuzentasunezko banaketa.
- Nebak eta ahizpak, mutikoak eta neskatilak, oro har, zaintzea.
 - Txikienganako arreta eta zaintza neska-mutilen artean banatzea.
- Nesken heziketarenganako axolarik eza, etxean beharrezkoak badira.
 - Haien eskolaratze arautua bultzatzea.
- Bakoitzak behar duen astialdiari inolako garrantzirik ez ematea (Aurrena etxeko lanak).
 - Denboraren antolakuntzan laguntza eskaintzea, etxeko lanak eta beste eremuetako partaidetza bateragarriak izan daitezen.
- Ordutegien arteko diferentzia, mutilenekin alderatuta.
 - Ordutegien berdintasuna lortzea, bat bederaren erantzukizuna bultzatuz.
- Lan mundurako sustapen urria.

- Lan prestakuntzari eta ohikoak ez diren lan motei laguntza ematea (lorazainak, zurginak, posta banatzaileak...).
- Harremanen kontrola, haurdun gelditzeko beldurragatik.
 - Harremanak ezagutzea, muga fidagarriak zein diren jakinik. Eta sexualitateari buruzko argibideak (haurdunaldien prebentzioa).
- Etxeko lanak gutxiatea.
 - Etxearen antolakuntzak ongi funtzionatzeko, elkarbizitzarako... zer garrantzia duen azpimarratzea.
- Nesken edozein motatako ekimenak gutxiatea.
 - Lagundu eta suspertzea, bat bederaren ahalmena bultzatuz.

2.2

ESKOLA

Hemen Hezkuntza Konpentsatorioko Tailer-Gelan 14-16 urteko neska-mutilekin eginiko lanaren esperientzia aipatuko dugu.

Abiapuntutzat hartuz haien egoera sozio-ekonomiko-kulturala kalean gure ardurapean ditugun neska-mutikoena bera dela, rol tradizional oso markatuak dituzten neska-mutikoena, alegia, beste epigrafeetan azaldutako arazo gehienak agertzen direla hemen ere.

Nolanahi ere, beste arazo batzuk ere planteatzen ditugu berariazkozkat jotzen ditugunak lan eremu arautuago batean (ordutegiak, asistentzia erregularra eta etenik gabekoa, portzentaia handi batean, eta hasieratik markatutako jarrera eta edukiak).

Gure ustez horietako "gomendio" asko aplikatzen ahal dira eskolan, beti ere, kontuan hartzen bada hezitzaileen jarrera funtsezko giltzarria dela edozein motatako aldaketa egiteko.

- Neskatilen partaidetza urria talde handian (bilerak, iritziak bateratzea...)
 - Bilkura horiek aldeztu aurretik prestatzea nesken taldearekin, haien "eszenatokiratzea" antolatuz eta laguntza emanez.
- Bolondres taldeak eratzeko garaian "sexubakarreko" taldeak maizegi eratzzea.
 - Bi sexuetaoen proportzio bat lortzea lan-taldeetan, jardueretan, e.a.
- Egotzi zaizkion rolak bere gain hartzea bizitzaren eremu guztietan, inolako planteamendu kritikorik egiteke.

- Geletan lan egitea modu programatuan, etxeko lanak banatzea, ordutegiak, aisialdiak, eta neska-mutilen arteko harremanak (dauden diferentziaz kontura daitezen).
- Jarrerren diferentziazioa gorputzaren balioaren, plazerraren eta, oro har, sexualitatearen aurrean.
 - Sexualitatearen gaia landu geletan, rolak, mitoak, hobespenak... sartuz, gehienbat neskek behin ere ukitzen edo ezagutzen ez dituzten gaiak jorratuz, hala nola, emakumezkoen masturbazioa, plazerra...
- Mutikoen desagerpena, ordenatze eta garbiketa lanetan.
 - Guztiek parte hartu beharra zeregin horietan.
- Neskabilen partehartze eskasa kirol jardueretan.
 - Nesken taldeak bultzatzea, zer duten gogozkoen bilatuz.

2.3

ELKARTEGINTZA / GAZTEEN ELKARTEAK

Neskak familiarentzat laguntza bezala hartu izan dira aspaldidanik, horregatik familiak nekez uzten diete edozein jardueratan parte hartzen, batik bat jarduera hori denbora alferrik galtzea dela uste badute, esate baterako aisialdi eta astialdiko jarduerak, ikastaroak, e.a. Hortik dator neskabilen partehartzea txikiagoa izatea auzoetako instalazioetan.

Beste kontu bat da, neskak jarduera horietara joan arren, konturatzen ez bagara, haien partaidetza franko urria izan ohi dela eta gainera aritzen direnean ere, arruntean, mutilen iritzia bere egiten dutela, bere iritzi propioa izan gabe edo, izatekotan ere, golkoan gordez, taldekideekin gatazka izateko beldurrez (gehienak mutilak izaten dira, bestalde).

Pentsatzen dugu sozializazio eremu honetan berdintasun maila batzuk lortu ahal izateko, guk hezitzaileok alderdi batzuk gogoan izan behar ditugula, besteak beste honako hauek:

- Guztientzako diren jardueretara ez joatea edo haien berri ez izatea.
 - Neskak talderatzeko lan berezia.
- Partaidetza urria eta pasiboa eremu bateratuetan.
 - Interesa sortarazi eta protagonismoa ematea neskakilei jarduera bateratuetan. Haien iritzia baloratzea. Haien ekimen txiki eta handiei arreta jartzea.
 - Antolakuntza mota bat bultzatzea, honakoak kontuan izango lituzkeena: nesken eta mutilen kopuru bera jardueretan, kirolean, heziketan, jostetan... Erantzukizunak ba-

natzea, nesken eta mutilen kopuru bera jarritz, edo proportzionala bederen (“Guztiok, neska nahiz mutil, eskalatzen dugu”. Guztiok, neska nahiz mutil, ari gara sukaldaritza ikasten”).

- Jarduera soslaituen eskaintza.
 - Neska-mutilentzako tailerrak edo/eta jarduerak eskaintzea ezein diskriminaziorik gabe, partaidetza mistoa bultzatuz.
- Jarduera diskriminatzaileak eta deskalifikatzaileak “elementu femeninoaren” aurrean.
 - Zokoratuak dauden balore “femeninoei” laguntza ematea.
 - Hitzezko erasoak edo/eta fisikoak aztertzea.
 - Neska-mutikoekin batera gutariko bakoitzaren hezkuntzan eman izan zaizkigun ro-lak lantzea.

2.4

LAN ARLOA

Adierazi dugu, dagoeneko, familiaren barruan neskaren laguntza edo/eta ordezkatzeko eginkizunari zer garrantzia ematen zaion. Horrek eragin zuzena izango du nesken lan etorkizunean, berez aski mugatua eta baldintzatuak izan ohi dena: etxeko zerbitzari izatea, ezkutuko ekonomia, e.a., eta ikuspegia “zabaltzen” zaienean ere, ohiko lanbideak izaten dira maiz, hala nola ile-apaintzaile edo jostun, beraz, “rol femeninoa” barneratzearen adierazpenak, azken batean. Egoera horren bultzatzailea izaten da kualifikazio profesional baxua izatea; izan ere bestelako lan bat planteatzeak beraiei ere franko buruhauste sortarazten die, batez ere ezagutzen ez duten zerbaiten aurrean aurkitzen direnean, eta ezin izango diotela erantzun pentsatzen dutenean. Horretaz aparte, ohikoak ez diren lan alternatiba desberdinek familietara gatazkak ekartzen dituzte, ez baitituzte nesken aukerak baloratzen eta, aitzitik, pentsatzen dutelako “hori ez dela emakumeen lana”.

Arlo honetan, kultura eta hezkuntzaren munduan funtzionatzen duten balore eta estereotipoekin batera, instituzioetan, neska eta mutilen lan promozioaren arloan, oraindik ere dirauen diskriminazioa aipatu behar.

Esparru honetan, gure ustez hiru mailatan lan egin beharko litzateke:

- Maila pertsonalean: nesken beraien motibazioa.
- Familian: laguntza eta balorazioa.
- Gizartean: Aukera Berdintasunaren Plana egia bihur dadin ahalegintzea.

- Lanbide kualifikazioa eskasa edo bat ere ez:
 - Heziketa bultzatzea.
- Etxeko zerbitzari lanaren eta ezkutuko ekonomiaren aurrean.
 - Lan eskaintzaren eta beste aukeren gaineko informazioa.
- Ezagutzen ez dutenari aurre egiteko beldurra.
 - Sustatzea, animatzea, haien ekimenak txalotzea.
- Erakundeetan, sexua dela-eta izaten den diskriminazioaren aurrean.
 - Horiek jendaurrean salatzea.
- Aita-amen jarrera "itxiak".
 - Familiekin harremanetan jartzea.

2.5

AUZOAK / GIZARTEA, ORO HAR

- Hitzen bidezko erasoak
 - Prebentzioa: eskolako hezkidetzeta.
 - Salaketa.
 - Kontzientziazioa: bilkuretan eztabaidatu.
 - Sentsibilizazioa, emakumearen arazoaren aurrean.
 - (Defenditzeko ahalmena sustatu).
- Batzuetan gai honi buruz hezitzaileek izaten dituzten jarreraren ondorioz neska-mutikoen artean horrenganako gaitzespena sortzen da:
 - Kontuan izan zein egoeratik abiatzen den.
 - Neska-mutikoek duten maila "errespetatu".
- Noiz edo noiz "integrazioak" esan nahi du maskulinitzat jotzen diren balore batzuk norbereganatzea, formei, portaerei, eta abarrei dagokienez.
 - Neska taldeak sortzea, beren arazoak eta kezkek emakume gazteak diren aldetik, azter ditzaten.
 - Jendaurrean baloratzea jarrerak eta baloreak, bai "femeninoak" eta baita "maskulinoak" ere.
- Errazagoa izaten da "gizarteratutzat" jotzea gizarteak espero zuenera iristen diren neska-mutilak.
 - Mutil taldeak sortzea, rola eta jarrerak ere azter ditzaten.

- Auzoan parte hartzen duten eta asko “mugitzen” diren nesken kontrako iritzia.
 - Neska hauek duten jarreraren alde agertzea.
 - Haien portaera hitzen bidez azaldu eta positibotzat aitortzea.
- Publizitatea: emakumearen irudiaren erabilpena. Objeto sexual gisa, “Etxekoandre” gisa (ulerkorra, ama maitagarria...)
 - Egun dauden rolen betirakotzea
 - Jarduera konkretuak, adibidez iragarkiak aztertzea, erabilitako estereotipoak, mezu subliminala, e.a. salatuz.

2.6

MINTZAIRA

Mintzairak munduaren nolabaiteko kontzepzioa isladatzen du, pentsamendu eta baloreen sistema bat. Berebiziko garrantzia du elementu sozializataile bezala eta prestakuntza intelektualean. Horregatik nahitaezkoa deritzogu mintzairaren bitartez transmititzen ditugun ezaugarri sexistak agerian uzteari. Mintzairan isladatu da eta isladatzen da oraindik ere mundu osoan historiak emakumeei ezarri dien menpekotasunezko egoera (itxaropideak, bereizitasun psikologikoak, rolak...). Azken urteetan aldaketak gertatzen ari badira ere arlo honetan (mintzaira administratiboan, adibidez), gure ustez lan itzela gelditzen da oraindik, astiro-astiro doana eta sozializazioaren eremu guztiak hartzen dituen. Eta hain zuzen ere, horietan egin behar dira eginahal guztiak, diskriminazio positiboa ezartzeko. Gure ustez, eskola da eremurik egokiena eta aldi berean beharrezkoena transmititzen ditugun jarrerak, estereotipoak eta baloreak hezitzaileek lantzeko.

2.6.1

EZAUGARRI SEXISTAK ETA DISKRIMINAZIO POSITIBORAKO NEURRIAK

- Maskulinoa erabiltzen da generiko gisa (genero gramatikalaren marka duten hizkuntzetan): beti ari gara ikasleak, gazteak, gizonak aipatzen, bi sexuez ari bagara ere.
 - Etengabe bi generoen aipamenak egitea.
 - Emakumeen adibideak jartzea era femeninoan.
 - “Pertsona” hitza era neutroan erabiltzea.

- “Gizadiatz” hitz egitea, orokorrean “gizakiaz” hitz egin nahi dugunean.
- Noizbait ordena alderatzea: “mutikoak eta neskek” hurrenkeraren ordean “neskek eta mutilak”.
- Inprimaketan (ofizialak eta ez-ofizialak) atzizki femeninoak jar ditzaten eskatzea .
- Noizbait femenino gramatikala generiko bezala erabiltzea.
- Generiko maskulinoa erabiltzea lanbideak, ofizioak, titulazioak, karguak adierazteko.
 - Mozio gramatikalki femeninoak erabiltzea lanbideak, ofizioak eta karguak aipatzeko.
- Zerbait negatiboa adierazteko “alukeria”, “alua” eta horrelakoak erabiltzea, eta alderantziz “potroak”, “barrabilak” zerbait positiboa adierazteko.
 - Emakumeen eginkizunetan, ezaugarrietan edo atributuetan oinarritutako gaitzespen hitzak baztertzea.
- Hitz kateak, “emakume” hitza ahulezia, pasibotasuna, kuxkuxeatzea, umekeria... bezalako ideiekin lotzen dutenak, ezaugarri horiek zerbait negatibo gisa hartuz.

2.7

SEXUALITATEA

Alderdi honi helduko diogu ikuspegi zabalago batetik: “sexualitatea eta harreman pertsonalak”. Lehenbizikoak, nahi gabeko haurdunaldiak eta erasoak izateko arriskua dela eta lan berezia behar du. Sexualitatearen gaia, sexu harremanen ikuspegitik jorratuko duguna, gai zaila eta korapilotsua da zinez, izan ere informazio gutxi baitute gazteek edo ezer ere ez, topiko ugari eta norberaren eta lagunaren edo adiskidearen gorputzaz ezjakintasun nabarmena. Era berean, ez dakite deus antisorgailuen erabileraz.

Neskek eta mutilek dituzten rolen eta topikoen artean alde nabarmenak daude: esate baterako mutilarentzat “ona” dena, a.b. “ahalik eta neska gehienekin ibiltzea”, txarra da neskaarentzat, “putatzat”, “urdangatzat” hartzen dituztelako.

Aipa dezakegu, aldi berean, nahi gabeko haurdunaldia ia berehala onartua izaten dela. Era horretako egoerak maiz suertatzen dira, bai familiaren esparruan eta baita hurbileko jendartean: ahizpak, koinatak, auzokideak... Bide horretatik helduen bizitzan sartzen dira neska gazteak. Hasiera batean abantaila batzuk ere izan ditzakete, nahiz eta gero seguraski arazoak etorriko diren: amaren eta neska gaztearen paperak batera ezinak izatea, buruhaustea, heldutasuna...

Ekintza positiboa gauzatzeko gomendioak prebentzioaren arlotik planteatzen ditugu.

- Bere gorputza ez ezagutzearen aurrean;
 - Ezagutzea eta onartzea.
- Jarrera eta estereotipo biziak;
 - Estereotipo horietan intziditu, gogoeta eta hausdura sortaraziz.
- Menpekotasunezko harremanetan;
 - Nesken jarrera aktiboa bultzatu.
- Errespeto falta;
 - Ikuspegi zabalagoetarako bide ematen duten bestelako iritzien ezagupena bultzatu.
- Neska-mutileen artean hagitz markatutako rola eta estereotipoak;
 - Sexualitatearen gaia elkarrekin landu beharra, ahal den guztietan.
 - Nesken eztabaida taldeak sustatzea, bai eta mutilena ere.
- Beren sexualitatearenganako interesik ez izatea edo ez ezagutzea;
 - Beldurrik ez izatea neskekin eta mutilekin lan egiteko, bereizirik nahiz batera. Beste ezeren aurretik oreka bilatuko da arrazoi desberdinak direla medio komunikazioa errespetatzen ez denean edo neska-mutilek beraiek horrela eskatzen dutenean.
- Informazio orokorra ez ezagutzea;
 - Plangintza zentroetara bisitaldiak egitea, hitzaldiak, bideoak. Gai hau lantzen duten beste entitateei bisitaldiak (a.b. Gurutze Gorria).
- Gurasoen eta hezitzaileen inplikazio falta;
 - Gaiari buruzko sentsibilizazioa, hala familietan nola eskoletan, auzoan, e.a.

Ezagutu eta maneiatu behar dugun pertsonari buruzko osotasunezko ikuspegitik haren sexualitatea lantzeko baliabideak egon badaude, baldin eta gure planteamendua bada neska-mutilek aurrera egin dezaten pertsonentzako horren garrantzitsua den alderdi horren ezagupenean, eta ez dezaten aurreiritzi, tabu eta aldez aurreko eskemarik izan. Eginahalak egingo ditugu gainera neska (eta batzuetan mutilak ere) ez daitezen behin ere aurkitu nahi ez duten haurdunaldien ondorioak jasan beharreko egoeran. Gure auzoetan horren zabaldua dagoen arazo hau gustatuko litzaziguke beste aldi batean jorratzea.

LUZ MARTÍNEZ TEN

**Hezkidetza Programaren
arduraduna, Madrilgo
Autonomi Elkarteko Gazteriako
Zuzendaritza Orokorrari
atxekiturik dagoen Gazteak
Sustatu eta Hezitzeko Eskolan**

Erkutuko

curriculumaren

analisi

astialdiko

egitarauetan

Txosten hau Conchi Jaramilloren artikulu batean oinarritu da: *Análisis de una propuesta coeducativa en el tiempo libre*. Ed. Popular, 1995.

1.

Aurtzezpena

Lehenik eta behin eta nere txostena irakurtzen hasi aurretik, eskerrak eman nahi dizkiot EMAKUNDEri hona gonbidatzeagatik, uste baitugu berebiziko inportantzia duela honelako jardunaldi eta topaketak egitea, Astialdiaren alorrean proiektu koherenteak burutzeko ezinbestekoak direlako, eta bestaldetik aukera ematen didalako zuei aurkezteko nire lagunek Madrilgo Autonomi Elkarteko Gazteria Sustatu eta Hezitze Eskolan prestatutako materialak. Horiek dira nire txostenaren oinarriak.

Hezkidetza astialdian. Astialdiaren ikuspuntutik gazte taldeetan esku hartzeko tekniken tailerrak. Egileak: Sara Acuña, Graciela Hernández eta Nina Parrón. Madrilgo Autonomi Elkarteko Gazteria Sustatu eta Hezitze Eskola. Madril, 1993 (Dokumentu fotokopiatua. Argitaratu gabea).

Hezkidetza eta astialdia. Sara Acuña, M^a Angeles Cremades, Cristina Álvarez, M^a José Urruzola, Concha Jaramillo eta Graciela Hernández. Arg.: Madrilgo Autonomi Elkarteko Gazteria Sustatu eta Hezitze Eskola. Madril, Popular Arg. 1995.

Irribide labur bat historian zehar

Astialdiko Hezkuntza Espainian joan den mendearen azken aldera sortu zen, Katalunian zenbait udalen ekimenez eta Irakaskuntzaren Institutio Librearen eraginpean antolatu ziren Eskola-Kolonietan. Jarduera horiek mutilei zuzenduak ziren eta mende honen lehenbiziko laurdena arte iraun zuten.

Geroago, eta frankismoaren azpian, erregimen politiko haren ikuspegi bitxia aurkituko dugu Frente de Juventudes eta Sección Femenina bezalako erakundeetan, lehenengoa mutilek eta bigarrena neskek osatutakoak.

50eko hamarkadaren azkenaldera eta 60koaren hasieran, haur eta gazteen elkarteak, gehienetan Elizari atxikiak, udako kanpalekuak, udalekuak eta oporretako beste jarduera batzuk antolatzen hasi ziren, beti ere, neskatilak eta mutikoak bereizita.

1960. urtean, Frente de Juventudes haren adar bat gisa OJE sortu zen (Organización Juvenil Española) mutiko eta mutilek osatua, nahiz eta geroago neskatilak ere sartu ziren.

1964an, eta Elkarteei buruzko 1964ko Legearen babesean, Eskaut Mugimenduaren partaide ziren hainbat elkarte legeztatu ziren. Mugimendu hori Espainian 1912an hasi zen arren, frankismoaren garaian debekatuta egon zen. 60ko hamarkadan zehar eskauten lau elkarte agertu ziren, haietako bat Elizak bultzatuta. Elkarte horiek maskulinoak ziren, bat ezik: Guías de España (1966), hura neskena baitzen. Geroago denak misto bihurtu ziren (1970-1980).

Espainiako gazteen elkarteei buruzko azterlan batek zioenez (Gazteen Zentroak Askatasunean, Gazteen elkarteak Espainian. Espainiako Gazteri Kontseilua, 1987), 1987. urtean zeuden eskauten lau elkarte haietan, OJÉrekin batera, kideen bi herenak kasik mutilek ziren.

70eko amarkadako azken aldera emakumeen partaidetza nabarmen igo zen talde eta elkarteetan. Gaur egun emakumeen partaidetza gazte talde eta elkarteetan % 27,6tik % 40,1era bitartekoa da, beraz, gizonezkoekin duten aldea murriztuz doa egunetik egunera.

Emakumea Astialdiko jardueretan sartzeko prozesua hezkuntza formaletan gertatutakoaren antzekoa izan da, bazterketa fase baten ondoren taldeak bereizirik agertzen dira hasieran eta geroago Astialdiko Hezkuntza mistoa, non neskek eta mutilek batera parte hartzen duten organizazio eta jarduera berberetan.

Demokraziarako trantsizioan lehengo taldeak sendotu eta berriak sortzen dira, eta horiek erakunde publikoekin batera laguntza eskaintzen dute aisialdi eta astialdiko azpiegiturak eta programak sor daitezen, helburua hezkuntza delarik: ludotekak, Gazteri Etxeak, haur elkarteak, Gazteentzako Aterpetxeak, kanpalekuak, tailerrak, hezkuntza-gelak, e.a.

Haziz joan den instituzionalizazio honek berekin dakar aisialdiko eskaintza anitza izatea, bai eta Astialdiko elkarte eta taldeek protagonismo handiagoa edukitzea eta eremu horretan ari diren hezitzaileen profesionalizazioa.

Hezitzaileek hasten dira prestakuntza bat jasotzen, neurri batean edo bestean arautua, Sustapen eta Astialdiko eskolen bidez (publikoak, sozialak nahiz pribatuak). Eskola horiek Autonomi Elkarte guztietan daude eta laguntza ematen dute Astialdiko hezkuntzaren metodoak eta teknikak sistematizatzeko eta hezkuntza-eredu landuago eta argiago bat sortzeko. Garai honetan, Unibertsitateko eta Lanbide Heziketako profesional talde berriek (Gizarte hezitzailea, Sustapen Soziokulturaleko teknikaria), batera ari dira elkarte, enpresa eta eskola ofizialetatik ematen den heziketa lanean.

Baloretan oinarritutako hezkuntza, hezkidetzak eta astialdia

Astiaidiko Hezkuntzak gure herrian ibilbide bitxia izan du, izan ere hasieratik beretik (lehenbiziko heziketa tailerrekin eta monitoreentzako ikastaroekin) ekimen horrek gizartean egundoko eragina eta partaidetza sortu baitu.

“Kanpalekuen eta kirol jardueren zuzendarik” izeneko lehenengo ikastaroen ondotik, hein handi batean taldeak eta elkarteak izan ziren Astiaidiko heziketa proiektua bultzatu zutenak, gaur egun ezagutzen ditugun ezaugarriak eta guzti.

Conchi Jaramillok planteatzen duen bezala, Astiaidiko Hezkuntza pedagogia aktibo, partaidetzazko eta ez-zuzenduan oinarritutako metodoez baliatzen da, taldeak hezkuntza arloko eskuhartzearen helburu bezala hartuz. Taldea —zeinen dinamika eta funtzionamendua benetako laborategi bat baita baloreen eta jarreraren ikasketarako— baliabide gisa erabiltzen du irakaskuntza-ikaskuntza prozesu horretan. Monitorearen zeregina da prozesu horietan laguntza ematea eta erraztea, eta hierarkizazio prozesuak ez sortzea. Astiaidiko Hezkuntzarentzat ikasleak pertsona autonomoak hartzen dira, zeinek ikasketak hautatu eta eraikitzeaz gainera lagunei taldearentzat garrantzitsua den informazioa ematen baitiote. Ikaskuntza mota hau elkarlanean oinarritzen da eta prozesua kide guztien artean finkatzen da.

Astiaidiko Hezkuntzak eskolan —ez, ordea, pedagogiaren diskurtsoan— marginatuak egon diren zenbait balore bildu ditu. Era horretan osotasunezko heziketa bat proposatu du giza bizitzaren arlo guztiak kontuan hartzen dituenak: ezagutzaren arloa, arlo soziala, afektiboa, kulturarena, pertsonala, produkzioarena. Astiaidiko Hezkuntzak, hazkuntza ebolutiboaren, afektiboaren eta sozialaren hainbat alderdi osatu ditu, eskolak, edukien ikasketei lehentasuna eman beharrez, baztertu zituenak.

Baina, behar bada, Astiaidiko Hezkuntzaren ekarpen garrantzitsuenetako bat Baloretan oinarritutako Hezkuntzari emandako laguntza izan da.

Astiaidiko Hezkuntza ados egoteak Sustapen Soziokulturalaren eraldaketa eta partaidetza sozialaren printzipioekin, heziketa horren ikuspegi oso, integratzaile eta sozializatzailearekin batera, eta funtsean hezitzaileak gaurko gatazketan inbolukratutako talde eta elkarteak

izateak, horiek guztiek heziketa prozesu mota bat bultzatu dute, bizi dugun errealitatearekin eta aldaketa sozialarekin konprometitua.

Izadiaren defentsa, osasuna, bakea, marginazioa, kulturen arteko hezkuntza, sexuen arteko berdintasuna, eta azken batean Baloreetan oinarritutako Hezkuntza, Astialdiko monitore, sustatzaile eta koordinatzaileen prestakuntzan lehentasunezko eduki arloak dira.

Baloreetan oinarritutako Hezkuntzaren xedea da, Astialdiaren ikuspegitik, gizarteak dituen erronka handiei, gizadiaren eta planetaren oraina eta geroa itxuratzen duten horiei, erantzuna emateko gai izan gaitezela, jarrera kontzienteak eta konprometitua hartuz. Gai horiek arrunt inportanteak dira gaurko garaian, eta guztion erantzuna eskatzen dute.

Gai hau, "baloreetan oinarritutako hezkuntza", alegia, erabakigarria izan da Hezkuntza formalaren onarpen maila jasotzeko, hainbestera, ezen L.O.G.S.E.k bereganatu baititu Astialdiko Hezkuntzaren printzipioak, hala bere filosofian nola curriculumaren edukietan, zeharkakoak deitzen diren materien bitartez.

Horren ondorioz, eta ikusirik nolako garrantzia hartu duen baloreetan oinarritutako hezkuntzak, pentsatzekoa da hezkidetzaren baitan ere antzeko bilakaera bat izan dela. Hala eta guztiz ere, eta aurrerago aztertuko ditugun arrazoiengatik, baieztatu dezakegu, etsipen ukitu batekin bada ere, programa eta proiektu gehienetan hezkuntza mistoak irauten duela eta nesken aurkako diskriminazio arazoak ez direla akitzen.

Conchi Jaramillok dioen bezala, "Astialdiko hezkuntzaren ezaugarria ez da inondik ere sexismoari buruzko gogoeta egitea, nahiz eta bestelako balore eta mugimendu sozialei atek irekirik mantendu dituen esparru bat izan, esate baterako ekologismoa, bakezaletasuna, nazioarteko elkartasuna, kulturen arteko harremana... eta horietatik sortu diren hezkuntza mota guztiak: ingurugiroaren hezkuntza, osasunerako hezkuntza, kulturen arteko hezkuntza, kontsumoaren hezkuntza, tolerantziaren hezkuntza."

Utzikeria horren ondorioak argi daude. Emakumeen partaidetzak, kopuruz gora egin badu ere, gizartearen beste esparru batzuetan gertatutakoa errepikatzen du: besteak zaintzera eta laguntzera bideratzen diren taldeetan masiboki sartzea (onegintza sozialak), organizazioen zuzendaritza karguetan ez egotea (Gazteak Askatasunean elkarteak Espainiako elkartei buruzko azterlanean azaltzen duenez, 1994. urtean agertzen zaigu elkarten zuzendaritza organoen barruan % 60,4 gizonezkoak direla eta % 39,6 emakumezkoak). Erantzukizunak sexuaren arabera banatzen dira eta kirol talde eta elkarteetan nabarmen jaisten da emakumezkoen presentzia.

Astialdiarekin eta Sustapen Soziokulturalarekin ikustekorik duten eremu profesionalen kasuan, ikasle gehienak emakumezkoak diren arren, ekimen sozialean, instituzionalean edo autoenpleguaren bidez lana aurkitzen duten pertsonen artean askozaz ere gehiago dira gizonezkoak.

Azkenik azpimarratu behar da erruz gehitu dela Baloreetan oinarritutako Hezkuntzako gaiekin ikustekorik duten taldeen kopurua. Hala ere, salbuespen gutxi batzuk izan ezik (Madrilen P'ellas, Mujeres Jóvenes eta La Kalle taldeen berri besterik ez dut) ez dago talderik beren lanaren helburuak eta bideak hezkidetzaren norabidean planteatzen duenik.

Datu hauek, beste batzuen artean, finkoago jartzen digute oraindik ere oztopo ugari dagoela emakumeen eta gizonen arteko berdintasun osoa lortzeko Astialdiko eremuan (datu gehiago azter genitzake, esate baterako hezkidetzaren kurtsoak egiteko eskabidea egiten duten ikasleen kopurua edo programa ezberdinetan dauden kargu politikoen eta teknikarien artean emakumezkoen eta gizonezkoen kopurua).

Galdera hau egiten dugu: nola daiteke, hein bateko adostasuna egonik Astialdiko hezkidetzaren beharraren gainean, oraindik ere hezkuntza mota hori eragozten duten faktoreak existitzea? Galdera honi saiatzen ahaleginduko gara ondoko lerroetan zehar. Horretarako ezkutuko curriculumean eragina duten faktoreak azalduko ditugu.

4.

Zein hezkidetza eredu proposatzaren dugun

Aurrera egin baino lehen erabaki beharrean gara zein hezkidetza prozesu defendatuko dugun, nola aztertuko dugun eta zein alderditan eragiten duen ezkutuko curriculumak eta zer neurri proposa ditzakegun.

Orain arte nire hitzaldiaren ardatza, funtsean, Conchi Jaramillok eginiko planteamenduen ildotik joan baldin bada ere, ondoren M^a Ángeles Cremadesen "La coeducación como propuesta" (Hezkidetza proposamen gisa) in *Coeducación y Tiempo Libre*, Popular Arg., izeneko artikulua laburpena egingo dut.

Azalpenaren hasieran ikusi genuen bezala astialdiko programetan emakumeen sarrera franko berandukoa izan zen eta bereizketaren bidetik eginga. Askoz beranduago emakumea proiektu mistoetan sartzen da, esleitzen zioten eginkizuna bere egiten zuelarik, hots, mende mende eraiki zuen bere kultur ikuspegia eratziki gabe.

Alde horretatik baieztatu dezakegu Astialdiko Hezkuntza gizonezkoen kultura eta baloreak erreproduzitzen dituen instituzioa dela, hezkuntza formalean gertatzen denaren parekoa. Eredu honek, berdintasunaren izenean, emakumea arau maskulinora egokitzea proposatzen du eta eredu horretan sartzen.

Alabaina, neutraltasun baten itxurapean, benetan eskaintzen dena berdintasun uniforme da, balore eta kultura maskulinoak orokortzen dituen, ezin hobek eta unibertsalak bailiran aurkeztuz. Eredu hori ez da aurretik zeuden bi eredu, hezkuntza femeninoaren eta maskulino bereizituaren, bateratzeetik sortu, aitzitik, eredu maskulinoak femeninoaren gainean duen nagusigoaren emaitza da, besteak beste, eredu femeninoa gutxietsirik aurkitzen delako.

Nagusigo horrek deuseztu egin du urte askoan emakumeen kulturatzat jo izan dena, kulturari esanahirik zabalena emanaz, hau da, esperientzia, interesak, baloreak eta ezagupenak, hitz batean esateko, mundua ikusteko eta munduan egoteko modu zehatz bat.

Eredu maskulinoaren nagusigoaren oinarria arrazionaltasuna, abstrazioa eta adimen logiko-formala bezalako faktoreetan datza. Eta gauza da emakumearengan jartzen ziren hainbat faktore eratzikitzea, hala nola, samurtasuna, sena, sentikortasuna eta harremanen esparrua.

Ikuspegi honek galdera bat egitera behartzen gaitu, zera, nolako sexu berdintasunaz mintzo garen, eta ea hori generiko femeninoaren kaltetan gauzatuko den.

Bi sexuak bat al datoz onarpen, balore eta jarreraren aldetik?, nondik hasita lortu nahi da berdintasuna?

Hezkidetzaren arloko proposamen batek hezkuntza mistoak garatutako ezagupen, trebezia eta zeregin historikoak, geroztik desagertu edo baliogutzitu edo baztertu izan direnak hezkuntza praktikan sartzea esan nahi du. Xedea da emakumearen kultura positiboak diren alderdi batzuk berreskuratzea eta mutilengana nahiz neskengana hedatzea, gizakiaren parte bat eta kultura kolektiboaren parte bat direlako.

Hezkidetzak pertsona guztiak berdintasunean hezitzea esan nahi du, genero sozialak hierarkizatu gabeko balore, jokabide, arau eta itzaropen sistema batean. Horrek adierazten du hezkidetzaren bidetik genero batek bestearengan izan dezakeen nagusigoa ezabatu nahi dugula.

Hezkidetzaren munduaren eta emakumeen esperientziaren hezkuntza integrala eta integratzailea. Hezkidetzaren proiektuaren asmoa da esparru publikoan nahiz pribatuan bizitzarako prestakuntza ematea.

Hezkidetzaren berriazko eskuhartze prozesu bat da, zeinen bidez neskatilen eta mutikoen garapena bultzatzen baita, bi sexu ezberdinen errealitatetik abiatu eta garapen pertsonala eta eraikuntza bateratu eta ez-aurkakoa lortzeko asmoz.

Horrek berekin dakar prozesu bat, zeinetan subjektu maskulinoen eta femeninoen berdintasun eta desberdintasunetik abiatu behar baita, bai eta bi eredu integratzaile ere.

4.1

HEZKIDETZA ERAIKITZEKO GILTZARRIAK

- Kultura femeninoa birbaloratzea, baliotsua duen guztia hartuz.
- Generoen eraldaketa bultzatzea hezkuntza esparruetan gauzatzen den sozializazio prozesuan.
- Azken finean rolen eta sexu estereotipoen aldaketa bat proposatzea da, sexistak ez daitezela izan. Generoen aldaketa proposatzen da hierarkizazio ezaren bidetik, osagai sozialak, antropologikoak eta historikoak aitortuz, horiek kontuan izateko eta modu kritikoan aztertzeko, horrekin osagai baliotsuak jokabide eskuragarri bihurtzeko bai nesken eta baita mutilentzat ere.

-
- Hezkidetza desberdintasunetik jorrazeko beharraz gogoeta egitea. Ez dago bidegabe handiagorik eskubide berdinak desberdintasunean sozializatutako pertsoneri eskaintzea baino.
 - Berdintasuna benetan lortzeko emakumeen eta gizonen artean genero eta botereen diferentziak badaudela aitortu beharra dago, eta bide eman behar zaio eskuhartze positiboari eta aldaketarako estrategia berriak garatzeari.

5.

Ezkutuko curriculumuma

Astialdiko programak gero eta hobeki antolatu eta egituratzen badira ere, haatik hezkuntza proiektu orotan agertzen diren balore eta jarrera transmisioak gertatzen segitzen du eta argi isladatzen ez badira ere plangintzan ezkutaturik gelditzen dira eta segido agertzen dira hezkuntza proposamenean, nahiz eta gehienetan kontziente egiten ez diren. Balore mota honi deitu izan zaio “ezkutuko curriculumuma”.

Ezkutuko curriculumak berebiziko eragina du ikasketa ez-arautuan eta genero ereduaren transmisioan, elkarrekintza ezberdinen bidez, jarduera antolakuntzaren bidez, hezkuntza eragileen ereduaren bidez eta horiek ikasleen etorkizunaz duten itzaropideen bidez.

Taldearen balore sozialak, monitoreen jarrerak eta zeregin horretan diharduten pertsona guztiak nolakoak diren halakoa izango da ezkutuko curriculumuma ere.

Astialdiko jarduerak, jostetazkoak eta hautazkoak direlako, egoera berezi batzuetan gartzten dira, zeinetan gazteek hezkuntza aldetik exigentzia eta presio gutxiago aurkitzen duten, eta komunikazioaren barneko harreman esparruan agertzen diren. Astialdiko hezkuntza, neurri handi batean, bat-bateko eta gehiegi egituratu gabeko egoera batzuen barruan modutzen da. Egoera horrek adierazten duenez, ezkutuko curriculumaren barnean baloreen eta sineskeren transmisioak nekez analiza daitezke, beraz, gehienetan naturaltzat hartzen dira eta horrek diskriminazio sexistako balizko egoerak desagertzea dakar.

5.1

EZKUTUKO CURRICULUMAREN AGERPENAK

- Mintzaira.
- Jarduerak.
- Monitorearen eta neska-mutilen arteko harremanak.
- Antolakuntza.
- Espazioa.
- Edukiak.
- Irudiak eta liburuak.
- Taldeko harremanak.
- Proiektuaren zehaztapena.

6.

Astialdiko hezkidetzaren proiektu bat sortzeko neurri positiboak

6.1

PROIEKTUA. ANTOLAKUNTZA ETA PLANGINTZA

Conchi Jaramillorentzat proiektu hori funtsezko elementua da Astialdiko hezkuntza-prozesuen plangintza, programazioa, exekuzioa eta ebaluazioa egiteko. Barnean sartzen du emakumeak diskrimina ditzaketen faktoreei buruzko analisi sakon bat, eta horrekin batean hezkuntza-proiektuaren formulazioan zuzenketak egiteko izan daitezkeen estrategiak.

NORK FORMULATZEN DUEN PROIEKTUA:

Astialdiko hezkuntzaren printzipiorik interesgarriena eta berritzaileena taldeko lana da. Talde orok hezkidetzaren gaineko prestakuntza izan beharko luke, horrela proiektuak, bere base ezberdinetan, hezkidetzaren printzipioak bere egin ditzan.

NEURRI POSITIBOAK

PROIEKTUAREN OINARRIA:

- Proiektuaren helburu diren taldearen azterketa, kontuan hartuta sexua/generoa faktorea.
- Nesken interesen, motibazioen eta astialdiaren erabileraren analisia.

HELBURUAK:

- Helburu orokor gisa aukera berdintasuna agerian planteatzea.
- Helburu gisa astialdiko estereotipo sexisten eraldaketa planteatzea.
- Helburutzat neska-mutilen arteko partaidetza orekatua eta zuzentasunezkoa proposatzea, proiektuaren jarduera guztietan.

JARDUERAK:

- Mutilei bezainbat neskei interesatzen zaizkien jarduerak proposatzea.
- Jarduera alternatibo eta ez-estereotipatuak diseinatzea.
- Neskak eta mutilak sexu bateko nahiz bestekoarenak izan ohi diren jardueretan parte hartzea animatzea.

EBALUAZIOA: adierazle hauek atxiki ebaluazioari:

- Neska-mutikoen partaidetza zuzentasunean oinarritutakoa.

- Neska-mutikoen arteko elkarrekintza.
- Neska-mutiletan agertzen diren jokabide sexistak aztertzea.
- Ezkutuko curriculumaren alderdiak, arruntean ikusten ez direnak, ebaluatzea.

6.1.1

METODOLOGIA

Hezkuntza mistoak bide ematen du jardueretan parte hartzera kontuan hartu gabe taldearen egituraketa, hori dela-eta gazteek beren burua indartuta sentitzen dute ezagunak dituzten jarduera batzuetan, eta beren baitan garatzen duten segurtasun hori botere posizio bihurtzen da.

NEURRI POSITIBOAK:

- Elkarrekin eztabaidatzea zergatik proposatzen diren talde mistoak: zein motatako harremanak, komunikazioak gertatzen diren, eta zein zailtasun, jarrera... agertzen diren, eta adostasuneko egoerak aurkitzea, lan bateratuak ahalbideratzeko.
- Aukera atseginenak hautatzeko bakoitzak duen gaitasuna ez zapuztea, kontuan hartu gabe tradizioz zein sexuri esleitu zaizkion. Desberdin izatera animatzea, norberak eginko aportazioen gainean gogoeta egin ondoren.

6.1.2

ESPAZIOAK

Astialdiko hezkuntza jarduerak edonolako espaziotan garatzen dira, tailerrak egiten diren geletatik hasi eta izadiaren eremurik zabalenera. Mutilak, sozializazioan barrena sendotzen den joera dela medio, jardueretako eremuaz erraz jabetzen dira, horregatik, ezinbestekoa da espazioen antolamendurako ohiturak sortzea.

Conchi Jaramillok dioen bezala, espazioa erabiltzeko estrategiak diseinatu behar dira:

- Espazio batzuk lan talde zehatz batzuei, tailer edo jarduera jakin batzuei esleituz.
- Eginahalak eginez kanpoko jardueretan, jokoetan eta beste jarduera batzuetan neska-mutilak askatasun osoz ari daitezen.
- Espazio kolektiboak nesken eta mutilen ezaugarrietara egokituz, espazio guztiak, txarrak nahiz onak, arreta jarriz neskek nahiz mutilek erabil ditzaten.
- Komunikazio eta lasaitasunezko espazioak bilatuz.
- Espazioen kalitatea, norberaren espaziotzat hartuta, baloratuz.
- Espazioak aldatu eta malgutzea, denek erabili ahal ditzaten.

6.1.3

MONITOREEN (GIZONEZKO ETA EMAKUMEZKO) ARTEKO HARREMANAK:

Taldeak bi sexuetako pertsonen osatuta egotea komeni da, eta horiek antolakuntza egituraren maila guztietako karguak betetzea. Erantzukizuneko karguetan emakumeak egotea nahitaezkoa da emakumezkoen eredu desiragarri eta eskuragarri indarra emateko.

Taldea mistoa denean beharrezkoa da:

- Eskuhartze eta protagonismoaren tarteak zuzentasunez banatzea.
- Jardueren gestioa, antolakuntza eta zuzendaritza, kopuruz eta motaz, zuzentasunez banatzea.
- Adibideak jartzen diren jardueretan, araua hautsiz rola aldatzea.
- Agintearen adierazgarri diren eskuhartzeak orekatzea, monitoreen gain gera ez dadin, edonork baitaki taldeek aginte eta errespeto gehiena ematen dietela.
- Elkarrekiko errespetoan eta lagun hurkoaren gaitasunen eta jakinduriaren aitortzearen oinarrituriko harremanak ezartzea, horrekin gizonen eta emakumeen arteko harreman pertsonal eta profesionalean izaten diren aurreiritzi sexistak berriro ere sor ez daitezen.

6.1.4

DENBORAK

- Nork bere burua apaintzeko denbora baloratzea.
- Gauzak antolatzeke eta garbiketarako denbora baloratzea.

6.1.5

MATERIALAK

Materialak ere badu bere sexua. Nolako jarduerak egiten ditugun, behar diren materialen beharra ere halakoa izango da. Tresneriaren arloko materialak besterik gabe mutilekin lotzen ditugu: baloiak, piraguak, bizikletak, argazki-makinak, sokak. Era berean, espresibitatearekin zerikusia dutenak neskekin lotzen ditugu: paperak, pintura, errotuladoreak, kartulinak, arropak.

Material horren gainean hona hemen gure proposamena:

- Edozein motatako materiala berdinean baloratzea, sofistikuagoa edo garestiagoa edo handiagoa izateagatik ez baita horratio inportanteagoa.

- Materiala zuzentasunez banatu eta mutilen monopolioari mugak jarri.
- Eginahalak egitea era guztietako materiala erabil dezaten bai mutilek eta bai neskek.
- Nesken ardurapean jartzea berez axola gutxikoa duten edo eskatu ere eskatzen ez duten materialaren mantenimendua, desplazamendua eta kontrola, eta gauza bera mutilen kasuan ere.

6.1.6

NESKEN ETA MUTILEN ARTEKO ELKARREKINTZA ETA MONITOREEN EGINKIZUNA

Astialdiko hezkuntza-proiektuek partaidetzazko metodologia bat erabiltzen dute, talde bako kideen arteko elkarrekintzari garrantzi handia ematen diona.

Begibistakoa da hezkuntza proiektu batek errealitate hori kontuan izateaz gainera errealitate horren gainean, edo hobeto esateko horren kontra, eragin behar duela. Astialdiko hezkuntzan zuzentarau gutxiko metodologia bat erabiltzen dugu, tarte bat uzten zaiolarik pertsonaren naturaltasunari eta askatasunari. Hala ere, zenbat eta zuzentarau gutxiago orduan eta askatasun gutxiago neskenentzat, horrekin eredu maskulinoa birsortzen duen harreman eredu bat indartzen dugulako.

- Neskak kontuan hartu eta haien aportazioak positiboki baloratu behar dira.
- Neskei entzutea eman behar zaie eta haien iritzia mutilenak bezain beste baloratu behar dira.
- Mintzaira ez-sexista bat erabili behar da, neskak zein mutilak neurri berean errespetatzen dituen.
- Neskei ez zaie behartu behar mutilekin lan egitera.

NESKA-MUTILEN ARTEKO JOKABIDE SEXISTEI AURREA HARTU BEHAR ZAIE, ADIBIDEZ:

- Talde mistoa talde txikiagotan zatitzen denean, sakabanatzen ez utziz.
- Zeregin eta jardueretan rola txandakatzea eta elkarrekin trukatzeko antolatuz.
- Sexu bakar bati atxiki ohi zaizkion jardueretan neskak eta mutilak batera sartuz.
- Neskek eta mutilek beren kabuz rolen arauak haustea onetsiz.

EKINTZA POSITIBOA NESKEN PARTAIDETZA ETA AUTOESTIMUA BULTZATZEKO:

Adibidez:

- Neskak lidergora goratuz eta beren kabuz onartzen dutenean laguntza eskainiz.
- Eredutzat neskak jarritz.

-
- Nesken aportazio, iritzi eta proposamenak indartuz, toki eta garrantzi handiagoa emanez.

6.1.7

GIZA BALIABIDEAK

- Jende prestatua, programa ez-sexistak abian jarri eta gauzatzeko.
- Emakumeak, antolakuntza eta jarduera mota guztietan.
- Prestakuntza programa berariazkoak.

MENCHU AJAMIL GARCÍA

**Nazioarteko aholkularia
generoari eta garapenari
buruzko gaietan, eta "Taller
de Educación no sexista"
eskuliburuaren egilea, Gurutze
Gorriko Gazteriaren
alorrarentzat**

Herzkuntza

erz-sexista

herzkuntza erz-

formalean eta

astialdian

Herakuntza ez-sexista herakuntza ez-formalean

Emakumeen eta gizonen artean, sexua dela-eta dauden diferentzien arazoa, gaur egun puri-purian dagoen gaia bada ere, betidanik eta ikuspegi arras desberdinetatik aztertu izan da.

Pentsamenduaren historian zehar eta hainbat disziplinatatik —filosofia, antropologia, literatura eta, gaur egun, psikologia, biologia eta soziologiaren aldetik— gai honi buruz ikerketak egin dira eta franko idatzi da.

Ikuspegi historikotik froga daiteke nola ari diren aldatzen bai eta desagertzen ere sexu baten eta bestearen arteko diferentziei buruzko zenbait sineste eta pentsakera, denborarekin guztiz desagertzeraino, eta teoria berriek zaharragoak nola gainditzen dituzten, lehen zientifikoki finkatutzat jotzen baziren ere.

Gaur egungo ikerketek frogatu digutenez, objetiboki egiazkoak eta egiaztagarriak diren diferentzia biologikoak aparte, emakumeen eta gizonen arteko diferentzia psikologikoak, aldiz, ez dira ez begibistakoak ezta unibertsalak ere, interpretazio sozialen eta kulturalen ondorio baizik, oro har ingurune eta testuinguru historiko, sozial, politiko, ideologiko eta kultural desberdinetan sakonduz ulertu behar direnak.

Gauzak “diren bezalakoak dira” esan ohi da; baina beste modu batekoak izan daitezke eta izan beharko lukete, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean eta erantzukizunean oinarrituak. Alabaina, kontua da XX. mendearen azken aldera iristen ari garela, mendez mendez iraun duten tradizioetan oinarrituriko rol eta estereotipo andana luze baten zamapean. Tradizio horiek —gure ingurune kulturean— gizartearen egitura patriarkalean dute abiapuntua.

Nolanahi ere, gizarte zuzenago eta solidario bat lortu nahi badugu, printzipio horiek gure ingurune hurbilenean gauzatzen hasi behar dugu, beraz, emakumeen eta gizonen arteko harremanak aldatu behar ditugu, orientazio berri bat emateko berdintasun osoko plano batiatik eta ez gaur egun, tamalez, dirauen berdintasun gabeko egoeratik.

Horrek ez du esan nahi uniformismoaren eta sasi igualitarismo baten alde gaudenik. Kontziente izan behar dugu baditugula diferentzia biologikoak eta psikikoak, geure artean errespetatu eta osatzekoak, agintekeria erori gabe eta nagusi/menpeko harremanak sortu gabe, zeinetan emakumeak gehienetan galtzaile ateratzen diren.

Honetaz guztiaz gogoeta egitea da aurkezten dizuegun Hezkuntza Ez-sexistarako Tailerraren helburua.

Gogoeta hori bizia izan dadila nahiko genuke, esan nahi baita, aktiboa, ludikoa eta partaidetza bultzatzen duena. Horregatik proposatzen dugu eguneroko bizitzatik abiatzea, egunerokotasunaren hurbiltasunetik, eta hortik eta joko eta dinamika batzuetan barrena, tailer hau garatzen duten nerabeak prozesu baten bidez ohar daitezten, neska-mutikoen, neska-mutilen eta, oro har, gizon-emakumeen arteko harremanak nolakoak diren eta horietan zer antzematen duten.

Sentsibilizazioaren ondotik ongi ez dagoena aldatzeko gogoia etorriko da. Hori dela-eta hortik abiatuta eta talde-lanaren bitartez, tailer honetan arituko diren taldeek eta monitoreek jarrera aldatzeari ekin ahalko diote —norberarena eta taldearena—, eta gure aldetik nahiko genuke ur tantoa edo hare-bikorra bezalakoa izan dadin, zeinak, beste ahalegin askorekin batera eta berdintasunaren aldeko benetako gogoak zirikatuta, eraldatu ahal izango ditu gaur egun bizi ditugun bidegabeko harremanak.

Komunikazioaren eta elkarren arteko harremanen modu berriak erdietsi behar dira sexuen artean benetako partaidetza lortzeko bizitza publiko eta pribatuaren arlo guztietan. Hori, azken finean, gizarte hobeto bat eraikitzeko, bertan emakumeak eta gizonak elkarren artean hobeki konpontzeko, zoriontsuagoak izateko eta hiritar libreagoak eta gizaki osoagoak izateko bidea izan daiteke.

2.

*Hezkidetzaren proposamen
metodologiko zehatz bat:
“Hezkuntza ez-sexistarako
tailerra monitore eta
gazteentzako”*

EDUKIEN AURKIBIDEA

Sarrera eta orientabide metodologikoak

- Tailerraren diseinua
- Moduluz osatutako egitura
- Tresnak: eskuliburua eta koadernoak
- Urrats didaktikoak
- Tailerraren helburuak
- Terminoen hiztegia

I. GAIA: HARREMANEN BIZITZA ETA FAMILIA

1. modulua: “Inguruabarren ahalmena”: sozializazioaren eragileak.
2. modulua: “Dena hasten den lekua”: familia.

II. GAIA: HARREMANEN BIZITZA ETA ESKOLA

3. modulua: “Ikus dezagun”: esparruen okupazioa.
4. modulua: “Historian zehar paseatuz”: emakumea ez da ikusten.

III. GAIA: HARREMANEN BIZITZA ETA INGURUNE SOZIALA

5. modulua: “Nola moldatzen zara?": mikroingurunearen analisia.
6. modulua: “Inguratzen gaituena”: gizartearen arloa.

AMAIERAKO LABURPENA: HARREMAN MOTA BERRIEN BILA “Batzuk bukatu eta beste batzuek hasi”

7. modulua: “Beste historia hura”
8. modulua: “Etorkizuna laranja kolorekoa da”

ERASKINAK

- Material lagungarriak.
- Beharrezko helbideak.
- Nerabeentzako baliabide didaktikoen zerrenda.
- Hezkuntza ez-sexistaren eta hezkidetzaren gaineko bibliografia.

2.1

ORIENTABIDE METODOLOGIKOAK

Hezkuntza Ez-sexistarako Tailer hau asmatu izan da modulu sistema malgu bat bezala, modu askotako egoeretara egokitu ahal izateko, eta horren banaketa kronologikoa ere saioka edo sekuentzietan eratu da, aukera desberdinetara egokituz.

Planteamendu metodologiko hau guztiz aktiboa da, eta garrantzi handia ematen zaio taldeari eta partaidetzari, hainbat dinamika mota eta ariketa praktikoa bata besterekin lotuz. Tailerra, hasiera batean, nerabegarora iritsi ez diren taldeentzat diseinatu da, 12-15 urte. Zortzi lan-saiotan —gutxienez— antolatu da, bakoitzak bi orduko iraupena duelarik. Horrezaz gainera, 16-20 urteko gazteei egokitu eta aplikatu dakieke, eta moduluka garatzen da eskolaz kanpoko eta astialdiko jardueretan.

Bakarkako gogoeta taldeko analisiaren elementuekin osatu nahi izan dugu, iritziak bateratzearekin eta sintesiarekin, taldeek beren ondorioak ateratu ditzaten etorkizunean izan daitezkeen jokabide berriei eta jarreraren aldaketari buruz.

Helburua da berdintasun handiagoa lortzea emakumeen eta gizonen artean suertatzen diren era guztietako harremanetan, haur eta nerabegaroko hezkuntzatik eta familian eta eskolan bizitzen diren elkarrekintzatik hasita.

2.1.1

TAILERRAREN DISEINUA

Zalantzarik gabe, jorratu beharreko gaiak ugari dira eta tailer honen neurria eta ahalmena gainditzen dute, bi orduko zortzi saiotara mugatzen baita. Baina gure ustez aski da —lehenbizi sustatzaileak eta gero nerabeak— gai honetan hasteko eta gogoeta eginarazteko, gero gogoeta horretan eskola eremuan jarraitzeaz gainera beren familietara, gazte elkarteetara, e.a. etara eraman dezaten.

Tailerra bizipenen eta praktikotasunaren aldetik enfokatu nahi izan dugu, helburuzko taldeen egunerokotasuna kontuan hartuta, era horretan soilik lortuko baititugu sentsibilizaziorako eta jarrera aldaketetarako ezarri ditugun munta handiko helburuak.

Edonola ere, denbora gehiago izatera, zortzi saio horiek luza daitezke, funts handiagoko eta eduki gehiagoko dinamikak burutzeko eta, orobat, iritziak astiroago bateratzeko.

Tailerra eratu da izaera ez-formaleko jarduera bat bezala, ikastetxe berean garatu arren, are ikastorduen barnean ere.

Beste modalitate batzuetan ere burutzen ahal da: eskolaz kanpoko ordutegian, asteburuetan, Kultur Asteen programazio berezietan edo Udako Eskoletan...

Saio bakoitzaren maiztasuna, halaber, alda daiteke, beharren arabera. Baina, edozein modutan ere, modulu bakoitza jarraian burutu beharko da: ez dago zatitzerik. Horietako bakoitzaren iraupena gutxienez bi ordukoa izango da, ariketak eta dinamikak aurretik erabakitako egitura eta hurrenkerarekin egin ahal izateko.

Egituratze hori ez da kasualitatea, metodologi prozesu kontziente baten ondorio baizik. Prozesu horretan partaideak aldiko gutxi sartuz joango dira eta gogoeta mailak ere progresiboak izango dira, lotura eta jarraipen logiko batekin, aldeztu aurretik erabakitakoari jarraituz.

Beraz, hurrenez hurren I, II eta III. Gaiak jorratuko dira:

- Harremanen bizitza eta familia.
- Harremanen bizitza eta eskola.
- Harremanen bizitza eta ingurune soziala.

Titulu orokor gisa "harremanen bizitza" aukeratu dugu, zeren uste baitugu oinarrizkoena sozializazio prozesuak aztertzea dela, lehen haurtzarotik hasita, izan ere, etapa horretatik hasten baitira mutikoak eta neskatilak ematen zaizkien genero ereduarekin identifikatzen.

Nola portatu behar diren, neska eta mutilengandik zer espero den, e.a. adierazteko ematen zaizkien konsigna eta orientabide guztiak jaiotzetikan guregana heltzen den mezu etengabekoaren parte bat besterik ez dira, sorburua gizarte bakoitzean finkatutako jarraibide eta arauetan duena, gure harremanen bizitzari dagokionez.

Bestalde, azpimarratu behar dugu familia, eskola eta ingurune soziala direla sozializazio eremuak eta neska-mutilen eguneroko bizitzatik gertuen dauden elementuak, eta horiei dago zuzendua tailer hau. Horregatik, ikasketen eta jokabideen gaineko gogoeta hortik eta egunerokotasunetik abiarazi nahi dugu, horiek duten sexista kutsua gero eta txikiagoa izan dadin.

2.1.2

EGITURATZE MODULARRA

Hiru gaietako bakoitza bi modulutan dago banatua, horren karia gutxienez bina orduko lan saioak izango dira, eta honela deitu ditugu:

- 1. modulu: "Inguruabarren ahalmena". Sozializazioaren eragileak.

- 2. modulua: "Dena hasten den lekua". Familia.
- 3. modulua: "Ikus dezagun". Espazioen okupazioa.
- 4. modulua: "Historian zehar paseatuz". Emakumea ez da ikusten.
- 5. modulua: "Nola moldatzen zara?". Mikroingurunearen analisia.
- 6. modulua: "Inguratzen gaituena". Gizartearen arloa.

Azkeneko bi saioek Amaierako Laburpen bat osatzen dute, zeinetan proposatzen dugun autoantolamendurako talde-dinamika bat. Horren helburua da gazte partaideek antolamendu komunitarioaren jarraibide berriak diseinatzea, zuzentasunean oinarrituta. Guk izenburu hau jarri dugu: "Harreman mota berrien bila: "Itxiera eta hasiera".

- 7. modulua: "Beste historia hura"
- 8. modulua: Guztion artean iritziak bateratzea: "Etorkizuna laranja kolorekoa da".

2.1.3

TRESNAK: KOADERNOA ETA ESKULIBURUA

Hezkuntza Ez-sexistarako Tailerra bi alderditan aurkezten da.

- Koadernoak.
- Eskuliburua.

KOADERNOA. Bertan argitzen dira Tailerreko zortzi saioen ariketak eta dinamikak, goian aipatutako egitura eta printzipio pedagogikoei jarraituz.

Biltzen ditu, halaber, saio bakoitzean erabili beharreko teknikekin ikustekorik duten marrazkiak eta ilustrazioak.

Lanabes gisa eskaintzen da, non neska-mutikoei beren notazioak eta iruzkinak egin baititzakete, fase bakoitzean horretarako espazio bat badago-eta. Era berean, talde-lanen sintesiak eta iritzien bateratzeak bilduko ditu.

Azkenean zenbait eraskin datoz, Terminoen hiztegia, Laguntzarako materialak, Baliabide Didaktikoen Zerrenda eta Hautapen Bibliografikoa.

ESKULIBURUA, Tailer Modulu bakoitzaren garapena azaltzen da, partaideei proposatzen zaien bezala. Gainera oinarri teoriko labur bat eskaintzen da, Gai bakoitzaren sarrera gisa, eta Modulu bakoitzaren fase eta urrats didaktikoen azalpen operatiboa ere bai.

Arlo honetan ere, hainbat eraskin biltzen dira, monitoreentzako material lagungarri gisa, hauek hain zuzen:

- Material lagungarriak.
- Nerabeentzako Baliabide Didaktikoen zerrenda.
- Beharrezko helbideak.
- Hezkuntza ez-sexistaren eta hezkidetzaren gaineko bibliografia.

2.1.4

URRATS DIDAKTIKOAK

Gai bakoitzaren aurreko aldean fitxa bat dago, Oinarri Teorikoa, Helburu Orokorrak eta jorratuko diren gaiak edo alderdiak biltzen dituena. Denbora faltaz gai batzuk ezin izango dira, seguraski, beharko litzatekeen sakontasunez jorratu. Horrek esan nahi du Tailerra zabalagoa izan daitekeela —eskaintzen den diseinutik abiatuta—, denbora gehiago eta saio gehiago izanez gero, beti ere.

Modulu bakoitzaren hasieran saio konkretu horren lanerako helburu espezifikoak ezartzen dira. Helburu horiek destinoko taldeari egokitu behar zaizkie eta berriro formulatu behar dira talde horren prozesuen eta bilakaeraren arabera.

Modulu bakoitzaren garapenak, lan-teknika eta talde dinamika desberdinekin bada ere, eskema metodologiko berberari erantzuten dio, oro har, eta ondoko fase edo urrats didaktikoak ditu:

- Sarrera; zenbait eduki teorikoren aportazioarekin.
- Gaiarekiko hasiera; taldearentzat hasierako beroketa bezala balio duen bakarkako gogoetaren eta ariketa kolektibo baten bitartez.
- Analisi fasea; asmoa da gai espezifikoetan eta modulu bakoitzean planteatzen den edukian sakontzea.
- Sintesi fasea; lan saio honetan jorratutako alderdi funtsezkoen bilduma eta iritzi bateratze gisa.
- Sistematizazioa; laburra eta singlea, partaide bakoitzak bere koadernoan idatzi ditzan modulu honen garapenak sortarazi dizkion ideia eta gogoeta nagusiak eta erabilitako teknikez duen balorazioa ere.
- Hautazko jarduera; izenburu hau jarri diogu: “Pentsatzen segi dezazun”. Ariketa osagarri eta hautazkoa bezala eskaintzen da, Tailerrean parte hartzen dutenek saioen artean egin dezaketena.

Horrek lan pittin bat dakar datuak eta informazioa edo material lagungarritzat ematen zaizkien materialak eta estatistikak bilatzeko, familian, eskolan, auzoan edo udalerrian.

Ariketa hauek borondatezkoak izan arren, partaideek egin dezatela gomendatzen da, elementu motibatzaileak direlako eta Tailerreko edukia eta lana osatzen dutelako, eta jorratutako alderdien efektu biderkatzaileaz gainera neska-mutilen familian, eskolan eta ingurune sozialean zuzeneko eragina dutelako.

2.1.5

TAILERREKO HELBURUAK

Tailerrari orokorrean dagokionez, helburu hauek ditugu: bizipenezkoak, kognitiboak eta afektiboak.

1. Bizipenezko helburuak:

- Gogoeta errealitatearekin lotzea.
- Gogoeta praktikara eramatea, neska-mutilak bizi diren ingurune konkretuen barruan.

2. Helburu kognitiboak:

- Errealitateaz gogoeta egiteko gaitasuna garatzea.
- Egoerak objektibatzen eta urruntasunez behatzen ikastea.
- Anlisi kritikoa sustatzea.
- Gogoeta elkarren arteko harremanetan eta arrazoi historiko, kultural, ekonomiko eta sozialean kokatzea.
- Kontzientzia hartzea eta arrazoizko hautapenak egiteko gaitasuna bultzatzea.
- Sexuan oinarritutako berdintasun ezak ezagutzera ematea.
- Desberdintasunak modu "ulerkorrean" gainditzen laguntzea.

3. Helburu afektiboak:

- Sexuaren kariaz izaten diren bidegabekeriak eta berdintasun ezak gaitzesteko gaitasuna suspertzea.
- Zuzentasunean oinarrituriko jarrera positiboak eta elkartasunezkoak bultzatzea.
- Pertsonen eta sexuen arteko komunikazioari buruzko errespetoa eta konfiantza sustatzea.
- Emakumeen eta gizonen arteko harreman libre eta berdintasunezkoak sustatzea.
- Monitoreei: Tailer honetako lanari gogatsu ekin diezaiozuela nahiko genuke, eta gogo bera sortaraz dezazuela koordinatuko dituzuen partaide gazteen baitan.

Berdintasunezko mundu bat sortzea denoi doakigun egitekoa da. Ezinbestekoa da, neskak eta mutilak, eskolatik hasita, beste modu batera sozializatzen eta elkarren arteko harremanak izaten has daitezen.

Tailer hau, zeinetan egileok guztiz konprometituri baikaude, lagungarri izango al da interes handiko zeregin honetan.

2.1.6

TERMINOEN HIZTEGIA

- Emakumea: sexu femeninoko pertsona.
 - Emea: sexu femeninoko animalia.
 - Femeninoa: emakumeei dagokiona, haien izaera duena edo haiei buruzkoa.
 - Femeninotasuna: emakumeen ezaugarri multzoa. Nortasunaren konstruktoa, zeinen arabera pertsona bat identifikatzen baita sexu femeninoaren rolekin, interesekin eta jarrerekin. Maskulinitasunaren kontrako aldean dagoen ezaugarria.
- Gizona: tradizioz gizakia definitzeko hitza, haren sexua edozein dela ere. "Gizonezkoaren" sinonimoa.
 - Gizonezkoa: sexu maskulinoko pertsona.
 - Arra: sexu maskulinoko animalia.
 - Maskulinoa: gizonezkoei dagokiona, haien izaera duena edo haiei buruzkoa.
 - Maskulinitasuna: gizonezkoen ezaugarri multzoa. Nortasunaren konstruktoa, zeinen arabera pertsona bat identifikatzen baita sexu maskulinoaren rolekin, interesekin eta jarrerekin. Femeninitasunaren kontrako aldean dagoen ezaugarria.
- Feminismoa: doktrina eta mugimendu sozialen multzoa, helburutzat gizonen eta emakumeen estatus sozialak berdintzea duena; gizonak dituzten eskubide berak eskatzen ditu emakumeentzat ere, batez ere berdintasun zibila, juridikoa, ekonomikoa eta profesionala azpimarratzen dituelarik.
- Matxismoa: aurreiritzi soziala, zeinen arabera gizonezkoen baloreei eta ezaugarriei lehentasuna ematen baitzaie gizarte osoaren barnean, eta batik bat emakumeak menpean hartuz.
- Sexismoa: sexuaren kariaz pertsonak diskriminatzeko joera soziala, emakumeak bereziki, sexu femeninokoak izateagatik.
- Androzentrismoa: sexu maskulinoko pertsonak gizartearen muina bezala eta legegintza, egituratze eta antolakuntza sozialaren ardatz erreferentzial gisa hartzeko joera soziala.

- Generoa: gizonezkoen eta emakumezkoen diferentzia adierazten du, ikuspegi psikologiko eta soziokulturaletik. Errealitate konplexu bat, bereziki errealitate psikosoziala duena.

Generoaren errealitate barruan bilduko lirateke rolen, estereotipoen, maskulinitasun-femeninitasunaren, e.a.en gaineko ikerketak. "Genero" kontzeptua kulturak aldatzen diren neurri berean aldatzen da; garai eta ingurune desberdinetan sexu bakoitzarengandik espero den portaera soziala adierazten du.

- Sexua: desberdintasun biologikoa (maila genetiko, endokrino eta neurologikoan) azaltzeko erabiltzen den terminoa, baina ez ditu portaerak ezinbestean markatzen. Sexu garapeneko prozesu osoan zehar pertsona bat maskulino edo femenino gisa sexuaturako izaki bezala erabiltzen duten egituren multzoa da. Pertsona ez da sexuaturatu jaiotzen, aitzitik, sexuaturatu jaten da bizitzan zehar.
- Androginia: hitz honekin aipatzen dira ezaugarri fisiko edo/eta psikologiko maskulinoak eta femeninoak batera dituzten pertsonak. Androginia psikologikoa da ezaugarri eta jokabide maskulinoen eta femeninoen konbinazioa, maila berdintsuan eta orekatuan. Plano psikosozialean kokatzen da. Ez da nahasi behar hermafroditismo, bisexualtasun, homosexualitate eta abarrekin.
- Sexualitatea: izaki bizidunetan agertzen zaizkigun fenomeno sexualak edo sexuarekin lotzen direnak. Psikologi mailan sexu senaren adierazpen psikiko eta fisiologikoen multzoa da. Giza espeziean fenomeno sail bat hartzen du, ugalketa hutsaren mugak gainditu eta afektibitatea inplikatzeko duena. Sexualitatearen garapenak heldutasun organiko eta baldintza soziokulturalak behar ditu. Gizakiak bere sexualitatea bizitzeko hainbat eredu (maskulino zein femeninoak), ñabardura (homosexualitatea, heterosexualitatea edo bisexualitate) eta ezaugarri izaten ditu gidari.
 - Heterosexualitatea: beste sexuko pertsonenganako joera sexuala.
 - Homosexualitatea: sexu bereko pertsonenganako joera sexuala.
 - Bisexualitatea: termino honekin definitzen dira portaera hetero eta homosexualak aldi berean dituzten pertsonak.
- Rola: rola edo paper soziala da zeregin eta eginkizunen, bai eta portaeren itzaropideen multzoa. Elementu horien guztien oinarria da pertsona bakoitzak talde sozial konkretu batean duen egoera edo estatusa. Aipa daitezke rol tradizional maskulinoak eta femeninoak, gizartearen eremu publikoei eta pribatuei dagozkienak.

- Estereotipoa: portaera sozialaren eredua edo klitxea, aurreiritzietan eta balore batzuetan oinarritua, komunitate jakin bateko kideei inposatzen zaiena.
- Identitatea: ni-tasunaren zentzua, nortasunari batasuna ematen diona denboran zehar. Nerabezaroan maiz agertzen dira despersonalizaziozko fenomenoak, sasoi horretan gertatu ohi den nortasun berrantolamenduaren ondorio gisa.
- Identifikazioa: prozesu psikiko inkontzientea. Eredu baten imitazioa izaten da, zeinekin lotura afektibo bat egoten den eta norberaren nortasuna definitzeko erreferentziatzat balio izaten duen.
- Autoirudia: nork bere buruaz eta etorkizunean lortu nahi edo izan nahi duenaz izaten duen irudikapen mentala.
- Autoestimua: nork bere buruarekiko duen balorazio jarrera. Nork bere buruaz duen irizki positiboa edo negatiboa. Gizartean norberarentzat eredugarri diren pertsonen irizkiak norbereganatuz edo barneratuz eraten da.
- Gaitasuna: jardura batean bete-betean aritzeko eta jokabidearen arlo espezifiko batean eraginkor izateko behar diren baldintza psikikoen multzoa.
- Jarrera: jokabidearen joera hein batean bederen egonkorra. Modu jakin batean jarduteko eta erreakzionatzeko joera.
- Jarrera aldaketa: eraldatze prozesua, jarrera bat hobetzeko eta aberasteko.
- Aukera berdintasuna: sexua, klase soziala, e.a. direla eta, diferentziak sortarazten dituzten oztopo sozialak desagitea.
- Diskriminazio positiboa: sexu edo talde sozial jakin bat egoera kaltetuan dagoela aitortzea eta desoreka hori konpentsatzeko joera.
- Ekintza positiboa: diskriminazio positibotik hartzen diren neurrien multzoa —eginahalak eta erantzunak— gure gizartean sexua dela-eta dauden berdintasun ezak konpentsatzeko. Justizi eta konpentsazio egintza bat da, baina ez beste sexuaren kontra joateko.
- Hezkuntza mistoa: nesken eta mutilen arteko bizikidetza hezkuntzaren prozesuan.
- Hezkidetza: hezkuntza arloko eskuhartze prozesu bat da, kontzientea eta berariazkoa, bi sexu desberdin daudela onartzetik eta errespetatzetik abiatzen dena, berdintasun osoko bidean hezkuntza integrala eta neskatikoen eta mutikoen garapen pertsonal integratzailea bultzatzeko.
- Hezkuntza ez-sexista: sexuan oinarritutako diskriminaziorik gabeko hezkuntza eredua da, aukera berdintasunetik harreman berriak sortzeko bidea eman nahi duena.

-
- Sozializazioa: pertsonak kultura bereganatzeko daukan bidea, baloreak barneratuz eta gizarte jakin bateko ohituretara eta joeretara egokituz.

2.2

HARREMANEN BIZITZA ETA FAMILIA

1. MODULUA: "INGURUABARREN AHALMENA". SOZIALIZAZIOAREN ERAGILEAK.
2. MODULUA: "DENA HASTEN DEN LEKUA". FAMILIA.

HELBURU OROKORRAK

- Pertsonen eguneroko esperientzia eta komunikazioa baldintzatzen dituzten estereotipoak eta aurreiritziak hautematea.
- Pertsonen bizipen afektiboan eta kognitiboan gainean diskriminazioak eta berdintasun ezak duten eragina baloratzea.
- Jarrera positibo batzuk sustatzea: aukera berdintasunaren alde, pertsona bakoitzak bere hautapena egiteko duen eskubidearen alde eta pertsonen arteko harremanak era solidarioan ulertzearen alde.

JORRATU BEHARREKO GAIAK

- Hezkuntza eta sozializazioko eragileak ezagutzen hastea:
 - Familia.
 - Eskola.
 - Ingurune soziala.
- Familia:
 - Pertsonen arteko harremanak.
 - Antolakuntza.

BEHARREZKO MATERIALA

- Paper jarraia edo/eta kartulinak.
- Errotuladoreak, zela, guraizeak.

2.2.1

1. MODULUA: "INGURUABARREN AHALMENA": SOZIALIZAZIOAREN ERAGILEAK

SARRERA

Sexismoaz mintzo diren eskuliburu askotan igarkizun bat agertzen da adierazteko gure uni- bertso mentala zenbateraino dagoen sexismoak baldintzatua eta zein markatua dagoen eremu maskulinoen eta femeninoen arteko muga.

"Aita-semeak zirkulazio istripu bat izan dute. Aita bertan hil da eta semeak zauri larriekin eraman dute ospitalera. Zirujauak ikusten duenean zera dio: "Ezin dut operatu, nire semea da-eta."

Hori irakurtzen duenaren erreakzioa antzeko zer bait izan daiteke: "hori ezinezkoa da".

Erantzun zuzena: zirujaua mutilaren ama da.

Hori bat besterik ez da hainbeste adibideren artean:

- eguneroko bizitzaren mailan: familia, lana;
- adimen mailan: informazioaren joera, adimena itsutzea;
- mintzairaren mailan: kargu eta lanbide ugari izendatzeko ez da femeninoa asmatu, nahiz eta horietan gero eta emakume gehiago dauden (ez izendatzea haien existentzia ukatzea bezala da).

Horrela, intoxikazio sexistan ditugun mailen erakusle gisa, egoera ugari ekar ditzakegu go- gora eta horiei buelta eman batzuk zein bitxi, mingarri edo barregarri bihurtzen diren fro- gatzeko.

Kontua izango da orduan ulertzea nola hori dena hezkuntza baten ondorioa den, familia- ren barruan hasi eta gizarteak indartzen duena: eskolak, inguruneak. Gure kultura eta gure ordena soziala arau eta balore batzuek markatuak dira, eremu pribatua —familia— eta ere- mu publikoa —eskola, lana, politika, e.a.— bereizten dituztenak, emakumeei etxearen ar- dura ia modu eskusiboan emanez eta gizonei kanpoko mundua. Horretarako, pertsonen-

gan beren eginkizunetarako gaitzen dituzten ezaugarriak sustatzen dira: emakumeek samurtasuna landu behar dute, sentsibiltatea, pairamena; gizonetakoek, aldiz, gogorrak izaten —fisikoki eta emozionalki— ikasten dute, lehiakor, e.a. Jarduerak zatiketa horren arabera antolatzen dira —jokoak, irakurketak— eta zatiketa bera sendotuko dute: alde batetik panpinak, ontzitxoak, Loti Ederrak eta Edurnezuriak; bestetik pistolak, eraikinak, Printze Ausartak eta Kortsario Beltzak.

Neskatilei gutxiagotasun konplexua eta ahultasun sentipena sartzen zaizkie, eta “bokazio” bakartzat eta estatus sozial batera iristeko aukera bakartzat ezkontza eta amatasuna uzten dizkiete; haurrei dagokienez, erreprimitzen zaie sentsibiltate edo emotibitatearen edozein arrasto eta beren lanaren bidez familia mantentzeko erantzukizuna bere gain har dezaten prestatzen dituzte.

Era horretan, sexu diskriminazioak gizarteari bere ahalmen intelektualaren erdia kentzen dio, emakumeak ikerketa eta produkzioko eginkizunetik baztertzen dituelako eta kanpoko munduari agresibitate konpulsiboaren marka itsasten dio.

Sexu diskriminazioa indarkeria estrukturalaren multzoan txertatzen da eta horren lehenbiziko esparrua familia da. Pertsonen arteko harremanetan eta ingurunearen arloan indarkeria ezabatzeko lehenbiziko zeregina da arazo hori agerian jartzea, pertsona orori zor zaion aukera berdintasuna ez dakion bidegabe ukatu. Horrela, garapen pertsonalerako gaitasuna eta gizaki libre eta solidarioen arteko komunikazioak eskaintzen dituen aukerak mugatzeak dakarren atzerapena gaingidituko litzateke.

HELURU ESPEZIFIKOAK

- Jarduera koordinatu bati edo eguneroko bizitzatik ateratako egoera batzuei konponbidea eman behar zaienean, nesken eta mutilen artean zereginak banatzerakoan izaten diren estereotipoak agerian ezartzea.
- Pertsona bakoitzarengandik espero den horretan, neska ala mutila izatean egiten den diferentzia salatzea, eta agerian jartzea horrek elkarrekiko konfiantzarako duen garrantzia.
- Elkar ezagutzeko aurreiritziek zernolako eragozpenak sortzen dituzten frogatzea.
- Rol sexualen ikasketan eta estereotipoen transmisioan hezkuntzak eta sozializazioak duten garrantzia aitortzea.

- Sozializazio eragileek eredu maskulinoak eta femeninoak itxuratzeko erabiltzen dituzten baliabideak eta moduak ulertzea.

2.2.2

2. MODULUA: "DENA HASTEN DEN LEKUA". FAMILIA

SARRERA

Irudietan azaltzen den bezala (ondoko orrialdeetan), familiak ez du beti egitura bera izan, ez eta neurri berberak ere: historian zehar, zibilizazioak nolakoak, halako familia motak izan ziren eta dira oraindik ere, eta familia mota bakoitzari eginkizun desberdinak dagozkie, gizartearen antolakuntza ekonomikoaren eta politikoaren arabera.

- Familia zabal primitiboa: zenbait belaunaldik eta adarrek osatua, arduratzen da ondaren produkzioaz, haien banaketaz eta kontsumoaz: elikagaiak, jazkiak, lanabesak, etxebizitza, e.a.; aginte politikoaren ordezkari da eta gizarte osoaren sinesteak eta tradizioak transmititzen dizkie kide guztiei.
- Familia zabal tradizionala: hedadura galtzen du eta, batez ere, produkzio eginkizunetan jarduten da: nekazaritzaren ustiapena, artisau tailerra, e.a. Gizarte osoaren antolakuntza konplexuagoa da eta familiez gaindikoa.
- Familia nuklearra: industri produkzio motak inposatzen duen antolakuntza sozial eta ekonomikoaren emaitza da. Gurasoek eta seme-alabek osatzen dute. Jada ez da produkzio unitate bat eta Estatuak bere gain hartzen ditu asistentzia eginkizun gehienak (ospitaleak, haurtzaindegiak, zahar-etxeak, e.a.) eta sozializaziokoak ere bai (eskolak, kiroldegiak, e.a.). Sail honetako familiaren eginkizunak gero eta gehiago mugatzen dira ugalketa eta kontsumora. Izan daiteke guraso bakarrekoa (hau da, aitak bakarrik edo amak bakarrik bere seme-alabekin osatzen duena).
- Komuna bat izan daiteke familia ordezkari dezakeen elkarbizitzako oinarrizko modu bat. Edozein dela ere familia mota, gizarte batean nagusi den kulturaren baloreetan oinarritzen da eta horiek transmititzen ditu, pertsonak modu jakin batera agertzen direlako eta modu horretan portatzen ikasten dutelako. Jeneralean, familia da mutikoak edo neskatilak ezagutzen duen lehenbiziko antolakuntza ereduak, eta horren bidez ikasten du bere ingurukoekin harremanak izaten, hala nola:

- Pertsona bakoitzak zer eginkizun dituen talde osoan.
- Pertsona bakoitzarengandik zer espero behar den eta zer espero daitekeen eginkizun horiek ikusirik.
- Neskarengandik eta mutilarengandik zer espero behar den eta zer espero daitekeen.

Ikasteko bi modu daude:

- zuzeneko agindua:

“Mutikoa/neskatila, egin zak/n hau!”, “Ez egin hori!”

- imitazioa:

Amarekin, aitarekin edo haurrideekin identifikatuz mutikoak edo neskatilak nagusiek egiten dutenari edo egiten ez dutenari jarraituko diote, izan ere, etxean zer ikusi hura ikasi. Haurrarentzat identifikazio ereduak dira, jakinean nahiz ezjakinean.

Pertsona bakoitzak familian bete behar dituen eginkizunak taldean dauden beharretan bat bederari dagokion zatiaren arabera izango dira. Beraz, pertsona bakoitzak zeregin eta eginbehar batzuk bete beharko ditu, eta horrek estatus bat emango dio ordainetan —posizioaren balioa multzo osoan— eta horren kariaz eskubide eta abantaila andana bat. Egungo familiaren ezaugarrietako batzuk ulertzeko, bai eta euskarri dituen antolakuntza eta baloreen norainokoa ere, interesgarri izan daiteke erreferentzi historiko eta ekonomiko batzuk sartzea. Gizakia baitan ez da deus naturalik, ingurunearen egokitzapenaren eta superbizitzarako baliabideak sortzearen ondorio baino, beraz, horren guztiaren oinarrian arazo ekonomikoa datza. Kultura ingurunearekiko elkarrekintzaren ondorioa da eta ideologiak, berriz, gizakiek ingurunearekin eta elkarren artean dituzten harremanen interpretazioak dira.

Engelsek “Familia, Jabetza Pribatu eta Estatuaren sorrera” liburuan egiten duen analisiaren arabera, egungo eremuan (gaur egun familiaren barnean aitaren eta amaren erantzukizun eta eskubide berdintasunaren aldeko legeen bitartez aldatua dagoena, nahiz eta gizartearen praktikan irauten duen) aitaren nagusigoa familiaren gainean antzinatik datorren ohitura da, talde nomadak egonkor bihurtu eta laborantza agertu zenekoa: une horretan lurrak mugatzen dira eta, hortaz, oinordekotzaren haria zehaztu behar da: orduan sortzen da “filiario maskulinoaren haria eta aitarengandiko oinordekotza eskubidea —premutasun eskubidearekin, hots, oinordea semerik zaharrena izatea—. Orduz gero garatzen den kulturak emakumeak gero eta gehiago gizonaren menpean jartzen ditu, bai eskubideetan eta bai erabilpenetan.

Iraultza Industrialarekin produkzio eginkizunak gizonen eta emakumeen artean banatzen dira:

- Emakumeentzat etxeko lanak eta merkaturatzeko ez den produkzio mota.
- Gizonentzat merkaturatzeko produkzioa eta lan ordaindua.

Etxeko lana eta erreprodukzioa (ondasunak landu, prestatu, eta ekoiztea, familiako pertsonak zaintzea) eta familiaren enpresari laguntza ematea emakumeek egin beharreko lan ez ordaindutzat jotzen dira eta familiaren negozioetan izaten duten zuzeneko ekarpena ez da kontuan hartzen ere. Emakumeak ez dira balantze ekonomikoetan agertzen egitura ekonomikoaren oinarrietako bat diren arren. Zenbait naziotan eginiko azterlanen ondoriozko balorazioan, emakumeen laguntza hori Barne Ekoizpen Gordinaren erdia inguru bide da.

Beraz, testuinguru horretan kontsideratu behar da eginkizunen banaketa eta ulertu behar dira generoaren inplikazioak. Horiek erabat baldintzatzen dute nortasuna libreki garatzeko eta bizimodua eta besteekiko harremanak hautatzeko pertsonak duten gaitasuna.

HELBURU ESPEZIFIKOAK:

- Familiaren antolakuntzaren banaketa sexuala aitortzea eta gogoeta egitea horrek familiako kideen arteko harremanetan duen eraginaz.
- Pertsonak ekintzarako eta aukera egiteko duten gaitasun ezberdina, sexuarekin lotuta dagoena, aztertzea.
- Agintearen garrantzia aitortzea eta horren jatorria ulertzea.
- Ezagutzea familiaren barneko eginkizunek zer neurritan estaltzen dituzten pertsonen arteko afektibitatea eta harreman naturalak.
- Ezagutzea zein neurritaraino "esleitutako eginkizunek" bide ematen duten elkartasunezko eta lankidetzako jokabideei —berdinen arteko lanari— itzuri egiteko.
- Ulertzea pertsona bakoitzaren gaitasunei buruzko errespetua eta laneko denboran eta atsedenean berdina izateari zor zaion errespetua oinarritzat hartzen duen familiako elkarbizitzak zer balore aurrerazalea duen, izan ere, lana zenbat eta hobeto banatu astialdia ere hainbat eta hobeto banatuko da.
- Zehaztea zer jarrera aldaketak egin behar diren eta zein diren egin daitezkeen ekintzak, taldekide bakoitzari dagokiona zehaztuz.

2.3

HARREMANEN BIZITZA ETA ESKOLA

3. MODULUA: "IKUS DEZAGUN": ESPAZIOEN OKUPAZIOA

4. MODULUA: "HISTORIAN ZEHAR PASEATUZ": EMAKUMEA EZ DA IKUSTEN

HELBURU OROKORRA

Gai honen helburua litzateke:

Aztertzea—Sentsibilizatzea—Proposatzea.

- Neska-mutikoen artean, sexua dela-eta, eskolatik hasita aukera berdintasun eza eta diskriminazioa betirakotzen dituzten faktoreak aztertzea.
- Tailer honetan parte hartzen duten pertsona guztiak, bidegabeko egoera hau errotik aldatu beharraz sentsibilizatzea.
- Sexuen arteko lankidetzan eta elkartasunean oinarrituriko elkarbizitzako eredu batzuk lortzeko neurriak proposatzea.

JORRATU BEHARREKO GAIAK

- Eskolako espazioen erabilpena.
- Zereginen eta jardueren banaketa, gela barruan eta kanpoan.
- Presentziaren eta ordezkartzaren indizeak eskolako eremuaren estamentu desberdinetan.
- Emakumeak Historian izan duen presentzia eta izan ez duena.
- Eredu maskulinoen eta femeninoen tratamendua komunikabideetan eta testuliburuetan.
- Irakaskuntzaren edukien alorrean duela hamarkada batzuetatik gaurdaino izan diren aldaketak.
- Pertsonaren garapenean eragina duten faktoreak.
- Emakume espainiarrak boto eskubidea lortu izana.
- Espainiako gizartean eta politikan emakumeak duen partaidetza indizeak.

2.3.1

3. MODULUA: IKUS DEZAGUN!: ESPAZIOEN OKUPAZIOA

GAIAREN SARRERA

Azkeneko urte hauetan Espainian hainbat ikerlan egin dira arazo, zalantza, misterio edo dena delakoaren inguruan:

“Zer gertatzen da Espainiako hezkuntza sistemarekin, nesken eta mutilentzat curriculumak bakarra izan, biek espazio berberak okupatu eta irakasle berak izanda ere, artean ere sexismoaren zantzuak agertzeko?”

M. Subirats eta C. Bruilet-ek (1988) ikerlan bat burutu zuten Bartzelonako Unibertsitatean eskola mistoko genero transmisioaren gainean, eta bertan adierazten dute eskola publikoetan dagoeneko ez dagoela instituzionalizatutako diferentziarik neskatilentzat edo/eta mutikoentzat jo izandako gai eta jardueri dagokienez, eta geletan ez direla ikusten neskatilei edo mutikoei instituzionalki zuzendutako espazioak. Hala ere, oraindik bada joera sexu bako taldeak eratzeko, eta horretan, agian, eragina izan dezakete irakasleen ohitura batzuek, beraiek horretaz ohartzen ez badira ere.

Oharpen horietatik zenbait datu atera daitezke ondoren egingo diren lan eta ariketetarako baliagarri izan daitezkeenak:

- Ikastetxeetan gertatzen den espazioen okupazioa franko desberdina da sexuaren arabera: mutilek erdiko guneak eta zabalenak okupatzeko joera dute, neskek, ordea, bazterretakoak.
- Jarduera libreetan, inolako zuzendaritzarik ez dutenetan, partaidetza ere arras desberdina da. Ikusi besterik ez dago zertan eta nola erabiltzen dituzten astialdiak —errekrea— edo kirol jokoak.

Emakumeek hezkuntza sisteman duten presentzia eta ordezkartza hainbat azterlanen xede izan dira. Horien emaitzek datu baliotsuak erantsi dituzte, sexu bientzako aukera berdintasuna, berriro ere, defenditzeko. Aipatzekoak dira, besteak beste:

- Hezkuntza maila guztietan, emakumezkoen partaidetza gizonezkoen adinakoa da.
- Bigarren Hezkuntzan eta Lanbide Heziketan aldeak badaude espezialitateak aukeratzearan.
 - Maila horietan Letrak hautatzen dituzte emakumeen % 60k.
 - Lanbide Heziketan, neskek tradizioz femeninotzat hartu izan diren arloak hautatzen dituzte oraindik ere (Osasuna, Ile-apainketa, Administrazioa) eta mutilek maskulinoak (Automozioa, Elektrizitatea, Delineazioa).
- Unibertsitatean, partaidetza erdi banakoa da. Adierazi behar da azken hamarkadan emakumearen gehikuntza % 103koa izan dela, gizonena % 26koa izan den bitartean.
 - Emakumezko gehienek —% 60tik gora— ikasketa hauek hautatu dituzte: Farmazia, Filosofia eta Letrak, Filologia, Filosofia eta Hezkuntza Zientziak, Zuzenbidea, Geografia eta Historia eta Psikologia.

- % 40 inguruk, Zientziak, Fisika eta Informatika hautatu dituzte.
- % 15ek besterik ez, Goi Mailako Eskola Teknikoetako ikasketak.
- Irakasleen artean partaidetza maila desberdinak daude irakaskuntza arautuaren maila batzuen eta besteen artean:
 - Eskolaurrean, % 94 emakumezkoak dira.
 - Oinarrizko Irakaskuntzan, emakumezko irakasleak % 62 dira, hasierako mailan % 80 eta goiko mailan % 46.
 - Bigarren Irakaskuntzan eta UBIn % 50 dira.
 - LHn guztiaren herena inguru.
- Kategoriei dagokienez, Bigarren Hezkuntzan eta UBIn katedradunetan gizonezkoak dira gehienak eta agregatuaren artean emakumezkoak. LHn emakumezko tituludunak tailerreko maistrak baino gehiago dira, gizonezkoetan, ordea, kontrakoa gertatzen da.
- OHOk ikastetxeetako ardurako zereginei dagokienez, ikusten da irakasleen gehienak emakumezkoak diren arren, ikastetxeetako zuzendariak gehienetan gizonezkoak direla. Hain zuzen ere, irakasleen artean % 61,57 emakumeak izanik horietatik % 46,49 bakarrik dira irakaskuntza lanik gabeko zuzendariak, eta % 39,52 zuzendariak dira, baina irakaskuntza lanean jardun behar dutenak.

Datu hauek guztiak agertzen dira 1988an Hezkuntzako Ikerketa eta Dokumentazioaren Zentro Nazionalak eta Emakumearen Institutuak eginiko azterlan batean. Haren titulu orokorra da "Emakumeen presentzia hezkuntza sisteman".

HELBURU ESPEZIFIKOAK

Modulu honetan lortu nahi diren helburuak, bakarkako eta taldeko lanean oinarrituta, eskolako esparruan izaten diren diferentzien analisiari dagozkio, xehetasun hauen gainean:

- Nesken eta mutilen presentzia eta partaidetza.
- Espazioen banaketa eta erabilpena.

Asmoa da —taldea aztertuz eta gogoeta eginez— hezkuntza inguruneek garapen pertsonalaren prozesuan zenbaterainoko eragina duten ikustea.

Asmoa da, halaber, sentsibilizazioaren ondotik, bakarka eta taldeka, aldaketarako konpromisoa hartzeko bidea irekitzea.

SARRERA

Asko dira, asko gara, Historiaren tratamendu androzentrikoa salatzen ari garenak. Behar bada ez da kasualitatea historialari gehienak —hizkuntzalariak, soziologoak, ekonomistak, ...— oraintsu arte denak gizonezkoak izatea. 4. modulu honen xedea da aztertzea nola irudikatu den historian zehar emakumeen eta gizonen mundua, herrien historia kontatu eta idatzi dutenen ikuspegitik. Zehazki bi iturri hartuko ditugu, tailer honetako partaideek hurbiletik ezagutzen dituztenak: testuliburuak eta komunikabideak.

Gizartearen emakumeek eta gizonek betetzen duten tokia funtsezkoa da pertsona horien eta gizartearen beraren garapenerako.

Horretatik da hain inportantea xehetasun batzuez ohartzea:

- Komunikabideetan nor agertzen den eta zeinetaz hitz egiten ez den.
- Pertsona batzuek egiten dutenaz zer kontatzen den eta beste batzuek egiten dutenaz zer ez den esaten.
- Nolakoa den gizonen eta emakumeen eguneroko bizitza.
- Nolakoa den pertsonen garapena, hezkuntza, emozio edo lanbidearen arloan.
- Zein faktorek baldintzatzen duten garapen hori modu batekoa edo bestekoa izan dadin, pertsona hori emakumezkoa edo gizonezkoa denean.

Espainiako ikastetxeetan lan tresna diren eskuliburu eta testuliburuetan, emakumeen presentzia eta erreferentziak askozaz ere txikiagoak dira gizonezkoenak baino, eta gainera hagitx soslaituak:

- Emakumeak gizonezkoek nolabait lotuta agertzen dira (erregaren emaztea, zientifiko batena edo idazle batena...).
- Tradizionalki gizonezkoena den jarduera bat egiten.
- Amatasunaren zereginetan edo etxeko zerbitzari lanetan.

HELBURU ESPEZIFIKOAK

- Diskriminazio sexistarako bidea irekitzen duten hainbat faktorek nola dirauten oraindik analizatzea, irakaskuntza mistoa dagoen arren.
- Emakumeari testuliburuetan zein tratamendu ematen zaion aztertzea.
- Irakasgaietan azken urte hauetan zehar gertatu diren aldaketa guztiak biltzea.
- Pertsonaren garapen prozesuan eragina duten faktoreetako batzuk ebaluatzea.
- Mende honetan emakume espainiarrarentzat berebiziko garrantzia izan duten gertakizunetako batzuk analizatzea.

2.4

HARREMANEN BIZITZA ETA INGURUNE SOZIALA

5. MODULUA: "NOLA MOLDATZEN ZARA?". MIKROINGURUNEAREN ANALISIA.

6. MODULUA: "INGURATZEN GAITUENA". GIZARTEAREN ARLOA

HELBURU OROKORRA

Bakarka nahiz taldeka, gogoeta egitea gure gizartean emakumeen eta gizonen artean izaten diren harremanen gainean: komunikabideetan, lanean, publizitatean, organizazioetan, e.a., estereotipo sexualak oinarri duten egoera bidegabeko eta diskriminatzaileez kontzientzia hartzeko eta jarrera ez-sexistak izatera bultzatzeko.

JORRATU BEHARREKO GAIAK

Neska-mutilen ingurune sozialaren analisia, haien eguneroko bizitzaren aldetik:

- Astialdia:
 - Aisialdiko jarduerak.
 - Giro eta espazioen banaketa.
 - Ordu-tegiak eta astialdiko okupazioa
- Neska-mutilen arteko harremanak:
 - Laguntaldek

-
- Jokoak eta kirolak.
 - Telebista, sozializazio fenomeno gisa:
 - Publizitatea telebistan.
 - Komunikabideak:
 - Rol eta estereotipo sozialak.
 - Lanbideak:
 - Lanbiderako orientabidea.
 - Lan sektoreak, sexuaren arabera.
 - Artikulazio soziala:
 - Gazte Elkartean parte hartzea.

SARRERA

Hasieran familiaren barruan eta gero eskolan gertatzen diren sozializazio prozesuak gizarte bakoitzean ezarrita dauden jarraibide eta portaera arauak finkatzen dituzte. Nolakoak diren kultura, erlijioa, ideologia, sistema politikoa, ohiturak, tradizioak, e.a., halakoak izango dira arau horiek ere, beraz, arrunt desberdinak euren artean.

III. gai honetan gure ingurune soziala eta kulturala analizatuko dugu. Lehenbizi 5. moduluaren gertuenetik hasita: geure harremanen mundua, adiskideen, laguntaldearen, aisialdian egiten dugunaren bitartez... azken finean horixe da gure "mikroingurunea".

Kontuan hartuko ditugu neska-mutilen artean dauden diferentziak, geure ohiturei, jostatzeko moduei, daukagun denboran izaten ditugun jarduerari, e.a. ei dagokienez, horren guztiaren zergatiak ulertzen ahalegintzeko eta jakiteko zergatik garen garen bezalakoak —inguratzen gaituen ingurunearen eragin eta baldintzengatik—, eta zer alda dezakegun eta zer aldatu behar dugun bizi garen tokian.

Telebista ere aztertuko dugu, izan ere, gure eguneroko bizitzaren parte bat baita. Egutegia, hitzaren edo irudien bidez, ehundaka ideia eta mezu transmititzen dizkigu eta guk geure aldetik bi aldiz pentsatu gabe irensten ditugu, mezuen edukiaz inolako ausnarketarik egin gabe eta horien asmoaz ohartzeke.

Publizitatearen fenomenoak berraztertuko dugu, batez ere telebistakoa, bertan dagoen estereotipo sexistaren zama osoz kontura gaituzten, bai eta horrek adierazten duen rol tradizionalen errefortzuaz ere.

6. moduluan eremu sozialaren alderdi orokorragoak jorratuko ditugu, eragina dutenak gure eguneroko bizitzan eta gizon edo emakume egiteko moduan, hala nola komunikabideak, lana eta garapen profesionala, edo partaidetza sozialaren espazioak, adibidez, gazte elkarateak.

BEHAR DIREN BALIABIDEAK ETA MATERIALA:

- Bideoa (5. modulurako).
- Arbela eta klarionak.
- Kartulinak eta kolorezko tarjetoiak.
- Paper jarraiko erroiloa.
- Txintxetak.
- Zeloak.

2.4.1 5. MODULUA: "NOLA MOLDATZEN ZARA?": MIKROINGURUNEAREN ANALISIA

HELBURU ESPEZIFIKOAK

- Sexu bakoitzari, bereziki nerabezaroan, leporatutako funtzio sozialak eta baloreak aztertzea.
- Aurreiritziak analizatzea, zeinen gainean oinarritzen baitira hainbat baldintzapen sozial.
- Ingurunetik eta batik bat telebistatik etortzen zaizkigun eragin negatibo eta sexistez ohartaraztea.
- Erabateko berdintasunetik jokabide arauak garatzea.

LAN FASEA

SARRERA TEORIKOA

- Kultura sistema bat da, gizarte bateko kideek amankomunean duten jokabideena; ez dator gizonaren izaera biologikotik, aitzitik eskuratu egiten den zerbait da, jokabide

arauak edo ereduak, ohiturak, ezagupen eta sineskerak, baloreak, e.a. bilduz. Kultura, beraz, giza produktu bat da.

- Gizarte bat giza-talde bat da, kultura bat amankomunean duena. Komunitate batek konpartitzen dituen esperientziek osatzen dute kultura eta komunitate horrek, kultura bat duenaren aldetik, gizarte bat osatzen du.
- Sozializazioa prozesu bat da, zeinen bidez gizabanakoak kultura bereganatu, gizartean integratu eta bere nortasuna itxuratzen duen.

Sozializazioak norberaren sorterriko eta bizitokiko gizartearen eduki kulturalak barnertzea esan nahi du, hau da, nork bere egitea. Horrek gizarteari eta kulturari egokitu beharra dakar.

Haur jaio berria mundura denean, batez ere bere behar fisikoak betetzeko erreakzionatzen duen organismo bat baizik ez da. Laster batean garatzen du jarrera eta balore, maitasun eta gorroto, behar eta nahikeria, helburu eta asmoen multzo bat. Horra iristen da sozializazio prozesu baten bitartez.

Lehen sozializazioa hasieran familiaren barruan gertatzen da eta ondoren eskolan eta laguntaldeetan. Eremu horietan mutikoak edo neskatilak kultura bereganatu eta rol sozial desberdinak ikasten ditu.

Rolen ikasketa hau imitazioz eta errepikapenaren bidez egiten da inguratzen gaituzten pertsonen egiten dutena ikusiz eta esaten dutena entzunez. Era horretan, haurtzaroan pertsona nagusiekiko identifikazioa gertatzen da eta haien portaera moduak errepikatzen dira.

Gizabanakoaren nortasuna ondoko elementuak konbinatuz eratzen da:

- herentzia biologikoa (ezaugarri genetikoak, izakera);
- ingurune fisikoaren eragina (klima eta geografia);
- ingurune soziala (hiria, baserria);
- kultura, norbera bizi deneko taldearen esperientzia, eta
- esperientzia indibiduala.

Faktore hauen guztien sintesiak modutzen du nortasuna, denborak aurrera joan ahala eta ikasketa sozialen bitartez zehaztuz eta argituz doana. Nortasuna da gizabanako bat besteengandik bereizten duen jokabide egonkorra edo ohiko izakera.

HELBURU ESPEZIFIKOAK

- Komunikabideen analisia, haiek luzatzen dituzten mezuak kritikoki argitzeko.
- Mintzairaren erabilpen sexistaz kontzientzia hartzea.
- Partaideak sentsibilizatzea estereotipoen eta rol sexualen sistema betirakotzearen gainean.
- Lan sektore desberdinak aztertzea eta, orobat, lan munduarekin gizonen eta emakumeen duten lotura desberdina.
- Lanbide orientazio ez-sexistaren aldeko irizpideak garatzea.
- Gazteen entitate eta elkarrean eginkizun sozialaz gogoeta egitea, bai eta giza taldeen artikulazioaren garrantziaz ere.

LAN FASEAK**SARRERA TEORIKOA**

Estatua da gizabanako batek talde batean, edo talde batek beste batzuen artean okupatzen duen tokia.

Rola da estatus jakin batean gizabanako batengandik espero den jokabidea.

Estereotipoa aldeztu aurretik eginiko ideia bat da, eta horretatik abiatuta ezartzen den irizpideak definitzen du batek nola jardun behar duen edo bestek nola definitzen duten nola izan behar duen. Hori guztia gizabanakoari gerruntzea derrigorrez jartzea eta klitxe horretara mugatzea bezala da.

Pertsona orok bere estatusa aldatzen du bizitzan zehar, posizio desberdinak okupatuz eta gizarteak beragandik espero izaten du posizio bakoitzari dagozkion rola bete ditzala.

Estatua uler daiteke betebeharrak eta pribilegio multzo bat bezala, eta rola izango litzateke pribilegio eta betebeharrak multzo horren adierazpena.

Rol sozialak ekintzak eta jokabideak determinatzen ditu, izaera objektiboa du, estereotipoa, berriz, subjektiboa da, eta ideiak eta iritziak balditzatzeaz gainera pentsatzeko eta sentitze-ko moduak, batzuetan logikarik gabekoak edo irrazionalak, biltzen ditu. Biek dute erabateko eragina komunitate bateko kideen itzaropideetan.

Nolanahi ere, aurreko moduluan ikusi dugun bezala, bizi gareneko eta gugatik espero diren rol ezberdinen bitartez sozializatzen gareneko giroan nagusi diren ideiek, sineskeriek eta estereotipoek gudan berebiziko eragina dute. Horrek zera dakar berekin:

- a) rol jakin horrek dakarzkigun betebeharrak eta exigentziak betetzen ikasten dugula kontzienteki nahiz inkontzienteki, bai eta abantailak edo pribilegioak eskatzen ere;
- b) betetzen dugun rolari dagozkion jarrerak, sentimenduak eta itxaropideak eskuratu behar ditugula.

Hautzarotik hartzen dugun hezkuntzaren parte handi bat zuzenean bideratua dago geure burua adimenez eta emozionalki prestatzera, ondoren "kanpotik" esleitzen zaigun rola guregana dezagun. Baina hezkuntzaren joera berritzaileek zalantzan jartzen dute, hain zuzen ere, betiko rolak asumitzeko sistema hori.

Sexua eta adina gizarte guztietan rol jakin batzuk esleitzeko oinarritzat hartzen dira. Hori dela-eta gizonen eta emakumeen arteko bereizketa, sexuan oinarritua, aurkitzen dugu; edo belaunaldien arteko sailkapena, adinaren arabera.

Kategoria hauetako bakoitzean erantzukizunak eta kontrapartidak desberdinak dira: esate baterako, mutikoei eta neskatilei nagusien menpe egon daitezela eskatzen zaie, baina autosufiziente izateko konpromisotik salbuetsirik daude; edo, tradizionalki, emakumeari gizonen menpe egon zedin eskatzen zitzaion, horren truke gizonaren "babesa" izango zuelakoan.

Sexua eta adinaz gainera, horiek badira ere funtsean oinarritzko rolak zehazten dituztenak, zenbait kulturatan beste elementu garrantzitsu batzuk daude, hala nola, arraza, nazionalitatea, klase soziala eta erlijioa.

Gizartea saiatzan da bera osatzen duten gizabanakoek bere egin ditzaten gizarteak ezarritako rolak, eginkizun guztiak mugatuz eta gizonen eta emakumeen artean banatuz. Horrela sortu zen ondokoen arteko zatiketa:

- alde batetik arlo publikoa (orokorrean bizitza ekonomiko, politiko eta sozialarekin zerikusirik duten eginbeharrak biltzen dituena), gizonezkoei adjudikatzen zaiena, eta
- bestetik, arlo pribatua (besteak beste, familiaren antolakuntzak eta arretak, eta seme-alabak eta etxea zaintzeak ematen dituen lanek osatua), emakumeen gotorleku bihurtzen dena.

Baina banaketa hori guztiz aleatorioa eta konbentzionala da, eta hura ezartzeko erabili den arbitrariotasun berarekin alda daiteke. Eginkizun erreproduzitzaile eta biologikoak sal-

buetsiz, gainerako guztiak gizonek eta emakumeek modu berean eta gaitasun eta eragin-kortasun berdinarekin burutzen ahal dituzte.

Beraz, rol sozial maskulinoen eta femeninoen definizioak eta sailkapenak ezin konta ahala aldaketa izan ditzakete. Une honetan eginkizun horiek nahitaez birdefinitzeko aldi historiko batean gaude, izan ere, gure garai honetan —planteatzen dituen bizi erritmo eta exigentzia berriekin— aldi joanean gizartea arautzen zuten eredu edo patroik tradizional horiek jadanik ez dute balio.

Gero eta gehiago, berdinkideen gizarte baterantz goaz, eta gizarte mota horretan ez da zilegi izango arraza, klase sozial, erlijio edo ideologia bezalako diferentziek batzuen besteen gaineko nagusigorik ezartzea. Ildo horretan, gizonen eta emakumeen arteko berdintasun errearen aldeko borroka —ez legezkoa soilik— kontinente eta kultura mota guztietako milioika pertsonak sentitzen eta eskatzen duten nahi bizia da, horrelaxe ikusi baitzen Pekinen, ONUko Emakumeen gaineko Munduko IV. Konferentzian (1995eko irailean).

Sexuen arteko harreman mota berriak bilatzea, etxeko eta familiako lanak, eta orobat, eginkizun publikoak eta sozialak, elkarrekin egitea oinarritzat hartuz, premiazko erronka da eta erronka horri denon artean erantzun bat, berehalakoa eta zuzena, eman behar diogu.

Baina, beste alde batetik, tankera askotako interesak ere badaude, gauzak bere horretan uztearen alde daudenak, bizitzaren atalak modu iraunkorrez eta naturalean banatzen uzten ez dutenak, alderantziz baizik, sexu bakoitza zein bere esparruan bereizirik eta banandurik mantendu nahi dutenak.

Horren atzetik jokoan daude balore batzuk eta eredu batzuk, bizitza soziala eta pertsonen arteko harremanak nolakoak izan behar duten esaten dutenak. Gai honetan komunikabideek gaur egun funtsezko eginbeharra dute, jokabide patroiak sendotzeko edo horiek aldatu eta bilakabidean jartzeko.

LANBIDEAK

Orain arte sexuen arteko bereizketaren adibiderik argiena lan mundua zen. Tailerlean zehar analizatu dugun bezala, emakumea bakardade osoan arduratzen zen etxeko lanez eta seme-alaben nahiz familiako beste kideen (adinekoak, gaisoak eta bakarrik gelditzen diren ahaideak...) zainketaz, gizonezkoa lan egitera etxetik kanpora ateratzen zen bitartean.

Emakumea lanbide munduan gero eta gehiago sartzea aldaketa sakonak sortarazten ari da familia barruko eta gizarte osoko harremanetan. Hala ere, lanarekiko lotura hori desaban-

taila nabarmenarekin burutzen ari da gizonezkoekin alderatuta, batez ere emakumeen prestakuntza teknikoa orain arte pattalagoa izan delako, eta arazoak izan ohi dituelako familiaren ardua eta kanpoko lana bateragarri egiteko.

Belaunaldi berriak arazo horiek errotik gainditzeko ari dira: lehenik eta behin, hezkuntza eta lanbide heziketan sartzeko egun dagoen berdintasunagatik; eta horrezaz gainera, etxeko lanak eta seme-alaben zainketa zuzen banatuz, bikotekide biek etxe barruan eta kanpoan lan egiteko aukera eta baldintza berdinak izan ditzaten. Dena den, bide horretan urrats handiak ematen ari badira ere, berdintasun hori oraindik ez da benetakoa. Egia da emakumeak sartzeko ari direla produkzio sektore desberdinetan (batez ere zerbitzuen sektorean), baina gutxiago ordaintzen zaie egiten duten lanagatik eta lanak ere espezializazio eta prestigio gutxiagokoak dira; eta gizonezkoen lan bera egiten dutenean ere, emakumeen soldata gizonezkoena baino laurden bat apalagoa da, haien kategoria bezala eta ia ez dira iritsi ere egiten zuzendaritza karguetara.

Nolabaiteko “debeku” bat dago, emakumeari erantzukizuneko postuetara iristea eragozten diona; gizonezkoen artean arazoak daude emakume baten zuzendaritzapean egoteko; eta zenbait lanbide eremu “maskulinoztat” jotzen dira, besterik ez bada ere orain arte gizonezkoak izan direlako horietan aritu direnak.

Egoera aldatzeko eman behar den lehenbiziko urratsa da kontzientzia hartzea zein bidegabekoa den orain arte bizi izan dugun lan munduaren banaketa soziala, zeinak emakumeak baztertzen baitzituen lanbide gehienetatik.

2.5

HARREMANEN MODU BERRIETARANTZ: “ITXIERA ETA HASIERA”

Espainiako Konstituzioaren 14. artikulua berdintasunaren eta sexuan oinarritutako diskriminaziorik ezaren printzipioa ezarri du.

1978an aldarrikatu zenetik gaur egunera arte aldaketa franko egin dira legerian, emakumeen kontrako berdintasun eza zuzentzearen aldera. Legeriaren aldaketa horien xede izan dira osasunaren eta hezkuntzaren gaiak eta baita gai juridiko hutsak —penalekoak eta zibilak—. Hala eta guztiz ere, eta berdintasun “teoriko” horren gainetik, Europako Batasuneko nazioek —horien artean Espainiak ere bai—, autonomiek, eta hainbat udalek,

beren Aukera Berdintasunaren aldeko Ekintza Planak prestatu dituzte —Ekintza Positiborakoak ere deitzen direnak—. Plan horiek abian jartzearekin, asmoa da teoria hori ohiko praktika bihurtzea. Era horretan baliabideak jartzen dira emakumeak bere garapen pertsonal osoa lortzeko oinarritzko mekanismoak erdiets ditzan eta kultura, politika, lan edo harremanetako bizitzan sar dadin. Plan horien xedea da, halaber, gizonetzkoen baitan jarriera aldaketak eragitea.

Helburuak eta ekintzarako neurri estrategikoak funtsean ekintza arlo hauetan diseinatu dira: Hezkuntza; Kultura; Osasuna; Enplegua; Gizarte Zerbitzuak; Lankidetzak; Ikerketa.

Atal hauek 7 eta 8. moduluetan planteatzen den lana garatzeko oinarri izan daitezke. Modulu horien helburua da Hezkuntza Ez-sexistako tailer honen garapen osoaren bilduma izatea, ingurunera proiektaturiko ekintza oso baten proposamenarekin. Modulu guztietan barrena analizatu eta eztabaidatutakoa barneratzen den neurrian, hori dena eguneroko bizitzako egintza konkretuetan eta aldaketarako konpromisoetan gauzatu ahalko da.

Itxiera gisa Tailerraren azken talde-lana proposatzen dugu, espazio handi batean egitekoa —patioan, areto nagusian—, eta horren bidez:

1. dinamismo eta plastizitate handiago ematea;
2. beste ikasleei, ikastetxeko klustroari eta gurasoei jakinaraztea.

Azken proposamen honetan asmoa da Tailerreko zortzi saioetan zehar eginiko gogoeta osoa agertaraztea, efektu biderkatzailea lortzeko eta hau dena familiekin, beste kurtsoetako lagunekin, irakasleekin, adiskideekin, e.a.ekin partekatzea. Era berean, auzoetako kolektibo eta elkarteei luzatzen ahal diezue azken aurkezpenetarako gonbitea, tailer honetan ikasi duzuenaren gainean zeuek, bakarka eta taldeka, eginiko sintesiarekin. Hori izango da zuen gogoeta, eta jokabide aldaketa guztien bateratzea.

Azken batean, guztion nahia da beste mota batzuetako harremanen bila abiatzea, eta horrek jarriera aldaketak ekarri behar ditu, gizonenak eta emakumeenak. Eta sentsibilizazio hutsa ez da aski. Bizitza elkarrekin antolatu beharra dugu, berdintasunezko planteamendu eta harremanetan oinarrituta.

Horrek esan nahi du eginkizunen banaketa berri baterantz jo behar dugula, hala bizitza pribatuan nola publikoan, non zeregin sozialak eta familiakoak, eskubideak eta betebeharrak, emakumeek eta gizonak neurri berean eta eremu guztietan banatu eta bere egin beharko dituzten. Horrela baizik ez dira lortuko gizarteak eta pertsonak behar duten berdintasun osoa eta kulturaren aldaketa sakona.

2.6

HEZKUNTZA EZ-SEXISTAREN ETA HEZKIDETZAREN GAINEKO BIBLIOGRAFIA

INSTITUTO DE LA MUJER ERAKUNDEA, GIZARTE ARAZOETARAKO MINISTERIOKO ARGITALPENAK

EZTABAIDA SAILA:

2. zk. *La investigación en España sobre mujer y educación*. Madril, 1987.
3. zk. *La mujer y el deporte*. Madril, 1987.

AZTERLANEN SAILA:

14. zk. *Modelos masculino y femenino en los textos de EGB*. Nuria Gareta eta Pilar Careaga. Madril, 1987.
18. zk. *La presencia de las mujeres en el sistema educativo*. CIDE, Madril, 1988.
19. zk. *Rosa y azul. La transmisión de los géneros en la escuela mixta*. Marina Subirats eta Cristina Bruilet. Madril, 1989.

DOKUMENTUEN SAILA:

1. zk. *Manual de acción: Cómo llevar a la práctica la igualdad entre los sexos*, Europako Komunitateen Komisia. Madril, 1986.
4. zk. *Estrategias de Nairobi orientadas hacia el futuro para el adelanto de la mujer*. ONU, Madril, 1987.
5. zk. *Un programa de acción positiva*. Ilaria Bianca. Madril, 1988.

HEZKUNTZA EZ-SEXISTARAKO KOADERNOEN SAILA:

- La educación no sexista en la reforma educativa*. Madril, 1992.

BIBLIOGRAFI KOADERNOAK:

3. zk. *Bibliografía analítica. Mujer y educación 1984-1988*. CIDE. Madril, 1989.

BESTE TITULU BATZUK:

- Jornadas Mujer y educación* (Lehenengoa 1984. Madril). Madril, 1985.
- "El trabajo y la educación de la mujer en España 1900-1930". Rosa M. Capel. Madril, 1987.
- La mujer en cifras*. Madril, 1986.
- La mujer en cifras*. Madril, 1991.
- Mujer en cifras*. Madril, 1995.
- Plan para la igualdad de oportunidades de las mujeres (1988-1990)*. Madril, 1988.
- II Plan para la igualdad de oportunidades de las mujeres (1993-1995)*. Madril, 1993.
- III Plan para la igualdad de oportunidades de las mujeres (1997-2000)*. Madril, 1997.
- Escuela mixta y coeducación en Cataluña durante la II República*, Esther Cortada, 1989.

BIDEOAK:

- La cotidiana vida*, Victoria Sendón.
- Lo que el tiempo nos dejó*, Coeducación, V. Sendón, 1987.
- Chinchetas rojas. Pequeñas diferencias, grandes consecuencias*, Brigitte Aschijanden. Madril, 1987.
- La mujer y las nuevas tecnologías*. Madril, 1987.
- Spot de Dama*.
- "Rosa y Azul". TVEko *Viéndolas venir* telesaila.
- Imágenes de la mujer*. Emakumea Indiako filmografian.
- "El sueño imposible". Marrazki bizidunak. *Vaqueros y princesas*.

Aipatu bideo horien kopiak dohainik eskura daitezke grabatu gabeko zinta bat Argitaldaria, Instituto de la Mujer. Almagro kalea, 36 - 28010. Madril. (Sección de Medios Audiovisuales) erakundera bidaliz.

**HEZKUNTZA MINISTERIOKO
ARGITALPENAK**

HEZKIDETZA SAILA:

- El sexismo en la enseñanza*, 1987.
- Recomendaciones para el uso no sexista de la lengua*, 1988.

Guía didáctica para una educación no sexista. I. Alberti; L. Martínez Ten, 1988.

La educación no sexista en la Reforma educativa. Madril, Instituto de la Mujer Erakundea, 1992.

BESTE ARGITALPEN BATZUK

AJAMIL, M.; LUCINI, S.; FUCHS, N.: *Taller de Educación No Sexista.* 2. argitalpena, Madril, Gazteriaren Gurutze Gorriak argitaratua, 1991.

AJAMIL, M.: "La mujer y su proceso de búsqueda de identidad", *Entre Líneas*, 1. zk., FEUP, Madril, 1987, 58-68 orr.

AJAMIL, M.: "Por qué un proyecto sociocultural con mujeres?", *Entre Líneas*, 3. zk., Madril, FEUP, 1988, 46-58 orr.

AJAMIL, M.: "Educación y Género", *Rev. Iberoamericana de Educación*, 6. zk., Madril, OEI, 1994, 102-120 orr.

BADINTER, E.: *El uno es el otro.* Bartzelona, Planeta, 1987.

BORDIEU, P.: *La Reproducción* (Elementos para una Teoría del sistema de Enseñanza). Bartzelona, Laia, 1977.

BROWNE, N.; FRANCE, P.: *Hacia una educación infantil no sexista.* Madril, Morata, 1988.

CATALA, G.; GARCÍA, P.E.: *Una mirada otra.* Valentzia, Generalitat Valenciana, Conselleria de Cultura y Educació, 1987.

CATTON, J.: *Vías y medios: el taller, el diseño y la educación tecnológica de las chicas.* Madril, Hezkuntza Ministerioa, 1989.

DEBLE, L.: *La escolaridad de las mujeres.* Unesco, 1980.

DURÁN, M.A.: *La jornada internacional.* Itala, 1986.

EGILE BATZUEK: *Mujer y Educación: el sexismo en la enseñanza.* Bartzelona, ICE, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa, 1987.

EGILE BATZUEK: *Elementos para una educación no sexista. Guía didáctica de la coeducación.* Alacanteko Feminarioa. Valentzia, Víctor Orega, 1987.

EGILE BATZUEK: *La educación de lo femenino: estudio internacional sobre desigualdades entre muchachas y muchachos en la educación.* Bartzelona, OCDE, Aliorna Teoria eta Praktika, 1987.

EGILE BATZUEK: *Por una educación no sexista.* Zaragoza, Aragoi, Nafarroa eta Errioxako CEPak, 1988.

EGILE BATZUEK: *A favor de las mujeres*. Oviedo, Asturiasko Eskola Ez-sexistaren aldeko Taldea, 1989.

EGILE BATZUEK: *A favor de las niñas*. Madril, Neskaten aldeko Telde Feminista, 1988.

FERNÁNDEZ, J., eta beste: *Nuevas perspectivas en el desarrollo del sexo y el género*. Madril, Pirámide, 1988.

GIANINI BELOTTI, E.: *A favor de las niñas*. Caracas, Monte Avila, 1978.

IZQUIERDO, M.: *Las, los, les (lis, lus)*. *El sistema de Sexo-Género y la mujer como objeto de transformación social*. Bartzelona, Lasal, 1985.

MAÑERU, A.; RUBIO, E.: *Igualdad de oportunidades en ambos sexos*. *Transversales*. Madril, Hezkuntza Ministerioa, 1991.

MICHEL, A.: *Mujeres, sexismo y sociedad*. Madril, Gráficas Espejo, 1980.

MICHEL, A.: *Fuera moldes. Hacia una superación del sexismo en los libros infantiles y escolares*. Bartzelona, Lasal, UNESCO, 1987.

MORENO, M.: *Cómo se enseña a ser niña. El sexismo en la escuela*. Bartzelona, Icaria, 1986.

NAZIO BATUAK: *Las mujeres en el mundo izeneko txostena*. ONU, New York, 1995.

NICHOLSON, J.: *Hombres y mujeres: Hasta qué punto son diferentes*. Bartzelona, Ariel, 1987.

RAMA, G.W.: *II Informe Educación y Juventud de América Latina*. Madril, OEI, 1994.

SANTOS GUERRA, M.A.: *Coeducar en la escuela*. Madril, Grupo Cultural Cero, 1984.

SAU, V.: *Ser mujer: El fin de una imagen tradicional*. Bartzelona, Icaria, 1986.

SIGUAN, M.: *Lenguaje y clase social en la infancia*. Madril, Pablo del Río, 1979.

SMAIL, B.: *Las ciencias atractivas para las chicas: evitando sesgos en el currículum*. Madril, Hezkuntza Ministerioa, 1989.

UNESCO, *Informe mundial sobre la Educación*, Madril, 1992; Paris, 1996.

VERA OCAMPO, S.: *Los roles femenino y masculino, ¿condicionamiento o biología?* Buenos Aires, Grupo Editor Latinoamericano, 1987.

WALKER, D.: *Igualdad de género*. Madril, Hezkuntza Ministerioa, 1989.

WILLIS, P.: *Aprendiendo a trabajar*. Madril, Akal, 1988.

CUADERNOS DE PEDAGOGÍA aldizkaria

EGILE BATZUEK: "Mujer y educación", 31-32 zk., 1977.

EGILE BATZUEK: "Sexismo en el Aula", 171. zk., 1989.